

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO
ERAKUNDEAREN ETIKA BATZORDEAREN
JARDUERA MEMORIA

2018



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Argitaratzailea:

Gipuzkoako Foru Aldundiko Erakundearen Etika Batzordea

Argitalpena: 2019ko Ekaina

Argitarapena:

Gipuzkoako Foru Aldundia

Gobernantza eta Gizartearekiko Komunikazioa

Modernizazioaren, Zerbitzuen eta Informazio Gizarterako Sistemen

Zuzendaritza nagusia

Plaza Gipuzkoa z/g. 20004 Donostia

T. 943 11 39 60 · modernizazioa@gipuzkoa.eus

www.gipuzkoa.eus/eu/aldundia/zuzentasun-sistema/etika-batzordea

Lege Gordailua: SS-588-2019

ISBNa: 978-84-7907-808-9

SARRERA

Diputatuen Kontseiluak 2016ko martxoaren 1ean hartutako erabakiaren bidez, Gipuzkoako Foru Al-
dundiko eta haren Sektore Publikoko Erakundearen
Zuzentasun Sistema onartu zuen. Jarraian, Era-
kundearen Etika Batzordea (EEB) sortu zen 3/2016
Foru Dekretuaren bidez, eta Diputatuen Kontseiluak
2016ko maiatzaren 3an hartutako erabakiaren bi-
dez, bertako kideak izendatu ziren, hain zuzen ere
Erakundearen zuzentasun Sistema hori betetzeko
berme organo gisa.

Memoria honen xedea da 2018an zehar Erakunde-
ren Etika Batzordean izandako jarduera jasotzea,
hain zuzen ere Erakundearen Zuzentasun Sistema
Bermatzeko Organoaren funtzionamenduari buruz-
ko d) eta e) ataletan xedatutakoaren arabera. Horrez
gain, memoria honek, aztertutako kasuak zehazteaz
gain, hainbat gomendio ere jasotzen ditu Erakunde-
ren Zuzentasun Sistemaren barne dauden Jokabide
Kode ezberdinen edukia interpretatzeko, hain zuzen
ere edukia argitu eta egungo egoerara egokitze-
ko.

AURKIBIDEA

1- Testuinguruan jartzea	7
2- Gipuzkoako Foru Aldundiaren Erakundearen Zuzentasun Sistema . 9	
a) Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta haren sektore publikoaren laguntzei eta dirulaguntzei aplikatu beharreko jokabide kodea eta zuzentasun instituzionaleko esparrua (DLJK)	10
b) Sentsibilizatzeko jardunaldiak	12
3- Zabalkundea	17
a) Biltzarretan parte hartzea	18
• a. Berrikuntzaren eta Zerbitzu Publikoen Biltzar Nazionala (CNIS1018): finalisten saria	18
• b. Administrazio Berriaren Foroa	18
b) Albisteak eta argitalpenak	19
c) Webgunea	21
d) «Gobernantza irekia eta lankidetzazkoa» lineako prestakuntza .	21
4- Jasotako gaiak	23
a) Laburpena	25
b) Ebatzitako gaiak	30
• 01/2018, funtzionarioek prestakuntza ikastaroak emateagatik ordainketa jaso ahal izatearen inguruko kontsulta (EP)	30
• 02/2018, Zuzendari batek hitzaldia emateagatik Gipuzkoako Foru Aldundiak konpentsazio ekonomikoa jasotzearen inguruko kontsulta (KP)	33
• 03/2018, jardunaldi batean hizlari izateagatik kobratu edo dirua dohaintzan ematearen inguruko kontsulta (KP)	37
• 04/2018, Iraganean lan egindako enpresa bat zeharka kontratatzeari buruzko kontsulta (KP)	40
• 05/2018 funtzionario baten eremu pribatua eta funtzio publikoaren arteko ustezko interes gatazka bati buruzko salaketa (EP)	43
• 06/2018 funtzionario baten ustezko interes gatazka baten eta baliabide publikoak helburu pribatuak asetzeko erabiltzeari buruzko salaketa (EP)	49
• 07/2018, master batean irakasle bezala parte hartzeagatik diru ordainketa dohaintzan ematearen inguruko kontsulta (KP) .	55
• 08/2018, Ikastaro batean parte hartzeagatik oparia jaso izanaren inguruko kontsulta (KP)	58
• 09/2018, OPG Euskadi Foro Erregularraren parte hartzailea eta zerbitzu emailea izatean ingurukoa (KK)	61
5- Ezarpen gida	73

1. TESTUINGURUAN JARTZEA

2016an Erakundearen Zuzentasun Sistema berritzaile eta asmo handikoa abiaraztea erabaki zuenetik, Gipuzkoako Foru Aldundiak ez du etsi sistema osatu eta eguneratzeko lanean, gipuzkoar gizartearen premiei eta itxaropenei erantzuna eman ahal izateko. Ezinbestekotzat jo du zuzentasun politika onuragarria eraikitzea, zuzentasunaren ikuspuntutik jokabide okerrak ekiditeko prebentzio sistema bat garatuz.

Ezin da ukatu aldaketa une batean gaudela, nagusiki, gizartearen beraren bilakaera dela eta; izan ere, gero eta prestakuntza handiagoa du eta, hortaz, gero eta zorrotzagoa da politika publikoen antolamenduari eta aplikazioari dagokienez, eta, gainera, gobernatzeko, herri-tarrekin harremanak izateko eta ondasun publikoak kudeatzeko molde berriak eskatzen ditu. Gipuzkoako Foru Aldundia horren jakinaren gainean dago, badaki zein garrantzitsua den itxaropen horiek guztiak betetzea, eta horren emaitza da gaur egungo Erakundearen Zuzentasun Sistema; 2018an, gainera, laguntzei eta dirulaguntzei buruzko jokabide kode berria gehitu zitzaion¹. Hala, foru Administrazioaren jardura esparru guztiak zaindu nahi ditu, gipuzkoar gizarte bereizten duten balioei, printzipioei eta jokabide arauetara jarraitu dakien; jadanik sendotu eta indartu dira goi kargudunen, enplegatu publikoen eta enpresa lizitatuaren jarduerak, eta, gehitutako azken jokabide kodearen bidez, foru Administrazioetik edonolako laguntzak edo dirulaguntzak jasotzen dituzten erakundeak batu zaizkie. Oraindik bide luzea dugu ibiltzeko, baina Gipuzkoako Foru Aldundiak hasitakoa ez du atzerakorik; osatu eta hobetu daiteke, ikasitakoak gogoan hartuz.

Beraz, jadanik lau jokabide kodek osatzen dute Erakundearen Zuzentasun Sistema:

- a) Gipuzkoako Foru Aldundiko eta haren sektore publikoko kargu publikoen zein langile baliokideen Jokabide eta Jardunbide Egokien kodea (KPJK)
- b) Gipuzkoako foru Enplegu publikoaren Etikaren eta Kudeaketa Onaren Kodea (EPJK)
- c) Kontratazio publikoari aplikatu beharreko Jokabide kodea eta zuzentasun instituzionaleko esparrua (KJK)
- d) Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta haren sektore publikoaren laguntzei eta dirulaguntzei aplikatu beharreko Jokabide kodea eta zuzentasun instituzionaleko esparrua (DLJK)

Foru Administrazioak gobernu onaren oinarritzko alderditzat eta funtsezko baliozkat dituen etika eta zuzentasuna. Hain zuzen horregatik, foru Aldundiaren Gobernantza publikoaren esparruko Gobernu Onaren Foru Arauaren proiektuan txertatu ditu, foru sektore publikoaren jardura oinarritu behar duten habeetako bat izan dadin; izan ere, ziur da foru Administrazioaren errendimendua hobetuko duela, herritarrek behar dituzten zerbitzuen mesedetan, horrekin batera kudeaketa publikoan jardunbide egokiak ezarri eta garatzen badira.

¹ Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluaren 2018ko urriaren 2ko erabakia.

2. Gipuzkoako Foru Aldundiko Erakundearen Zuzentasun Sistema

a) Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta haren sektore publikoaren laguntzei eta dirulaguntzei aplikatu beharreko Jokabide kodea eta zuzentasun instituzionaleko esparrua (DLJK)

Administrazio publikoek garatzen duten sustapen jarduera gastu publikoaren modalitate garrantzitsuetako bat da, ez dago zalantzarik, eta hartzaile ditu erakunde pribatu edo publikoak, enpresak, gobernuz kanpoko erakundeak, eta zenbait motatako elkarte eta erakundeak, besteak beste. Beraz, inork ezin du ahantzi dirulaguntza eta laguntza esparru horretara bideratzen diren baliabide publikoen garrantzia, ezta horien gainean kontrola zertu beharra ere. Sustapen jarduera horren helburua ere begi-bistakoa da: esparru publikotik zenbait jarduera pribatu bultzatu, piztu edo sustatu nahi dira eta, batzuetan, jarduera publikoak ere bai, izan ere dirulaguntza edo laguntza horien bitartez lagundu egiten dela Gipuzkoako Lurralde Historikoko politika publikoak betetzen. Honen jatorria gure lurraldeak duen kolaborazio publiko-pribatuko ohituran dago, erronka sozialei aurre egiteko partekatutako mekanismo bezala. Eredu publikoaren eta pribatuaren arteko lotura sendoak aintzat hartzen dituen perspektiba erlazional bat, demokraziaren kalitatea areagotzen duena eta ez bakarrik zerbitzuen kalitatea edo malgutasuna antolakuntzan. Honek adierazten du instituzioak modu demokratikoagoan kudeatzea, gertuagoa, efikazagoa eta legitimoagoa, dirulaguntzen jarduera gobernatzeko era horren ardatz delarik.

Beraz, zuzentasunaren eta oinarriko eskubideen errespetuaren ikuspegitik zein beste baliabide eta printzipio batzuenetik, garrantzitsua da laguntza eta dirulaguntza horien onuradun diren erakunde eta enpresa edo organismo horiek guztiek diharduten modua. Gipuzkoako herritarren ikuspegitik, entitate, enpresa eta organismo onuradun horiek funts publikoen hartzaile dira, eta lagundu egiten dute interes publikoak asetze horretan. Horrenbestez, parte hartu behar dute, era berean, Gipuzkoa eredugarria eraikitzeko proiektu kolektiboan, hots, erakundearen zuzentasun politika ezartzeko prozesu honetan gidari dugun eginkizunean.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta haren sektore publiko instituzionalaren Erakundearen Zuzentasun Sistema ez legoke osorik, zuzentasun instituzionaleko esparrua eta Jokabide Kodea zehaztu gabe; horiek biak aplikagarriak izan behar zaizkie Foru Aldundiaren edo haren sektore publiko instituzionalaren foru dirulaguntzen eta laguntzen hartzaile diren erakunde, elkarte eta enpresei zein beste erakunde onuradunei, 3/2007 Foru Arauak, martxoaren 27koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzkoak, zehazki 2. artikuluan (dirulaguntza kontzeptua) eta 3. artikuluan (aplikazio eremua) aurreikusten dituen baldintzetan.

Diru-laguntzen arloko jardueraren garrantzia ezin da ezeztu, are kontuan harturik baliabide publikoak direla eta horiei lehentasun politiko eta aurrekontu aldetikoak ezartzen zaizkiela zenbait

GIPUZKOAKO FORU
ALDUNDIAREN ETA HAREN
SEKTORE PUBLIKOAREN
LAGUNTZEI ETA DIRU LAGUNTZEI
APLIKATU BEHARREKO JOKABIDE
KODEA ETA ZUZENTASUN
INSTITUZIONALEKO ESPARRUA

CÓDIGO DE CONDUCTA
Y MARCO DE INTEGRIDAD
INSTITUCIONAL APLICABLE A
AYUDAS Y SUBVENCIONES DE LA
DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA Y
DE SU SECTOR PÚBLICO

esparrutan. Horrek eskatzen du foru Administrazioak eta haren sektore publikoak, dirulaguntzak eta laguntzak jasotzen dituzten entitate edo enpresek bezalaxe, dirulaguntzei buruzko legedian eta araudian jasotzen diren printzipio orokorrak betetzea; baina, horretaz gain, eskatzen du Administrazioaren beraren edo hartzaile diren entitate eta enpresen jarduerak ere bere baitan eramatea Erakundearen zuzentasun Sistema osatzen duten kodeen inspirazio diren balioak eta jokabide arauak.

Argi dago dirulaguntzei aplikatu beharreko Jokabide Kode eta Zuzentasun Instituzionaleko Esparruaren dimentsio garrantzitsua da, ez baina bakarra, ez delako eta ezin delako izan. Gainera, dirulaguntzen arloko jardueraren beraren barne dimentsio ukaezina ere badago eta ezin dugu, inolaz ere, bazterrean utzi, Erakundearen Zuzentasun Sistemarekin dituen loturak begi-bistakoak baitira oro har.

Dimentsio biak dira, beraz, gizarte osora iristeko bidea. Dirulaguntzei aplikatu beharreko Jokabide Kodeak eta Zuzentasun Instituzionaleko Esparruak goitik behera bermatzen dituzte aipatu jarduerak gida dituen printzipio orokorrak, eta, zehatzago esanda, publikitate eta gardentasuna, konkurrentzia eta objektibotasuna, berdintasuna eta diskriminaziorik eza, eta eraginkortasuna eta efizientzia. Eta printzipio orokor horiek goitik behera betetzeak osagarri izan behar ditu laguntzei eta dirulaguntzei aplikatu beharreko Jokabide Kodeak eta Zuzentasun Instituzionaleko Esparruak zehazten edo identifikatzen dituzten balio eta jarduera printzipioak; hauek, kasu batzuetan, dagoeneko jasotzen diren beste balio eta printzipio batzuen osagarriak izango dira, baina beste batzuetan aipatu balio eta printzipioen zehaztapen edo garapena izan daitezke, hain zuzen dirulaguntzen arloko jardueraren espezifikotasuna hobeto babestearren foru sektore publikoko langileak (bai foru kargu publikodunak bai funtzionarioak) jarduera horretan ari direnean.

Beraz, Zuzentasun Esparruaren dimentsio bakoitza argi eta garbi ikusi behar dugu. Eremu endogenoa foru sektore publikoko kargudun edo langileen gainean proiektatzen da, hots, foru araudi aplikagarrian eta horri dagozkion kodeetan ezartzen denarekin bat onuradun diren entitate, enpresa eta bestelako organismoei zuzendutako laguntza eta dirulaguntzak bultzatu, kudeatu, kontrolatu eta ebaluatzeko prozesuetan parte hartzen duten kargudun edo langileen gainean.

Aplikazio eremu exogenoa Gipuzkoako Foru Aldundiak eta haren foru sektore publikoa osatzen duten entitateek ematen edo kudeatzen dituzten laguntzen eta dirulaguntzen onuradun diren entitate, enpresa eta bestelako organismoen gainean proiektatzen da.

Jokabide kode eta Zuzentasun Instituzionaleko Esparru hau betetzeko konpromisoa baldintza izango da dirulaguntzak eta laguntzak arautzeko oinarrietan zein horietarako kasuan kasuko deialdietan; eta norgehiagokarik gabeko laguntza edo dirulaguntza zuzenak jasotzen dituzten entitate edo enpresen kasuan, Jokabide kode eta Zuzentasun Instituzionaleko Esparru honi atxikitzea nahitaezkoa izango da laguntza edo dirulaguntza eman eta jaso ahal izateko; eta horrelaxe jasoko du laguntza emateari buruzko ebazpenak berak.

Kode honetako balio edo printzipioak larriki edo behin eta berriro urratzen badira bai onuradunen bai kasuan kasuko entitateetako gobernu organoetako arduradunen jarduera edo jokabideen bitartez, ulertuko da ez direla bete ezarri edo onartutako betekizunak, eta horrenbestez laguntzak edo dirulaguntzak itzuli beharra ezarri ahal izango da, hain zuzen ere 3/2007 Foru Arauak, martxoaren 27koak, dirulaguntzei buruzkoak, ezartzen dituen baldintzetan.

b) Sentsibilizatzeko jardunaldiak

Zuzentasun sistema baten ezaugarrietako bat da, besteak beste, zabalkunde eta prestakuntza mekanismo bat duela, sistemaren osagaiak barneratzea eta haietaz jabetzea sustatzeko, eta, horrez gain, kontuan har dadin zein garrantzitsua den erakunde publikoak eta, batez ere, erakundeotan herritarrei zerbitzu publikoa ematen dizkieten langileak ereduagarriak izatea, balio nabarmena baita herritarrek Gipuzkoako erakundeengan eta zerbitzari publikoengan duten konfiantza indartzeko.

Ildo horretan, 2018an sentsibilizatzeko bi jardunaldi antolatu ziren. Lehenengoa urtarri-laren 17an egin zen, Gipuzkoako Foru Aldundiaren jauregian. Jardunaldiaren helburua, nagusiki, bi jokabide kode hauetan ezarritakoari buruzko ezagutza eta zabalkundea areagotzea zen: batetik, Enplegu Publikoari buruzko Jokabide Kodea; bestetik, eta bereziki, foru kontratazio publikoari aplikatu beharrekoa. Beraz, foru Administrazioan diharduten langileak nahiz foru Administrazioarekin kontratuak dituzten edo izan nahi dituzten enpresa eta erakundeak izan ziren jardunaldiaren xede. Eta, bide batez, Erakundearen Etika Batzorde honen 2016ko jarduera jasotzen duen memoria aurkeztu zen.

Aukera horretarako, gaiari buruzko adituak izan genituen: esate baterako, Juan José Álvarez, EHUko Nazioarteko Zuzenbide Pribatuko katedraduna eta Gobernantza Demokratikoaren Institutuko idazkaria; Rafael Jiménez, Administrazio Publikoen aholkularia eta sektore publikoaren esparruko hezitzailea; Javier Vázquez, abokatu eta Europako Batzordearen kontratazio publikoko aditu taldeko kidea 2015etik; eta Javier Serrano, Euskadiko Kontratu Inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoko aholkulari juridikoa.



Bigarren hizlari mahaia 2018ko urtarriaren 17ko jardunaldian.

Hau izan zen jardunaldiaren programa:

A zatia: funtzionarioak eta goi kargudunak

9:00 Erakundea irekitzea. **Imanol Lasa, Gobernantzako foru diputatua.**

9:15 Erakundearen Etika Batzordearen 2016ko jardueraren memoria. **Goizeder Manotas, Modernizazioaren, Zerbitzuen eta Informazioaren Gizarterako Sistemen zuzendari nagusia.**

9:30 Jokabide kodeak: oinarrizko faktoreak erakundearen zuzentasunerako eta gobernantza berrirako. **Juanjo Álvarez, Gobernantza Demokratikoaren Institutuko idazkaria.**

10:00 Gipuzkoako foru enplegu publikoaren etikaren eta kudeaketa onaren kodea: funtsezko alderdiak. **Rafael Jiménez, Administrazio Publikoen aholkularia.**

10:30 Galderak

10:45 Atsedenaldia

B zatia: enpresa eta erakunde lizitatzailerak

11:10 Erakundea irekitzea. **Imanol Lasa, Gobernantzako foru diputatua.**

11:30 Kontratazio publikoari aplikatu beharreko jokabide kodea eta zuzentasun instituzionaleko esparrua: funtsezko alderdiak. **Rafael Jiménez, Administrazio Publikoen aholkularia.**

12:00 Kontratazio publikoaren zuzentasuna. Legegintzako tresnak (Sektore Publikoko Kontratuen Lege berria) eta Gipuzkoako Aldundiaren jokabide kodearen eta zuzentasun esparruaren azterketa. **Javier Vázquez, Europako Batzordearen kontratazio publikoko aditua.**

12:30 Etika, Zuzenbidea eta kontratazio publikoa. **Javier Serrano, Euskadiko Kontratuen Inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoko aholkulari juridikoa.**

13.00 Galderak

13.15 Amaiera



2018ko azaroaren 21eko jardunaldiko parte hartzaileak

Bigarren jardunaldia azaroaren 21ean egin zen, bi tresna aurkezteko asmoz: batetik, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta haren sektore publikoaren laguntza eta dirulaguntzei aplikatu beharreko jokabide kodea eta zuzentasun instituzionaleko esparrua (Kontseiluaren 2018ko urriaren 2ko erabakia) eta, bestetik, Gobernu Onaren Foru Arauaren proiektua, foru gobernantza publikoaren esparruan. Aurrerantzean kontuan hartu beharko dira bi-biak, ezinbestean bete beharko direlako foru Aldundiaren eta harekin harremana duten erakundeen jardueraren eguneroko kudeaketan.

Horretarako, aditu jantziak bildu ziren jardunaldian, eta, bi Tresna horietan jorrotutako gaietara hurbilketa bat egin ondoren (berrikuntzaren kudeaketa, ebaluazioa eta kontu ematea, gardentasuna eta datuak zabaltzea, eta erakundearen zuzentasuna, besteak beste), foru arau berriaren eta DLJKren edukia aztertu zuten. Eta, jardunaldiaz baliatuta, Erakundearen Etika Batzordearen 2017ko jardueren memoria aurkeztu zen.

9:00 Erakundea irekitzea. Markel Olano, Gipuzkoako ahaldun nagusia.

9:45 Kudeaketa publikoa eta gobernantza: binomio bereizezina. Juanjo Álvarez, Gobernantza Demokratikoaren Institutuko idazkaria.

10:05 Gobernu ona eta zuzentasuna kudeaketa publikoan. Mitoa edo errealitatea? Concepción Campos, Zuzenbideko doktorea eta toki administrazioko idazkaria.

10:25 Administrazio publiko digital, jasangarri, ireki eta soziala lortzeko bidea. Ascen Moro, Ezagutza eta Kalitatea Kudeatzeko Unitatearen arduraduna Sant Feliu de Llobregateko Udalean.

10:45 Foru arauaren hastapenak. Imanol Lasa, Gobernantzako eta Gizartearekiko Komunikazioko foru diputatua.

10:55 Gobernu onaren foru araua foru gobernantza publikoaren esparruan. Haritz Ugarte, Modernizazioko zerbitziburua.

11:20 Kafea hartzeko atsedenaldia

11:45 Gobernu ona eta lankidetzazko gobernantza. Xabier Barandiaran, Gipuzkoako Ahaldun Nagusiaren Kabineteko burua.

12:05 Erakundearen zuzentasun sistemak: elementuak. Gipuzkoako Lurralde Historikoari aplikatuta. Rafael Jiménez, Administrazio Publikoen aholkularia.

12:25 Erakundearen Etika Batzordearen 2017ko memoriaren aurkezpena. Goizeder Manotas, Modernizazioaren, Zerbitzuen eta Informazioaren Gizarterako Sistemen zuzendari nagusia.

12:45 Amaiera

3. Zabalkundea

a) Biltzarretan parte hartzea

Aurreko urteetan ere gerta bezala, Erakundearen Zuzentasun Sistemaren aplikaziopean arituko diren pertsonak prestatu eta kontzientziatzeko lan egiteaz gain, hainbat erakundek eta administrazioak agertu dute sistema sakon ezagutzeko interesa; beraz, lurraldearen mugak gainditu ditu berau ezagutzera emateko lanak, eta zenbait foro eta biltzarretan aurkeztu da.

a. Berrikuntzaren eta Zerbitzu Publikoen Biltzar Nazionala (CNIS1018): finalisten saria

2018ko martxoaren 7an eta 8an Berrikuntzaren eta Zerbitzu Publikoen VIII. Biltzar Nazionala² antolatu zuen Madrilen Berrikuntza Klubak. Administrazioaren eta enpresa pribatuen arteko erreferentziatzeko elkargune gisa finkatu da, eta, aldibereko ekitaldien eta mahaien bitartez, administrazioek gaur egun dituzten erronkak jorratzen ahalegintzen da.

Biltzarren esparruan, gainera, CNIS sarien deialdia egiten da. Administrazio aitzindariak zenbait jardunbide egoki aurkez ditzakete ezarrita dauden sari kategorietan. Aukera horretan, Gardentasunerako eta Gobernu Onerako proiektu onenaren kategorian aurkeztu zen Erakundearen Zuzentasun Sistema, estatuko proiektu aitzindari gisa; izan ere, 4 jokabide kodez (goi kargudunak, enplegu publikoa, kontratazioa eta dirulaguntzak) eta bakoitzari dagokion zuzentasun esparruaz osatuta dagoenez, GFaren jarduera eremu osora hedatzen du kultura etikoa, eta nabarmentzekoa da, horrez gain, berme organoa gehienbat kanpoko kidez osatuta dagoela. Oraingoan, sariaren finalista izan zen Erakundearen Zuzentasun Sistema.

b. Administrazio Berriaren Foroa

Bestalde, 2018ko azaroaren 13an eta 14an, Alcobendasen, Administrazio Berriaren Foro Biltzarra³ antolatu zuten Alcobendaseko Udalak eta Berrikuntza Klubak, «Administrazio publikoetan pertsonak, taldeak, talentua eta kultura eraldatzea» goiburupean. Estatuko administrazioan pertsonak, taldeak, talentua eta erakundeko kultura eraldatzeari buruzko lehenengo topaketa izan zen estatu osoan, eta bertan bildu zituen administrazio publikoetako, sektoreko enpresa nagusietako eta gaiarekin lotutako aditu onenak.

Aukera horretan, *Enpleguaren etika eta ustelkeriaren aurkako borroka*⁴ mahaian parte hartzera gonbidatu zuten Gipuzkoako Foru Aldundia, eta Gipuzkoako Foru Enplegu Publikoaren Etikaren eta Kudeaketa Onaren Kodea aurkeztu ahal izan zen. Goizeder Manotasek, Gipuzkoako Foru Aldundiko Modernizazioaren, Zerbitzuen eta Informazioaren Gizarterako Sistemen zuzendari nagusiak eta Erakundearen Etika Batzordeko kideak, arlo horretako aditu handiak izan zituen alboan mahai inguruan eta eztabaidan: besteak beste, Manuel Villoria Mendieta, Politika eta Administrazio Zientziako katedraduna Rey Juan Carlos Unibertsitatean; Francisco Javier Amorós Dorda, Gardentasunaren eta Gobernu Onaren Kontseiluko zuzendariorde nagusia; eta Jordi Foz Dalmau, Gardentasunerako eta Gobernu Onerako idazkaria Generalitat de Catalunya-ko Kanpo Ekintza, Harreman Instituzional eta Gardentasun Sailean, eta Etika Publikoko Aholku Batzordeko presidenteordea.

2 <http://www.cnis.es/>

3 <http://foronuevaadministracion.es/>

4 <http://foronuevaadministracion.es/2018/11/20/la-etica-y-la-formacion-publica-a-debate-en-el-fna-de-alcobendas/>



Goizeder Manotasen aurkezpena Administrazio Berriaren Foroan

b) Albistek eta argitalpenak

Ekitaldi eta biltzarretan egindako aurkezpenez gain, zenbait hedabide eta argitalpenetan ere jaso da Gipuzkoako Foru Aldundiak, lurraldeko azpiegitura etikoa eraikitzen sakondu eta jarraitu nahian, egindako aurrerabidea.

Besteak beste, Diario Vasco⁵ egunkariak eta www.donostitik.com⁶ webguneak DLJKren onarpena dela eta urriaren 2an argitaratutako albistek aipa daitezke.



www.diariovasco.com



www.donostitik.com

⁵ <https://www.diariovasco.com/agencias/pais-vasco/201810/02/gipuzkoa-aprueba-codigo-etico-1267015.html>

⁶ <https://www.donostitik.com/aprobado-el-codigo-etico-para-las-entidades-que-reciben-subvenciones-de-la-diputacion/>

Halaber, Berrikuntza Klubak⁷ jardunbide egokitzat nabarmendu du Erakundearen Zuzentasun Sistema bere webgunean.



www.clubdeinnovacion.es

Bestalde, Analítica Pública webguneak ere Erakundearen Zuzentasun Sistema nabarmendu du. Webguneak administrazioen eraldaketa aztertzen du, eta, gardentasuneko jardunbide egokitzat ez ezik, jardunbide txarrak prebenitzeko formula aurreratutzat ere jo du sistema.



<http://blog.publilita.es/10-buenas-practicas-transparencia-las-entidades-locales-ii/>


Azkenik, Córdoba bako Unibertsitate Nazionalak (Argentina) argitaratutako *Gobierno abierto y ética* liburuan ere aipatzen da foru sektore publikoko Erakundearen Zuzentasun Sistema⁸.

⁷ <https://www.clubdeinnovacion.es/sistema-de-integridad-institucional-de-la-diputacion-foral-de-gipuzkoa-y-de-su-sector-publico/>

⁸ *Gobierno abierto y ética*, Jaime Rodríguez Alba eta Guillermo Lariguet. Arg. Universidad Nacional de Córdoba, Argentina. ISBN: 978-987-707-081-1. 428. or. eta 441.etik aurrera.

c) Webgunea

Erakundearen Zuzentasun Sistemaren webguneak⁹ zabalkunderako mekanismo gisa funtzionatzen jarraitzen du. Bertan, sistemaren esparruan arian-arian onartutako tresnak kontsulta daitezke, baita Etika Batzordeak jasotako kontsulten eta kexen ondorioz hartutako ebazpenak ere. Orotara, Erakundearen Zuzentasun Sistemaren eta hura osatzen duten jokabide kodeetan jasotako balioak, printzipioak eta jardunbideak interpretatzeko irizpideak biltzen dituen jurisprudentzia moduko bat osatzen dute ebazpen hauek.



Erakundearen Zuzentasun Sistemaren webgunea

d) «Gobernantza irekia eta lankidetzazkoa» lineako prestakuntza

Ukaezina da prestakuntza, edozein mailatan, lagungarria dela herritarrek unean uneko errealitate sozialari buruzko pertzepzio kritikoa izateko behar diren jakintzak lor ditzaten. Horrez gain, funtsezko tresnetako bat da eta benetako zuzentasun esparrua ezaugarritzen du.


Horren jakitun, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Urrutiko Unibertsitate Nazionalarekin batera, «Gobernantza irekia eta lankidetzazkoa» lineako prestakuntzaren¹⁰ lehenengo edizioa jarri du abian 2018an, herritarrei gaitasun, konpetentzia eta trebetasun egokiak emateko eta, hala, arlo horren inguruko ezagutzak barneratu ahal izan ditzaten, oinarritzkoa baita administrazio publikoa eta lankidetzatza publiko pribatua egoki garatzeko. Gainera, zenbait moduluren bitartez, prestakuntza horretan jorratutako eremuetan zer-nolako esperientzia izan duen azaltzen eta ikusarazten saiatu da foru Administrazioa; eta, ezin zuen bestela

⁹ <https://www.gipuzkoa.eus/eu/aldundia/zuzentasun-sistema>

¹⁰ <https://gobernantza.asmoz.org/eu/hasiera/>

izan, modulu osoa utzi du gobernuaren jardunean etika eta zuzentasuna zein garrantzitsuak diren azaldu, eta horiek garatzeko eta betetzeko jarraipen egokia egiteko zer kontrol mekanismo dauden argitzeko. Horren erakusgarri, foru sektore publikoaren Erakundearen Zuzentasun Sistemaren eta Erakundearen Etika Batzorde honen esperientziaren berri eman du, adibide ona delakoan.

Lehenengo edizioan 39 ikaslek parte hartu zuten guztira, eta erdiak baino gehiago Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioetako langileak ziren. Hala, agerian geratu da enplegatu publikoek arlo horretan sakontzeko gogoia dutela, eta gaiaren berri emateko eta hari buruz sentsibilizatzeko mekanismo egokia dela.



Lineako prestakuntza moduluari buruzko informazioa jasotzen duen webgunea


4. Jasotako gaiak

2018an bere jarduera gauzaten jarraitu du Etika Batzorde honek, etika publikoaren arloko gaikuntza sustatzeko eginkizunean, eta helarazi zaizkion kontsulta, zalantzak eta dilema etikoak ebazteko organo gisa.

Auziak ebazteko saioak bitarteko elektroniko bidez garatu dira, Erakundearen Etika Batzordea eratzeko Foru Dekretuak¹¹ batzordearen funtzionamenduari buruzko artikuluetan adierazten duten bezala, ebazpena arindu nahian. Hala ere, 2018an jasotako bi salaketak kontuzkoak eta konplexuak zirenez, aurrez aurreko zenbait saio egin ziren gaiak eztabai-datu eta ebatzi ahal izateko.

Bestalde, kasuan-kasuan zer jokabide kode aztertu den jakitea errazagoa izan dadin, eta hizkera bera ere lauagoa izan dadin, identifikatzeko sigla batzuk jaso dira webgunean.

- KP: Kargu publikodunen jokabide kodearen inguruko ebazpenak.
- EP: Enplegu publikoaren jokabide kodearen inguruko ebazpenak.
- KK: Kontratazioaren jokabide kodearen inguruko ebazpenak.
- DL: Dirulaguntza eta laguntzen jokabide kodearen inguruko ebazpenak.



Etika Batzordearen ebazpenak jasotzen dituen webgune¹² atalaren ikuspegia

11 Martxoaren leko 3/2016 Foru Dekretua, urtarrilaren 16ko 3/2018 Foru Dekretuak aldatua, 5. artikuluan: «1. Sei hilean behin bilduko da Batzordea gutxienez, Lehendakariak Idazkaritzaren bidez horretarako deialdia egin ondoren. Edonola ere, Batzordeak ezagutu beharreko gai edo kontsulta bat dagoenean, bilkura deialdia egingo da. 2. Batzordearen bilkurak aurrez aurrekoak edo bitarteko elektronikoaren bidezkoak izan daitezke. 3. Foru dekretu honetan aurreikusi gabeko gaietan, administrazio publikoetako kide anitzeko organoentzat ezarritako araudiari egokituko zaio Batzordearen funtzionamendua».

12 <https://www.gipuzkoa.eus/eu/aldundia/zuzentasun-sistema/etika-batzordea>

a) Laburpena

Zuzentasun Sisteman gehitu den azken jokabide kodea urte amaieran onartu zenez, 2018. urtean ez zen jaso hari buruzko kontsultarik; hala ere, kontratazio publikoari aplikatu beharreko kodearen inguruko lehenengo kontsulta jaso zen.

Nabarmendu behar da 2018. urtea izan dela, orain arte, Etika Batzorde honen jarduera handieneko urtea; izan ere, 2016an eta 2017an 6 kontsulta eta/edo salaketa jaso ziren urteko, eta 2018an, aldiz, bederatzi jaso ziren guztira: 7 kontsulta eta 2 salaketa. Beste behin ere, goi kargudunen inguruko kodeak piztu zituen zalantza gehien (5); ondoren, enplegu publikoari aplikatu beharreko kodeak (3) eta, jadanik aipatu den bezala, kontratazio publikoaren inguruko kodeari buruzko kontsulta bat ere jaso zen.

Gaiak	Kop.
KJK kontsultak	5
EPJK kontsultak	1
EPJK salaketak	2
KJK kontsultak	1
2018an ebatzitako gaiak, guztira	9

Ohikoa den bezala, zuzentasun sistema osatzen duten jokabide kodeetan ezarritakoa aztertu eta interpretatzeaz gain, zenbait arau eta dokumentu aztertu behar izan dira, ikuspuntu juridikoan ere ikuspegi orokorra izan eta ebazpen egokiena emateko:

- 7/2017 Foru Dekretua, urtarrilaren 31koa, Gobernantzako eta Gizartearekiko Komunikazioko Departamentuaren egitura organikoari eta funtzionalari buruzkoa.
- 53/1984 Legea, abenduaren 26koa, Herri Administrazioetako Langileen Bateriaezintasunei buruzkoa.
- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena.
- Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren testu bategina, urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua.
- OGP Euskadi 2018-2020 Ekintza plana.
- 2014/24 (EB) Zuzentaraua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2014ko otsailaren 26koa, kontratazio publikoari buruzkoa.
- 9/2017 Legea, urriaren 30ekoa, Sektore Publikoko Kontratuena.

Taula honetan laburbildu dira aztertutako gaiak eta manuak, eta emandako ebazpenak.

01/2018 (EP)	Funtzionarioek prestatutza ikastaroak emateagatik ordainketa jaso ahal izatearen inguruko kontsulta
EPJK	<ul style="list-style-type: none"> • Zintzotasuna eta eskuzabaltasuna [3.a), g) eta] • Inpartzialtasuna eta objektibotasuna [4.e)]
Aztertutako beste arauak	<ul style="list-style-type: none"> • 7/2017 Foru Dekretua³, 9.14. art., bateragarritasuna • 53/1984 Legea⁴, bateraezintasunak
Ebazpena	<ul style="list-style-type: none"> • Datuak falta dira, kontsulta zabaltzeko gonbita
02/2018 (KP)	Zuzendari batek hitzaldia emateagatik Gipuzkoako Foru Aldundiak konpentsazio e-konpikoa jasotzearen inguruko kontsulta
KJK	<ul style="list-style-type: none"> • Zintzotasuna eta eskuzabaltasuna [3.4.f), eta g)] • Eredugarritasuna [3.3.k)] • Eraginkortasuna [3.7.a)]
Aztertutako beste arauak	-
Ebazpena	<ul style="list-style-type: none"> • Ez du urratzen ordainsaririk jasotzen ez bada
03/2018 (KP)	Jardunaldi batean hizlari izateagatik kobratu edo dirua dohaintzan ematearen inguruko kontsulta
KJK	<ul style="list-style-type: none"> • Zintzotasuna eta eskuzabaltasuna [3.4.f)]
Aztertutako beste arauak	-
Ebazpena	<ul style="list-style-type: none"> • Ez du urratzen ordainsaririk jasotzen ez bada
04/2018 (KP)	Iraganean lan egindako enpresa bat zeharka kontratatzeari buruzko kontsulta
KJK	<ul style="list-style-type: none"> • Zintzotasuna eta eskuzabaltasuna [3.4.a), b), c), d) eta e)] • Objektibotasuna [3.5.b) eta o)]
Aztertutako beste arauak	<ul style="list-style-type: none"> • 40/2015 Legea⁵, 23.2.e artikulua, abstentzioa
Ebazpena	<ul style="list-style-type: none"> • Ez du urratzen

05/2018 (EP)	Funtzionario bati jarritako salaketa, itxuraz interes gatazka zegoelako bere eremu pribatuaren eta funtzio publikoko eginkizunaren artean
EPIK	<ul style="list-style-type: none"> • EPIK xedea eta izaera • Inpartzialtasuna eta objektibotasuna [4.b) eta d)] • Zintotasuna eta eskuzabaltasuna [3.b), c), eta e)] • Zuzentasuna [1.c)]
Aztertutako beste arauak	<ul style="list-style-type: none"> • Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren testu bategina⁶⁸, 53.2 eta 5. artikulua, inpartzialtasuna eta interes gatazka
Ebazpena	<ul style="list-style-type: none"> • Interes gatazka, abstentzio betebeharra
06/2018 (EP)	Funtzionario bati jarritako salaketa, itxuraz interes gatazka zuelako, eta baliabide publikoak xede pribatuarentako erabili dituelakoan
EPIK	<ul style="list-style-type: none"> • Inpartzialtasuna eta objektibotasuna [4.b) eta d)] • Zintotasuna eta eskuzabaltasuna [3.b), c), eta e)] • Zuzentasuna [1.c)] • Eraginkortasuna [6.a), c) eta e)] • Begirunea [7.d), e) eta f)]
Aztertutako beste arauak	<ul style="list-style-type: none"> • Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren testu bategina⁶⁵, 53.2 eta 5. artikulua, inpartzialtasuna eta interes gatazka; 54.1 artikulua, begirunea; 54.2 artikulua, eraginkortasuna; 54.5 artikulua, austeritate
Ebazpena	<ul style="list-style-type: none"> • Interes gatazka, abstentzio betebeharra
07/2018 (KP)	Master batean irakasle bezala parte hartzeagatik diru ordainketa dohaintzan ematearen inguruko kontsulta
KJK	<ul style="list-style-type: none"> • Zintotasuna eta eskuzabaltasuna [3.4.f)] • Objektibotasuna [3.5.a), b) eta c)]
Aztertutako beste arauak	<ul style="list-style-type: none"> • 7/2017 Foru Dekretua⁶², 9.14. art., bateragarritasuna • 53/1984 Legea⁶³, bateraezintasunak
Ebazpena	<ul style="list-style-type: none"> • Ez du urratzen ordainsaririk jasotzen ez bada • Ez da zehaztu behar dohaintzaren xedea

08/2018 (KP)	Ikastaro batean parte hartzeagatik oparia jaso izanaren inguruko kontsulta
KJK	<ul style="list-style-type: none"> • Zintzotasuna eta eskuzabaltasuna [3.4.f, g) eta i)]
Aztertutako beste arauak	-
Ebazpena	<ul style="list-style-type: none"> • Ez du urratzen
09/2018 (KK)	OGP Euskadi Foro Erregulararen parte hartzailea eta zerbitzu emalea izatearen ingurukoa
KJK	<ul style="list-style-type: none"> • Xedea [1.3, 1.4] • Aplikazio eremua [3] • Zintzotasuna, gardentasuna eta zuzentasuna [1.3] • Tratu berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioa [2.b)] • Interes gatazka [4.3] • Aurretiko kontsultak [5.1] • Informazioaren eskuragarritasuna [6.2]
Aztertutako beste arauak	<ul style="list-style-type: none"> • KJK Zintzotasuna eta eskuzabaltasuna [3.4.b), c), eta e)] • EPIK Zintzotasuna eta eskuzabaltasuna [3.a), b) eta c)] • OGP Euskadi Ekintza plana¹⁷ • 2014/24 (EB) Zuzentaraua¹⁸ • 9/2017 Legea¹⁹, 115. artikulua, aurretiko kontsultak
Ebazpena	<ul style="list-style-type: none"> • Urratzen du, abstentzio betebeharra • Gardentasunerako gomendioak

¹³ 7/2017 Foru Dekretua, urtarrilaren 31koa, Gobernantzako eta Gizartearekiko Komunikaziorikoa Departamentuaren egitura organikoari eta funtzionalari buruzkoa.

¹⁴ 53/1984 Legea, abenduaren 28koa, Herri Administrazioetako Langileen Bataerazintasunei buruzkoa.

¹⁵ 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena.

¹⁶ Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren testu bategina, urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua.

¹⁷ OGP Euskadi 2018-2020 Ekintza plana.

¹⁸ 2014/24 (EB) Zuzentaraua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2014ko otsailaren 26koa, kontratazio publikoari buruzkoa.

¹⁹ 9/2017 Legea, urriaren 30ekoa, Sektore Publikoko Kontratuena.

Aurrez adierazi bezala, goi kargudunek egin dituzte kontsulta gehienak, eta aplikatzen zaien jokabide kodearen ingurukoak ziren. Haietako hiruk (**02/2018, 03/2018 eta 07/2018**) ikastaroa irakasteagatik ordainsaria jasotzeari buruzkoak ziren; baina, aurreko urteetan ez bezala, auzitan zegoena ez zen ordainsaririk jaso al zitekeen, baizik eta zer helburutara bidera zitekeen. Datu horrek aditzera ematen du azken urteetan handitu egin dela kodean ezarritakoari eta Etika Batzorde honen interpretazioari buruzko ezagutza kodearen aplikazio eremuan dauden pertsonen artean; izan ere, guztiek hasieratik zekiten, edo sumatzen zuten, ezin zutela jaso konpentsazio ekonomikorik beren funtzio publikoak betetzeko hizlari gisa parte hartuz gero. Hiru kasuetan ebatzi zen halakoetan parte hartzeak **ez duela urratzen** Kontratazio Publikoaren Kodean ezarritakoa, **konpentsatzeko ordainsari ekonomikorik ez badago**. Auzi bakoitzak bere berezitasunak izan zituen: 2/2018an, konpentsazioa foru Aldundiak jasotzeko aukera planteatzen zen, eta Etika Batzordeak adierazi zuen gertakari horrek ez lukeela urratuko Kontratazio Publikoaren Kodean ezarritakoa. Beste bi auziei dagokienez (3/2018 eta 7/2018), jasotako kopurua dohaintzan emateko aukera planteatzen zen bietan ala bietan: lehenengoan, erabaki zen ez dagokiola Etika Batzorde honi foru Administrazioaz kanpoko erakundeen jardunari buruzko auziak ebaztea, Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodearen aplikazio eremutik kanpo geratzen baita; bigarrenean, aldiz, ebatzi zen dohaintzaren onuradun zer erakunde izango den zehazteak urratu egiten duela kodean ezarritakoa eta, beraz, dohaintzaren helburua zein den ez iradokitzea gomendatu zen.

08/2018 auzian ere ikastaro batean parte hartzea aztertu zen, baina, oraingoan, ordainsari ekonomikoa jaso ordez, opari txiki bat jasotzeari buruzko galdera bati erantzun nahi zitzaion. Auzi horretan, administrazio publikoak ematen zuenez oparia, eta balio eskasekoa zenez, kortesiazko opari hori onartzeak Kontratazio Publikoaren Kodean ezarritakoa **urratzen ez zuela** ebatzi zen.

Goi kargudunei aplikatu beharreko kodearen inguruan planteatutako azken kontsultan (**04/2018**), iraganean lan harremana izan ondoren fundazio baten zerbitzua kontratatzeak interes gatazkarik sortzen zuen argitu nahi zen. Kontratazioaren gorabeherak eta eska-tzailearen inguruabar pertsonalak aztertu ondoren, halere, interes gatazkarik ez zegoela ebatzi zuen Etika Batzordeak eta, beraz, kodean ezarritakoa urratzen ez zela.

Enplegu Publikoaren Kodeari dagokionez, 2018an kontsulta bat eta bi salaketa jaso ziren. **01/2018** auzian, ikastaroak ematearen eta horregatik dagokion ordainsaria jasotzearen inguruko kontuak jorratu ziren; beraz, badirudi behin eta berriroko gaia dela, bai goi kargudunentzat, bai enplegatu publikoentzat. Etika Batzordeak **ezin izan zuen ebatzi** auzi hori; izan ere, kontsultaren formulazioa orokorregia zen, eta ezinbestekoa zen kasuan-kasuan pertsona bakoitzaren xehetasunak jakitea: besteak beste, aurrez, Funtzio Publikoaren Zerbitzuari zegokion bateragarritasuna eskatu al zitzaion. Beraz, edo kontsulta zegozkion xehetasunak jasota zabalitzea, edo egoera horretan dagoen edonorentzat kontsulta pertsonalizatua egitea gomendatu zuen Etika Batzordeak.

05/2018 eta 06/2018 auziak enplegatu publiko berari buruzko bi salaketa izan ziren. Lehenengo aldiz ebatzi behar izan da salaketa bat (2016an 5/2016 salaketa jaso zen, baina ez zen onartu, Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodearen aplikazio eremutik kanpo baitzegoen, eta une hartan onetsitako kode bakarra zen hura) eta, hortaz, prozeduren izapideko zenbait alderdi sakondu eta osatu behar izan ditu Etika Batzordeak. Ondorioz atera dituen gomendioak 2018ko Ezarpen Gidan jasoko dira. Bi auziak ez zituen erakunde berak planteatu, baina bi-biak funtzionario publiko berari buruzkoak ziren, haren funtzio publikoen eta jarduera pribatuaren arteko interes gatazka egon zitekeelakoan. Inguruabarrak eta

dokumentuak xehe-xeheki erkatu eta aztertu ondoren, bi kasuetan egiaz interes gatazka dagoela ebatzi zuen Etika Batzordeak, eta beraz, prozesu batean erakunde salatzaileak interesdun badira, enplegatu publiko horrek **abstentzio betebeharra** duela erabaki zen.

Azkenik, lehenengo aldiz jaso zen kontratazio publikoari aplikatu beharreko kodeari buruzko kontsulta bat (**09/2018**), eta inguruabar berezi bat du; izan ere, euskal erakunde publiko batzuek osatutako lantalde batek egin zuen galdera (besteak beste, Gipuzkoako Foru Aldundia eta herritarrak hartzen ditu barnean). Argi eta garbi adierazi zen Etika Batzordearen ebazpena nahitaez aplikatu behar zitzaiela Gipuzkoako Foru Aldundiaren langileei eta jarduera eremuari, baina ez gainerako erakunde eta pertsoneri; hala ere, zilegi zuten ebazitakoa kontuan hartzea: hain zuzen ere, interes gatazka sortzen zuela lantalde horretan parte hartu eta, aldi berean, erakundeari zerbitzu emateak. Hortaz, **abstentzioa** gomendatu zen.

b) Ebatzitako gaiak

01/2018, funtzionarioek prestakuntza ikastaroak emateagatik ordainketa jaso ahal izatearen inguruko kontsulta (EP)

Gaia: 1/2018

EBAZPENA, (...) (...) DEPARTAMENTUKO (...)EKO ZUZENDARI NAGUSIAK EGINDAKO KONTSULTA HONI BURUZKOA: BATERAEZINTASUNEI BURUZKO ARAUAK ERRESPETATUZ, EA POSIBLE DEN NEURRIAK AZTERTZEA DEPARTAMENTUKO FUNTZIONARIOEK IKASTAROAK EMAN DITZATEN

I.- KONTSULTA

1.- Foru Sektore Publikoko Erakundearen Etika Batzordeari (EEB) 2018ko otsailaren 1ean bidalitako posta elektronikoan, interesdunak, Gipuzkoako Foru Aldundiko (...) Departamentuko (...)eko zuzendari nagusiak, EEBaren iritzia eskatu zuen departamentuko funtzionarioek beren esparruko gaiei lotutako ikastaroak emateko aukerari buruzko neurriak hartzearen inguruan, betiere bateraezintasunei buruzko arauak errespetatuta.

2.- Eskatzaileak posta elektronikoan adierazten du (...) Departamentuko funtzionarioek, kasu batzuetan, mintegiak eta hitzaldiak ematen dituztela dohainik (departamentuko prestakuntza plana, departamentua unibertsitateetara hurbiltzeko programa, departamentuak antolatutako hainbat hitzaldi -(...) proiektua adibidez-) eta, beste kasu batzuetan, mintegiak eta hitzaldiak ordainduak izaten direla (...).

3.- Aztertzen ari garen kontsultaren arrazoia da, interesdunaren iritziz, (...) Departamentuari komeni zaiola bere funtzionarioek mintegiak ematea, Gipuzkoako (...)eko (...) zabaltzen laguntzen dutelako eta, horrela, (...) hobeto ezagutuko dutelako (...) aplikazioa. Erantsi du ez dela bidezkoa lan hori dohainik egitea beti, hitzaldietan erabiltzen den informazioa eta haiek emateko modua lan ordutegitik kanpo prestatzen direlako.

Ondorioz, EEB honen esku hartzea eskatzen du, departamentuko funtzionarioek beren esparruko gaiekin lotutako ikastaroak eman ahal izateko neurriak aztertzeko, betiere bateraezintasunei buruzko arauak errespetatuta.

II.- APLIKATU BEHARREKO ARAUAK

1.- Diputatuen Kontseiluak Gipuzkoako Foru Aldundiko eta bere sektore publikoko Zuzentasun Sistema onartu zuen 2016ko martxoaren 1ean, etika publikoa eta eredugarritasuna bermatzeko eta ezaugarri bilakatzeko xedez.

Sistema horren markoan, 2017ko azaroaren 7ko Diputatuen Kontseiluaren erabakiz, Gipuzkoako foru enplegu publikoaren Kode Etikoa eta Kudeaketa Ona onartu zen (aurrerantzean Kode Etikoa), zeinak ezartzen baititu foru enplegatu batek bere zereginekin zerikusia duten jarduera profesional guztietan begiratu behar dituen balio etikoa eta jokabide arauak, kudeaketa onaren printzipioak eta jarduera profesionalaren arauak.

2.- Kode Etikoak zehazten du Erakunde Etikaren Batzordea izango dela (2016ko martxoaren 1eko 3/2016 Foru Dekretuz onartua) berme goreneko organoa eta aplikazioari buruzko gaiak erabakiko dituena.

Horretarako, urtarrilaren 16ko 3/2018 Foru Dekretuaren bitartez aldatu egin zen 3/2016 Foru Dekretua, martxoaren 1ekoa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko foru sektore publikoko Erakundearen Etika Batzordea eratzekoa, bere xedea zabaltzeko (eransteko, besteak beste, Gipuzkoako Foru Enpleguaren Etikaren eta Kudeaketa Onaren Kodea); foru sektore publikoko kide gisa sartzeko langileen ordezkaritza unitarioak aukeratutako pertsona bat, Kode Etikoarekin lotutako gaiak konpontzeko; eta 15 laneguneko epea ezartzeko jasotako kontsulta, kexa eta salaketak ebazteko.

3.- Foru dekretu horri jarraikiz, EEBari dagokio tramitatzea eta ebaztea jasotzen diren kexa eta salaketa guztiak, Erakundearen Zuzentasun Sistema garatzeko tresnetan ezarritako balio, printzipio eta jokabide arauak betetzeari dagokionez.

4.- Eskatzaileak bere kontsultan aipatzen dituen pertsoneri, Gipuzkoako Foru Aldundiaren enplegatu publikoak izanik, Kode Etikoa aplikatzen zaie, xedea ezartzen duen Kode Etikoaren 1.1 artikuluari jarraikiz.

III. ERAKUNDEAREN ETIKA BATZORDEAREN BALORAZIOA

1.- Kontsultan gai hau planteatzen da: (...) Departamentuko funtzionarioen jarduera profesionalaren bateragarritasuna, beren esparru funtzionalaren gaiekin lotutako ikastaroak emateko.

Gaia aztertzen hasi aurretik, EEB honek aurreratu nahi du egokiagoa izango litzatekeela kontsulta hori interesdun bakoitzak egitea, modu horretan gaia ebatzi ahal izango litzatekeelako bakoitzaren ezaugarrien arabera, pertsona bakoitzaren egoerari erantzun ezin dion ebazpen orokor bat emateko arriskurik gabe.

2.- EEB honek ez daki kontsulta egin duen pertsonak aipatzen dituen funtzionario publiko guztiek bateragarritasun eskaerarik aurkeztu duten Funtzio Publikoko Zerbitzuaren aurrean, edo bateraezintasunen erregimenetik salbuetsita dauden jarduerak diren. Funtzio Publikoko Zerbitzuaren ardura da langileen bateraezintasunen araubidea aplikatzea, bateragarritasun eskaerak tramitatzea, eta bateragarritasuna baimentzeko baldintzak kontrolatzea (7/2017 Foru Dekretua, urtarrilaren 31koa, Gobernantzako eta Gizartearekiko Komunikazioko Departamentuaren egitura organiko eta funtzionalari buruzkoa).

Batzorde honek ezin du irizpiderik finkatu zein prestakuntza ikastaro eman ditzaketen (...) Departamentuko funtzionarioek, konpentsazio ekonomikoa jasota, baldin eta, alde zurririk, ez bada aipatutako jarduera pribatuaren bateragarritasuna aitortu, edo ez bada zehaztu ikastaroak ematea bateraezintasunen erregimenetik salbuetsita dagoela.

Kode Etikoan jasotako arau etikoak kasu zehatzari aplikagarri zaion araudia betetzen bada bermatzen dira soilik, kasu honetan abenduaren 26ko 53/1984 Legea, Herri Administrazioetako langileen bateraezintasunei buruzkoa, betetzen bada. Ez dugu ahaztu behar Erakundearen Zuzentasun Sistemak etika plus bat eskatzen duela, alor bakoitzean indarrean dagoen legeriaren aldean.

Baina, aurrekoa finkatuta utzi ondoren, batzorde hau bat dator eskatzaileak esaten duenarekin, hau da, (...) Departamentuarentzat onuragarri dela funtzionarioek ikastaroak ematea, Foru (...)jeko (...) zabaltzen direlako eta, halaber, EEB honen ustez, neurri horrek, Administrazioa herritarrei hurbiltzeko aukera emateaz gain, aldeko eragina duelako herritarrei eskaintzen zaien zerbitzuan.

Ikastaroak emateari lotutako jokabide arauak Kode Etikoan jasota daude eta, jakina, berririk izan ez zitekeen bezala, eskakizun etikoa handiago da. Jokabide arauak, hain zuzen, zintzotasun eta eskuzabaltasunari buruzko g) eta h) letretan jasota daude, eta arau etiko hauek ezartzen dituzte, hurrenez hurren:

g) *Foru langile publikoek ez dute (...) **konpentsazio ekonomikorik onartuko hitzaldiak emateagatik (...) berariaz euren lanpostuko berezko funtzioak gauzatzeari lotu tako jarduerak direnean**, eta modu berean ez dute euren zintzotasuna zalantzan jar dezakeen onurarik onartuko, edo erabakiak hartzea baldintzatu dezakeen edo baldintzatu dezakeela ematen duen bere eskumeneko gaietan parte hartuko. Berme organoak, kontsulta edo kexen bidez, opari, konpentsazio edo onura horiek onartu daitezkeen kasuak ezarriko ditu. Salbuespen horiek Kode honetako Aplikazio Gidan xedatuko dira.*

h) *Edozelan ere, foru langile publikoek, erakundearen irudia babesteko asmoz, euren arduraren publikoaren eremu zehatzean kontratatutak izan diren edo objektiboki kontratatutak izan daitezkeen enpresa edo partikularren kongresuetan edo hitzaldietan parte hartzeko eskaintzak ukatuko dituzte. Oparia edo gonbidapena emango balitz, berehala foru administrazioaren edo sektore publikoko erakundearen esku jarri beharko litzateke, dagokiona egiteko.*

Kasu zehatz honetan, kontuan hartu behar da ikastaroetan parte hartzeko gonbidapena zuzenean lotuta dagoela funtzionarioen profil profesionalarekin; izan ere, ikastaroak emateak Gipuzkoako Foru Aldundiarekin identifikatzen da, eta horrek eragina du, zalantzarik gabe, Foru Administrazioaren irudian.

Gainera, kasu hau interpretatu behar da aintzat hartuta Kode Etikoan jasotako balioei lotuta dauden gainerako jokabide arauak. Horrela, besteak beste, Zintzotasun eta Eskuzabaltasunari buruzko jokabide arauak, a) letran, dio foru kargu publikoek interes publikoko helburua betetzeko eta Gipuzkoako herritarren interes orokorren alde soilik egingo dutela lan; eta Langile publikoak ezin izango du bere langile publikoko izaera erabili edozein motatako abantaila izateko edo nahi izateko, txikia bada ere, erakunde publikoetan zein pribatuetan (Inpartzialtasun eta Objektibotasunari buruzko balioaren e) letran jasotako jokabide araua).

Izan ere, batzorde honi dagokio ezartzea zein kasutan onar daitezkeen opari, konpentsazio edo onurak eta, horretarako, derrigorrez ezagutu behar dugu kasu zehatza; beraz, ezin dugu erantzunik eman planteatutako kasuari, generikoezia delako, eta, gainera, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Erakundearen Zuzentasun Sistemari egokitutako erantzun etiko bat emateko elementu faktikoak falta dira.

Ondorioz, kontuan hartuta gertatutako ekintzak eta gorabeherak, jakinarazi behar zaio interesdunari ezinezkoa dela, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Erakundearen Zuzentasun Sistemaren esparruan, erantzun etiko oso bat ematea, ez ditugulako behar bezala eza-gutzen kasuak eta gorabeherak. Horregatik, interesdunari eskatzen diogu datu zehatzak eman ditzala, batzorde honek kontsultari buruzko pronuntziamentu zehatzagoa eman ahal izateko.

Horiek horrela, Erakundearen Etika Batzordeak, aho batez,

EBAZPENA

Lehenengo.- Eskatzea interesdunari kontsulta zabaldu dezala, ematen diren ikastaro eta mintegiei buruzko dokumentazio eta informazio zehatza eta gaiari buruz egon daitezkeen bateragarritasun eskaerak aurkeztuta -zerikusia duten pertsonen aldez aurreko baime-narekin-, planteatutako gai etikoa ebazteko ezagutu behar ditugun egitate zehatzen berri izateko, betiere Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta haren Sektore Publikoaren Erakundearen Zuzentasun Sistemaren esparruan.

Bigarrena.- Hala ere, interesdunek, hala nahi izanez gero, kontsulta egin dezakete beren izenean, izatezko kasu zehatza azalduta eta egoera horrek sortzen dien dilema etikoa zehaztuta, kontuan hartuta, betiere, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta haren Sektore Publikoaren Erakundearen Zuzentasun Sistema.

02/2018, Zuzendari batek hitzaldia emateagatik Gipuzkoako Foru Aldundiak konpentsazio ekonomikoa jasotzearen inguruko kontsulta (KP)

02/2018 Gaia

(...) JAUNAK, (...)KO ZUZENDARI NAGUSIAK EGINDAKO KONTSULTARI BURUZKO EBAZPENA, HAIN ZUZEN ERE KONGRESU BATEAN HIZLARI GISA PARTE HARTZEAGATIK ORDAINKETA EKONOMIKOA GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAK BERAK ESKURATZEARI BURUZKOA

I.- KONTSULTA

1.- 2018ko otsailaren 21ean, (...) jaunak, (...)ko zuzendari nagusiak ahozko kontsulta²⁰ bat egin zion Erakundearen Etika Batzordeari, hain zuzen ere kongresu batean hizlari gisa parte hartzeagatik Gipuzkoako Foru Aldundiak ordainketa ekonomikoa jasotzeko aukeraren inguruan.

²⁰ 3/2016 Foru Dekretuak, martxoaren 1ekoak, Erakundearen Etika Batzordea eratzeari buruzkoak, 6.4 artikuluan xedatutakoaren arabera, idatziz jaso zen kontsulta honi, izapidetu zedin:⁴ "Kontsultaren bat ahoz egiten bada, bere edukia idatziz jaso beharko da, eskatutako konfidentzialtasunari eustea eragotzi gabe"

2.- Interesdunak bere azalpenean adierazi zuen Bartzelonako Diputazioak gonbita luza-tu diola I Congreso Internacional de (...) izeneko kongresuan hizlari gisa parte hartzeko, 1980an (...) inguruan egindako kudeaketa egokiari esker, Gipuzkoa aitzindarizat jotzen baita esparru horretan. Adierazi du 2018ko martxoaren 5ean, zehazki goizean, hizlari gisa parte hartuko duela kongresu horretan, martxoaren 4ko gauean bidaiatuko duen arren. Kongresuaren antolakuntzak ordainduko ditu hegaldiaren, hotelaren eta martxoaren 5eko bazkariaren gastuak. Kongresuan parte hartuko duten hizlarien kalitatea ikusita, astelehen (martxoaren 5ean) arratsaldean entzule gisa joateko asmoa duela adierazi du, eta beraz, hurrengo egunean itzuliko dela.

3.- Hizlari gisa parte hartzea onartzen zuela jakinarazi ondoren, antolakuntzak esan zion hizlari gisa parte hartzeagatik 120 euroko ordainketa ekonomikoa egingo zaiola.

(...) jaunak adierazi du, kasu honetan aplikagarria den Jokabide Kodean xedatutakoaren arabera (Gipuzkoako Foru Aldundiko eta haren sektore publikoko kargu publikoen zein langile baliokideen Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodeari erreferentzia eginez), ez dauka zalantzarik berak ezin duela ordainketa hori onartu; hala ere, Erakundearen Etika Batzordeari honako kontsulta hau egiten dio: ea posible izango litzatekeen Gipuzkoako Foru Aldundiak berak ordainketa hori jasotzea. Diru hori Kongresuak ordaintzen ez di-tuen gastu osagarriak ordaintzeko erabil daiteke, esaterako, aireportutik hotelera joateko garraioa edota astelehen gaueko afaria ordaintzeko, era horretan, Gipuzkoako Foru Aldun-diak gastu hori bere diru kutxatik ordaindu behar ez izateko.

II.- ARAU APLIKAGARRIAK

1.- Diputatuen Kontseiluak 2016ko martxoaren 1ean hartutako erabakiaren bidez, Gipuz-koako Foru Aldundiko eta haren Sektore Publikoko Erakundearen Zuzentasun Sistema onartu zuen. Horren bidez, etika publikoa eta eredugarritasuna ezarri nahi dira nortasun ezaugarri gisa.

Sistema horren barne dago Gipuzkoako Foru Aldundiko eta haren sektore publikoko kargu publikoen zein langile baliokideen Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodea. Horrez gain, foru kargu publikoak eta kargu baliokideak dituzten pertsonek beren funtzioak eta jarduera publikoak egitean bete eta sustatu beharreko jokabide eta jardunbide arauak identifika-tzen ditu sistema horrek, baita esparru pribatuan bete eta sustatu beharrekoak ere, baldin eta beren jokabide pribatuak eragina badu jarduten duten erakundearen irudian. Horren guztiaren xedea da osotasuna eta eredugarritasuna sustatzea, betiere erakundearen irudia babestuz.

2.- Gipuzkoako Foru Aldundiko eta haren sektore publikoko kargu publikoen zein lan-gile baliokideen Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodea zortzi baloreen inguruan ezarri da –ordezkaritza, zuzentasuna, eredugarritasuna, zintzotasuna eta eskuzabaltasuna, objektibotasuna, profesionaltasuna, eraginkortasuna zein bizikidetzeta eta errespetua– eta zortzi printzipio nagusi ditu: Lidergo partekatu eta eraldatzailea, gardentasuna, datuen eskuragarritasuna, kudeaketa eta berrikuntza eredu berria, euskararen sustapena eta era-bilera, kohesio ekonomiko-soziala eta lurralde oreka, harreman kapitallean oinarritutako gobernu eta herritarren entzute aktiboa, eta kontuak ematea.

Balore eta printzipio esparru horretan, jarrera eta jokabide katalogo zabal bat zehazten du Kode horrek, hain zuzen ere Erakundearen Etika Batzorde honek jarduteko erreferen-tziako parametro gisa, era horretan, borondatez Kodera atxikitako kargu publikoek edo

Kodeko xedapenak behar bezala betetzeko zinezko interesa duten hirugarren pertsonak helarazitako kontsultak, zalantzak eta dilema etikoak erantzuteko.

3.- Erakundearen Zuzentasun Sistemak aurreikusten du Erakundearen Etika Batzordea osatzea organo independente gisa, hain zuzen ere Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodea arautzen duten balore, printzipio eta jardunbideak bultzatu, sustatu, babestu eta betetzen direla bermatzeko, baita erakundearen irudia kaltetu dezakeen edozein ez-betetze edo jardunbide desegokiri aurrea hartzeko ere.

Berme organoaren funtzioak kargu publikoetan eta kargu baliokideetan islatuko dira, besteak beste.

4.- 3/2016 Foru Dekretuak, martxoaren 1ekoak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko foru sektore publikoko Erakundearen Etika Batzordea eratzeakoak (Urtarrilaren 16ko 3/2018 Foru Dekretuaren bidez aldatu zena) 3.b) artikuluan xedatzen du Erakundearen Etika Batzordearen eginkizuna dela ebazpen, txosten eta oharren bidez, kargu publikoek egindako kontsultak eta azaldutako zalantza zein dilema etikoak ebaztea.

5.- Eskatzaileari Gipuzkoako Foru Aldundiko eta haren sektore publikoko kargu publikoen zein langile baliokideen Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodea aplikatzen zaio, horren 1.3. arau orokorreko 1. artikuluko b) hizkian xedatutakoaren arabera.

III. ERAKUNDEAREN ETIKA BATZORDEAREN BALIOESPENA

1.- Interesdunak egindako kontsultan aipatzen den jarduera aldi behingoa da, hain zuzen ere (...)ko zuzendari nagusi gisa betetzen duen kargu publikoari zuzenean lotutakoa. Izan ere, Kongresuaren izenak berak adierazten duen moduan, hiru egunetan zehar, (...) inguruan hitz egingo dute hizlari gonbidatu gisa parte hartuko duten pertsonak. Hain zuzen ere esparru funtzional horren ardua dagokio kontsulta egin duen zuzendaritzako buruak.

Ildo horretan, beste administrazio bat, kasu honetan, Bartzelonako Diputazioa, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin harremanetan jarri da interesdunaren bidez, hain zuzen ere Gipuzkoako Foru Aldundiak 1980ko hamarkadan (...) egindako lanaren esperientzia ezagutzera emateko, azken hori esparru horretako aitzindaria dela jotzen baitute.

2.- Ildo horretan, interesdunak berak egindako kontsultan adierazitako moduan, zintotasunaren eta eskuzabaltasunaren baloreei lotutako jokabide arauak Gipuzkoako Foru Aldundiko eta haren sektore publikoko kargu publikoen zein langile baliokideen Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodeko 3.4.f) atalean xedatzen dira:

*f) Foru kargu publikoek ez dute inolako opari, gonbidapen, bidaia, otordu **edo ordainketa ekonomikorik onartuko bere funtzioak betetzean hitzaldiak emateagatik edo karguari lotutako jarduerak egiteagatik**, baldin eta horiek bere zintotasuna zailantzan jartzen badute, edota parte hartzeko prozesua baldintzatzen dutela pentsa badaiteke. Kontsulta edo kexen bidez, berme organoak kasuan kasu onargarriak eta onartezinak diren opari, konpentsazio eta onuren zerrenda ezarriko du. Salbuespen horiek Kode honetako Aplikazio Gidan xedatuko dira.*

Kasu honetan, ez dago zalantzarik interesdunaren partaidetza eta horri dagokion ordainketa ekonomikoa (...) zuzendari nagusi izateagatik sortzen direla, eta beraz, arestian

aipatutako kasua izango litzatekeenez, ez da bidezkoa interesdunak konpentsazio hori jasotzea.

3.- Hala ere, kontsultak ez dio gai horri erreferentzia egiten; ez du salbuespenik egiteko aukerarik aztertzea eskatzen ere. Aitzitik, interesdunaren proposamena urrunago doa: ordainketa ekonomiko hori Gipuzkoako Foru Aldundiak jasotzeko aukera proposatzen du. Gainera, interesdunaren ustez, aukera hori bidezkoa izango litzateke, kongresuaren antolakuntzak ez baititu bere garraio eta partaidetza gastu guztiak ordaintzen. Beraz, Gipuzkoako Foru Aldundiko eta haren sektore publikoko kargu publikoen zein langile baliokideen Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodeko 3.3.k) atalean xedatutakoa kontuan hartuz “(...) *Kargua dela eta egindako edozein gastu alde aurretik ordainduko du foru kargu publikoak, eta aurrerago, funtzioak betetzen dituen erakundeak, gastua ikuskatu ondoren, hori ordainduko dio foru kargu publikoari (...)*”. Ordainketa ekonomikoaren zenbatekoa horretarako erabil daiteke, edo bestela foru administrazioak egokitzat jotzen duen beste edozein gastu ordaintzeko.

Erakunde osotasuneko zenbait balore aipatu behar dira hemen, ez kontsultak egiten duen planteamenduan horiek urratzen direlako, baizik eta aitzitik, proposatutakoa onartzeko aukera ematen dutelako.

Alde batetik, Gipuzkoako Foru Aldundiko eta haren sektore publikoko kargu publikoen zein langile baliokideen Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodeko 3.4.g) atalak, zintzotasunari eta eskuzabaltasunari buruzkoak, hau aipatzen du:

g) *Edonola ere, Foru Aldundiaren irudia babesteko, kontratatu diren edo ardura publikoen berariazko esparruan objektiboki kontratu daitezkeen enpresa edo partikularrek egindako opari, gonbidapen edo hitzaldi eskaintzei uko egingo diete foru karguek. **Opari edo gonbidapena entregatzen bada, hori foru administrazioaren edo sektore publikoko entitatearen esku utziko da berehala, era horretan, dagokion tratamendua emateko.***

Egia da kasu hau ez datorrela erabat bat Gipuzkoako Foru Aldundiko eta haren sektore publikoko kargu publikoen zein langile baliokideen Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodean aipatutakoarekin. Izan ere, kasu honetan, beste administrazio publiko bat da gonbidapena egiten duena, ez enpresa bat edo partikular bat, eta ez dio interesdunari opari bat ematen, baizik eta egindako lanagatiko ordainketa ekonomikoa egiten dio (kasu honetan, hitzaldi bat emateagatik). Hala ere, analogiaz, ondorioztatu daiteke interesdunak ordainketa hori jaso eta geroago foru administrazioaren esku jar dezakeela, hala, Aldundiak, aurrez ordaindutako gastuen zenbatekora iritsi arte dagokion ordainketa egin dezan, edo bestela, diru hori egokitzat jotzen duen moduan erabil dezan.

Gainera, aipagarria da 3.7.a) arauan ere hau aipatzen dela: “**foru kargu publikoek eragimenez kudeatuko dituzte baliabide publikoak, horiek inola ere xahutu gabe eta eragimenez horiek optimizatuz (...)**”. Berriro ere, kasu hau ez dator erabat bat artikulu horretan xedatutakoarekin. Izan ere, ez dira Gipuzkoako Foru Aldundiaren baliabide propioak, baizik eta zerbitzari publikoek egindako lan bikainari esker lortutako baliabideak. Orain, interesdunari gonbita luzatu zaio kongresu batean parte hartzeko, bertan erakundearen esperientzia azaltzeko. Era horretan, egindako lana aitortzen da, eta beraz, ikuspuntu etikotik, bidezkoa da diruzko ordainketa hori diru kutxa publikoetara itzuli eta modu eraginkorrean optimizatzeaz gain, Gipuzkoako herritarren premia edo interes publikoak asetzeko eskuragarri jartzea.

Hori guztia aintzat hartuta, Erakundearen Etika Batzordeak aho batez ematen du hurrengo

EBAZPENA

Lehenengoa.- Interesdunak kongresuan parte hartzeak ez ditu urratzen Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodeko xedapenak. Hala ere, Kode horretako 3.4.f) artikuluan xedatutakoaren arabera, ezingo du bere onurarako ordainketa ekonomikorik jaso.

Bigarrena.- Gipuzkoako Foru Administrazioiko Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodearen zintzotasun eta eskuzabaltasun eta eraginkortasun baloreei lotutako 3.4.g) eta 3.7.a) jokatutako arauak dagokienez, adostutako ordainketa Gipuzkoako Foru Aldundiaren esku jartzeak ez du urratzen Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodea.

Hirugarrena.- Interesdunari eskatzen diogu, ordainketa onartuz gero, Ogasun eta Finantza Departamentuari kontsulta egin diezaion, hitzaldiagatik ordainketa Gipuzkoako Foru Aldundiaren diru kutxa publikoetara iritsarazteko modu egokiena zein den jakiteko.

03/2018, jardunaldi batean hizlari izateagatik kobratu edo dirua dohaintzan ematearen inguruko kontsulta (KP)

3/2018 Gaia

(...) JAUNAK, (...)KO ZUZENDARI NAGUSIAK EGINDAKO KONTSULTARI BURUZKO EBAZPENA, HAIN ZUZEN ERE HITZALDI BATENGATIK KOBATZEAREN EDO DIRU HORI DOHAINZAN EMATEKO AUKERAREN INGURUKOA

I.- KONTSULTA

1.- 2018ko otsailaren 21ean, (...) jaunak, (...)ko zuzendari nagusiak ahozko kontsulta bat²¹ egin zion Erakundearen Etika Batzordeari. Bertan galdetu zuen ea posible den hitzaldi bat emateagatik kobratzea, eta hori ezinezkoa balitz, diru hori ongintzako erakunde bati dohaintzan emateko eskaera egitea posible den.

2.- Interesdunak bere azalpenean adierazi zuen Deustuko Unibertsitateak gonbita luzatu diola “Cómo crear una buena (...)” (Nola sortu (...)) izeneko hitzaldia emateko, Gipuzkoako Foru Aldundiko esparru horretako zuzendari gisa, hain zuzen ere unibertsitate horrek bigarren urtez jarraian antolatzen dituen (...) Solasaldi Estrategikoen esparruan. Hitzaldi horren truke 360 euro jasoko dituela aurreikusi da.

(...) jaunak adierazi du ez duela uste ordainketa hori jaso dezakeenik, hala ere, ildo horretan Erakundearen Etika Batzordeak baieztapena ematea eskatzen du, eta ordainketa hori jaso badezake, jakin nahiko luke unibertsitate horri eska diezaiokeen diru hori ongizateko erakunde bati dohaintza ematea.

²¹ 3/2016 Foru Dekretuak, martxoaren 1ekoak, Erakundearen Etika Batzordea eratzeari buruzkoak, 6.4 artikuluan xedatutakoaren arabera, idatziz jaso zen kontsulta honi, izapidetu zedin:”4. Kontsultaren bat ahoz egiten bada, bere edukia idatziz jaso beharko da, eskatutako konfidentzialtasunari eustea eragotzi gabe”

II.- ARAU APLIKAGARRIAK

1.- Diputatuen Kontseiluak 2016ko martxoaren 1ean hartutako erabakiaren bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiko eta haren Sektore Publikoko Erakunde Zuzentasun sistema onartu zuen. Horren bidez, etika publikoa eta ereduarratasuna ezarri nahi dira nortasun ezaugarri gisa.

Sistema horren barne dago Gipuzkoako Foru Aldundiko eta haren sektore publikoko kargu publikoen zein langile baliokideen Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodea. Horrez gain, foru kargu publikoak eta kargu baliokideak dituzten pertsonak beren funtzioak eta jarduera publikoak egitean bete eta sustatu beharreko jokabide eta jardunbide arauak identifikatzen ditu sistema horrek, baita esparru pribatua bete eta sustatu beharrekoak ere, baldin eta beren jokabide pribatuak eragina badu jarduten duten erakundearen irudian. Horren guztiaren xedea da osotasuna eta ereduarratasuna sustatzea, betiere erakundearen irudia babestuz.

2.- Gipuzkoako Foru Aldundiko eta haren sektore publikoko kargu publikoen zein langile baliokideen Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodea zortzi baloreen inguruan ezarri da –ordezkaritza, zuzentasuna, ereduarratasuna, zintzotasuna eta eskuzabaltasuna, objektibotasuna, profesionaltasuna, eraginkortasuna zein bizikidetzeta eta errespetua– eta zortzi printzipio nagusi ditu: Lidergo partekatu eta eraldatzaila, gardentasuna, datuen eskuragarritasuna, kudeaketa eta berrikuntza eredu berria, euskararen sustapena eta erabilera, kohesio ekonomiko-soziala eta lurralde oreka, harreman kapitalean oinarritutako gobernu eta herritarren entzute aktiboa, eta kontuak ematea.

Balore eta printzipio esparru horretan, jarrera eta jokabide katalogo zabal bat zehazten du Kode horrek, hain zuzen ere Erakundearen Etika Batzorde honek jarduteko erreferentziako parametro gisa, era horretan, borondatez Koderatxikitako kargu publikoek edo Kodeko xedapenak behar bezala betetzeko zinezko interesa duten hirugarren pertsonak helarazitako kontsultak, zalantzak eta dilema etikoak erantzuteko.

3.- Erakundearen Zuzentasun Sistemak aurreikusten du Erakundearen Etika Batzordea osatzea organo independente gisa, hain zuzen ere Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodea arautzen duten balore, printzipio eta jardunbideak bultzatu, sustatu, babestu eta betetzen direla bermatzeko, baita erakundearen irudia kaltetu dezakeen edozein ez-betetze edo jardunbide desegokiri aurrea hartzeko ere.

Berme organoaren funtzioak kargu publikoetan eta kargu baliokideetan islatuko dira, besteak beste.

4.- 3/2016 Foru Dekretuak, martxoaren 1ekoak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko foru sektore publikoko Erakundearen Etika Batzordea eratzeak (Urtarrilaren 16ko 3/2018 Foru Dekretuaren bidez aldatu zena) 3.b) artikuluan xedatzen du Erakundearen Etika Batzordearen eginkizuna dela eabazpen, txosten eta oharren bidez, kargu publikoek egindako kontsultak eta azaldutako zalantza zein dilema etikoak eabaztea.

5.- Eskatzaileari Gipuzkoako Foru Aldundiko eta haren sektore publikoko kargu publikoen zein langile baliokideen Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodea aplikatzen zaio, horren 1.3. arau orokorreko 1. artikuluko b) hizkian xedatutakoaren arabera.

III. ERAKUNDEAREN ETIKA BATZORDEAREN BALIOESPENA

1.- Interesdunak egindako kontsultan aldian behineko jarduera bat aipatzen da, hain zuzen ere (...)zuzendari nagusi gisa betetzen duen kargu publikoarekin zuzeneko zerikusia duena. Izenburuak berak aipatzen duen moduan, (...) egoki bat sortzeko gakoak ematea da hitzaldiaren xedea.

2.- Ildo horretan, Erakundearen Etika Batzordeak aurreko ebazpenetan (02/16 eta 02/18) aztertu duen moduan, zintzotasunaren eta eskuzabaltasunaren baloreei lotutako jokabide arauak Gipuzkoako Foru Aldundiko eta haren sektore publikoko kargu publikoen zein langile baliokideen Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodeko 3.4.f) artikuluan ageri dira xedatuta:

*f) Foru kargu publikoek ez dute inolako opari, gonbidapen, bidaia, otordu edo **ordainketa ekonomikorik onartuko beren funtzioak betetzean hitzaldiak emateagatik** edo karguari lotutako jarduerak egiteagatik, baldin eta horiek bere zintzotasuna zailantzan jartzen badute, edota parte hartzeko prozesua baldintzatzen dutela pentsa badaiteke. Kontsulta edo kexen bidez, berme organoak kasuan kasu onargarriak eta onartezinak diren opari, konpentsazio eta onuren zerrenda ezarriko du. Salbuespen horiek Kode honetako Aplikazio Gidan xedatuko dira.*

Kasu honetan, ez dago zalantzarik interesdunaren partaidetza eta horri dagokion ordainketa ekonomikoa (...)zuzendari nagusi izateagatik sortzen direla, eta beraz, arestian aipatutako kasua izango litzatekeenez, ez da bidezkoa interesdunak konpentsazio hori jasotzea.

3.- Aipatutako ordainketa jaso ezin badu, unibertsitateari diru hori ongintzako erakunde bati dohaintzan ematea eskatzeko aukeraren inguruan, adierazi behar dugu ez dagokiola Erakundearen Etika Batzorde honi foru administrazioarekin zerikusirik ez duten entitateen jarduketari buruzko auziak ebaztea, Gipuzkoako Foru Aldundiko eta haren sektore publikoko kargu publikoen zein langile baliokideen Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodearen aplikazio esparrutik kanpo baitago.

Hori guztia aintzat hartuta, Erakundearen Etika Batzordeak aho batez ematen du hurrengo

EBAZPENA

Bakarra.- Interesdunak kongresuan parte hartzeak ez ditu urratzen Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodeko xedapenak. Hala ere, Kode horretako 3.4.f) artikuluan xedatutakoaren arabera, ezingo du bere onurarako ordainketa ekonomikorik jaso.

04/2018 Gaia

(...), (...) DEPARTAMENTUKO (...) ZUZENDARI NAGUSIAK EGINDAKO KONTSULTARI BURUZKO EBAZPENEA, HAIN ZUZEN ERE (...) BURUZKO GRADUONDOAREN PROIEKTUA ZUZENTZEN JARRAITZEKO AUKERAREN INGURUKOA

I.- KONTSULTA

1.- 2018ko otsailaren 22an, (...), (...) Departamentuko (...) zuzendari nagusiak kontsulta egin dio Erakundearen Etika Batzordeari, hain zuzen ere (...) buruzko graduondoko proiektua zuzentzen jarraitu ahal izateko aukeraren inguruan.

2.- Interesdunak bere azalpenean adierazi du 2017. urtean, bere zuzendaritzapean, (...) graduondo berri bat sortzeko eta ezartzeko lanean aritu direla, Gipuzkoako Foru Aldundiaren egungo gobernu taldeak bultzatutako ideia.

Graduondoaren helburua da (...).

2018. urtean, (...) enpresari esleitu dio graduondo horren diseinu eta zuzendaritza zientifikoa egitea. Enpresa horren zerbitzuen artean dago titulu hori igortzeko unibertsitate egokiena proposatzea. Azkenik, enpresa esleipendunak (...) aurkeztutako proiektua honako hau izan zen: (...) buruzko graduondoa, urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionalak (aurrerantzean UNED) eskaintzea. UNED honako entitate laguntzaileak aurreikusi ditu graduondo honetarako: (...), hain zuzen ere graduondoaren *on line* plataforma kudeatzeko.

Interesdunak (...) lan egin zuen (...)etik (...) arte, eta zehazki iraganeko lan harreman horrek sortzen dizkio zalantza etikoak.

Horri dagokionez, interesdunak adierazi du (...) utzi zuela (...) horretan lan egiteari, eta 2015ean hartu zuela kargua; halaber, adierazi du bera buru den zuzendaritzak (...) enpresaren aldeko kontratua esleitu duela, eta azken entitate horrekin bakarrik mantentzen duela harremana. Horrez gain, adierazi du, graduondoa martxan jartzen bada, UNED izango dela (...) bere plataforma birtualen mantentzea kontratatu beharko duena (gainera, nahi izanez gero, UNEDek beste enpresa edo entitate laguntzaile bat hauta dezake azkenean).

II.- ARAU APLIKAGARRIAK

1.- Diputatuen Kontseiluak 2016ko martxoaren 1ean hartutako erabakiaren bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiko eta haren Sektore Publikoko Erakunde Zuzentasun sistema onartu zuen. Horren bidez, etika publikoa eta eredugarritasuna ezarri nahi dira nortasun ezaugarri gisa.

Sistema horren barne dago Gipuzkoako Foru Aldundiko eta haren sektore publikoko kargu publikoen zein langile baliokideen Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodea. Horrez gain, foru kargu publikoak eta kargu baliokideak dituzten pertsonen beren funtzioak eta jarduerak publikoak egitean bete eta sustatu beharreko jokabide eta jardunbide arauak identifikatzen ditu sistema horrek, baita esparru pribatuan bete eta sustatu beharrekoak ere, baldin eta beren jokabide pribatuak eragina badu jarduten duten erakundearen irudian. Horren

guztiaren xedea da osotasuna eta eredugarritasuna sustatzea, betiere erakundearen irudia babestuz.

2.- Gipuzkoako Foru Aldundiko eta haren sektore publikoko kargu publikoen zein langile baliokideen Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodea zortzi baloreen inguruan ezarri da –ordezkaritza, zuzentasuna, eredugarritasuna, zintzotasuna eta eskuzabaltasuna, objektibotasuna, profesionaltasuna, eraginkortasuna zein bizikidetzatza eta errespetua– eta zortzi printzipio nagusi ditu: Lidergo partekatu eta eraldatzailea, gardentasuna, datuen eskuragarritasuna, kudeaketa eta berrikuntza eredu berria, euskararen sustapena eta erabilera, kohesio ekonomiko-soziala eta lurralde oreka, harreman kapitalean oinarritutako gobernu eta herritarren entzute aktiboa, eta kontuak ematea.

Balore eta printzipio esparru horretan, jarrera eta jokabide katalogo zabal bat zehazten du Kode horrek, hain zuzen ere Erakundearen Etika Batzorde honek jarduteko erreferentziako parametro gisa, era horretan, borondatez Koderat atxikitako kargu publikoek edo Kodeko xedapenak behar bezala betetzeko zinezko interesa duten hirugarren pertsonen helarazitako kontsultak, zalantzak eta dilema etikoak erantzuteko.

3.- Erakundearen Zuzentasun Sistemak aurreikusten du Erakundearen Etika Batzordea osatzea organo independente gisa, hain zuzen ere Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodea arautzen duten balore, printzipio eta jardunbideak bultzatu, sustatu, babestu eta betetzen direla bermatzeko, baita erakundearen irudia kaltetu dezakeen edozein ez-betetze edo jardunbide desegokiri aurrea hartzeko ere.

Berme organoaren funtzioak kargu publikoetan eta kargu baliokideetan islatuko dira, besteak beste.

4.- 3/2016 Foru Dekretuak, martxoaren 1ekoak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko foru sektore publikoko Erakundearen Etika Batzordea eratzeak (Urtarrilaren 16ko 3/2018 Foru Dekretuaren bidez aldatu zena) 3.b) artikuluan xedatzen du Erakundearen Etika Batzordearen eginkizuna dela eabazpen, txosten eta oharren bidez, kargu publikoek egindako kontsultak eta azaldutako zalantza zein dilema etikoak eabaztea.

5.- Eskatzaileari Gipuzkoako Foru Aldundiko eta haren sektore publikoko kargu publikoen zein langile baliokideen Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodea aplikatzen zaio, horren 1.3. arau orokorreko 1. artikuluko b) hizkian xedatutakoaren arabera.

III. ERAKUNDEAREN ETIKA BATZORDEAREN BALIOESPENA

Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodeak, zintzotasunaren eta eskuzabaltasunaren balorea zehaztean, hau xedatzen du: *“foru kargu publikoek interes publikoko helburua betetzeko eta Gipuzkoako herritarren interes orokorren alde soilik egingo du lan. Interes publikoen eta pribatuen arteko gatazkarik badago, edo gatazka susmorik badago, kargu publikoak dagokion autoritateari jakinarazi beharko dio lehenbailehen, edo bestela, Etika Batzordeari, hala bada-gokio. Baldintzen arabera edo ematen diren gomendioen arabera, dagokion organoan edota prozeduran erabakia hartzeko prozesuan ez du parte hartuko, ez zuzenean, ez zeharka ere...”*

Betebehar hori baldintza berdinetan jasotzen da 3.4.a) jokabide arauan, hain zuzen ere zintzotasunari eta eskuzabaltasunari buruzkoan, honako hau xedatzen baita: *“foru kargu publikoek interes publikoko helburua betetzeko eta Gipuzkoako herritarren interes orokorren alde soilik egingo du lan”.*

Horrez gain, xedatzen du interes publikoen eta pribatuen arteko gatazkarik badago, edota gatazka susmorik badago, kargu publikoak dagokion autoritateari edo erakundeari jakinarazi beharko diola lehenbailehen, edo bestela, gai horri buruzko kontsulta berme organoari ere helarazi ahal izango diola (3.4.b) jokabide araua).

Interesdunak hala egin du. Erakundearen Etika Batzordeari kontsulta egin dio, hain zuzen ere (...) buruzko graduondoaren proiektua zuzentzen jarrai dezakeen jakiteko, hain zuzen ere jakin baitu graduondo hori abian jartzen bada, UNED unibertsitateak eskainiko baitu, eta berak (...)etik (...) arte lan egindako (...) kontrata ditzakeela unibertsitate horrek plataforma birtualen mantentze lanak.

Interes gatazka posible baten inguruan, 3.4.d) jokabide arauak xedatzen du honako hau: *“interes gatazka sortzen da foru kargu publikoak hartzen dituen erabakietan berezko interes pribatuak baditu, edota izaera publikokoak, zuzeneko senideenak, izatezko bikotekidearenak edo hirugarrenekin partekatutako interesak, baita pertsona edo kolektibo horiek hartu-emanak izan dituzten enpresa edo entitateen interesak ere”*. Kasu horretan, 3.4.c) jokabide arauan xedatutakoaren arabera, ez du parte hartuko dagokion erabakia hartzeko prozesuan, ez zuzenean, ez zeharka.

Beste alde batetik, zuzentasunaren balorearen inguruan, 3.2.e) jokabide arauak, zuzentasunari buruzkoak, hau xedatzen du: *“bereziki, beren erabaki publikoetan eragina izan dezaketen kanpo interferentziak saihestuko dituzte, baita beren funtzioak betetzean kargu publiko gisa duten zuzentasuna zalantzan jarri ditzaketanak ere. Zehazki, pertsona edo entitate jakin batzuen aldeko faboritismo susmoak piztu ditzaketan jarduerak saihestuko dituzte.”*

Azkenik, objektibotasunaren balorearen inguruan, 3.5.b) eta c) arauetan honako hau xedatzen da: *“... beren funtzioetatik kanpo utzi beharko dituzte edozein jarduera susmagarri, baldin eta horien bidez modu ez-objektiboan eta argumenturik gabe, entitate pribatu edo publiko edo pertsona zehatzei zuzeneko ala zeharkako onura sor diezaiketela badirudi”, eta “bereziki, jarduera objektiboa nagusi izango da izendapenetan, kontratazio publikoan, dirulaguntzak ematean edo kargu publikoek beren funtzioak inpartzialtasunez betetzeko lege xedapena betetzean”*.

Aipatutako arauak xedatutakoa kontuan hartuta, ondorioztatu behar da Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodea urratzen dela, hain zuzen ere erabaki publikoetan, erabaki praktikoetan eta aldi berean interes orokorrekin zerikusia duten jardueretan, hau da, beren kargua betetzean babestu beharrekoetan, parte hartzen duten kargu publikoek, beren kargua betetzean, interes pribatu propioak, senideenak edo hirugarren pertsonenak badituzte. Beraz, nahikoa da kargu publiko bat betetzen duen pertsona batek edozein faboritismo susmo sortzea 3.4.b) arauko prebentzio mekanismoak aktibatzeko, hain zuzen ere Erakundearen Etika Batzordeari egindako kontsultan aurreikusten den moduan.

Kasu honetan, interesdunak bere kargua hartu baino ia (...) lehenago utzi zion (...) horretan lan egiteari –duela (...) urte baino gehiago– eta are garrantzitsuagoa dena, ondorio hauetarako are erabakigarriagoa dena: interesdunaren zuzendaritzak ez dauka inolako zuzeneko harremanik aipatutako (...) eta ez du inolako eskumenik graduondoko plataforma birtualen mantentze zerbitzua kontratatzeko, UNED unibertsitateari baitagokio eskumen hori. Interesdunaren zuzendaritzak (...) enpresa esleipendunarekin bakarrik dauka harremana, eta beharrezkoa bada, UNEDekin.

Gainera, kasu honetan, ez da urriaren 1eko 40/2015 Legeak, Sektore Publikoko Araubide Juridikoari buruzkoak, 23.2.e) artikuluan xedatutako abstentzio arrazoia eman (“*gaian zerikusi zuzena duen pertsona fisiko edo juridikoren batekin zerbitzu harremana izatea edo pertsona horri azken bi urteetan edozein era, baldintza eta tokitan lan zerbitzuak eskaini izatea*”), arestian aipatu den moduan, zerbitzu harremana ez baita (...) sortzen.

Azkenik, proiektuak aurrera egiten badu, UNEDen eskumena izango da plataforma birtualen mantentzea kontratatzea, hain zuzen ere unibertsitate horrek eskaini eta kudeatuko baitu (...) buruzko graduondoa. Gainera, sektore publikoko kontratazioaren esparruan indarrean dagoen araudia aplikatu beharko du entitate horrek. Beraz, bere autokudeaketa irizpideak betez, UNEDek erabakiko du nork mantenduko dituen bere plataforma birtualak, eta beraz, interesdunaren zuzendaritzak ezingo du erabaki horretan esku edo parte hartu.

Hori guztia aintzat hartuta, Erakundearen Etika Batzordeak aho batez ematen du hurrengo

EBAZPENA

Bakarra.- Interesdunak Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodean xedatutako balore eta jokabide arauen arabera jokatu duela (...) buruzko graduondoaren proiektua diseinatu eta sortzeko prozesuan; eta beraz, Erakundearen Zuzentasun Sisteman eta Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodean xedatutakoaren arabera, proiektu hori zuzentzen jarrai dezakeela.

05/2018 funtzionario baten eremu pribatua eta funtzio publikoaren arteko ustezko interes gatazka bati buruzko salaketa (EP)

Gaia 5/2018

EBAZPENA, FUNTZIONARIO PUBLIKO BATEK LANORDUETATIK KANPO IZAN DUEN ETA BERE KUDEAKETA PUBLIKOAN ERAGINA IZAN DEZAKEEN JOKABIDEA DELA-ETA, AURKEZTU DEN KONTSULTA ANONIMO BATI BURUZKOA

I.- KONTSULTA

1.- 2018ko apirilaren 3ko datarekin (eta konfidentzialtasuna gordetzeko berariaz eskatuta), ahozko kontsulta bat egin zitzaion Erakundearen Etika Batzordeari (EEB), (...) Departamentukoa den funtzionario batek (...) bere lanorduetatik kanpo izan duen baina bere eguneroko lan kudeaketan eragina izan dezakeen jokabide bati buruz.

2.- Aditzera eman zenez, aipatutako funtzionarioa departamentu horretako (...) Zerbitzuan ari da lanean. Dituen eginkizunen artean dago (...) -besteak beste, (...) - aurkezten dituzten dirulaguntza eskaerak aztertzea, beharkizunak baloratzea eta esleitzeko proposamena egitea.

Jaso den kontsultan aditzera eman denez, aipatutako funtzionarioak (...) federazio bateko lizentzia du (Federazioak zigorra ezarri zion, hain zuzen ere, eskaeran aipatzen diren jokabideengatik) eta, bere lanorduetatik kanpo, kanpaina bat bultzatu du (...)aren kontra, federazio horren barruan balizko irregulartasunak gertatzen direla eta (...) batzuekiko diskriminazioa egiten dela salatuz; kanpainaren barruan emailak eta panfleto informatiboak banatu dira, pankartak ezarri dira eta eserialdiak eta manifestazioak egin dira (...)aren

atarian. Interesdunak, ahoz eta idatziz emandako azalpenez gainera, dokumentazio ugari aurkeztu du esandakoaren erakuskari gisa (komunikatuak, emailak, argazkiak).

3.- Interesdunak EEBaren iritzia jakin nahi du, aipatutako funtzionarioari aplikagarri zaion Etikaren eta Kudeaketa Onaren Kodearen arabera jokatzeko ari den, alegia.

II.- ARAU APLIKAGARRIAK

1.- Diputatuen Kontseiluak Gipuzkoako Foru Aldundiko eta bere sektore publikoko Zuzentasun Sistema onartu zuen 2016ko martxoaren 1ean, etika publikoa eta eredugarritasuna bermatzeko eta ezaugarri bilakatzeko xedez.

Sistema horren markoan, 2017ko azaroaren 7ko Diputatuen Kontseiluaren erabakiz, Gipuzkoako foru enplegu publikoaren Etikaren eta Kudeaketa Onaren Kodea onartu zen (aurrerantzean Kode Etikoa), zeinak ezartzen baititu foru enplegatu batek bere zereginekin zerikusia duten jarduera profesional guztietan begiratu behar dituen balore etikoak eta jokabide arauak, kudeaketa onaren printzipioak eta jarduera profesionalaren arauak.

2.- Kode Etikoak ezartzen du Erakunderen Etikaren Batzordea, martxoaren 1eko 3/2016 Foru Dekretuz onartua, izango dela arlo honetako berme goreneko organoa eta aplikazioari buruzko gaiak erabakiko dituen.

Horretarako, urtarrilaren 16ko 3/2018 Foru Dekretuaren bitartez aldatu egin zen martxoaren 1eko 3/2016 Foru Dekretua, Gipuzkoako Lurralde Historikoko foru sektore publikoko Erakundearen Etika Batzordea eratzeko, haren xedea zabaltzeko (eransteko, besteak beste, Gipuzkoako Foru Enpleguaren Etikaren eta Kudeaketa Onaren Kodea); EEBan foru sektore publikoko kide gisa langileen ordezkaritza unitarioak aukeratutako pertsona bat sartzeko, Kode Etikoarekin lotutako gaiak konpontzearen; eta 15 egun balioduneko epea ezartzeko jasotako kontsulta, kexa eta salaketak ebazteko. Gai honetan, aldiz, ez du inongo langileen ordezkaririk parte hartu.

3.- Foru dekretu horren arabera, EEBari dagokio tramitatzea eta ebaztea jasotzen diren kexa eta salaketa guztiak, Erakundearen Zuzentasun Sistema garatzeko tresnetan ezarritako balore, printzipio eta jokabide arauak betetzeari dagokionez.

4.- Kontsultaren idatzian aipatzen den pertsonari, Gipuzkoako Foru Aldundiaren enplegatu publikoa denez gero, Kode Etikoa aplikatzen zaio, haren 1.1 artikuluari jarraikiz.

III. ERAKUNDEAREN ETIKA BATZORDEAREN BALIOESPENA

1.-- Lehenik eta behin, aditzera eman behar dugu azaldutako egintzen garrantzia kontuan hartuta eta jasotako kontsultaren eta bertan aipatzen diren egintzen berri emateko, eta egokitzat hartu ahal zituen edonolako argudioak azaltzeko aukera izan zezan, EEBak (...) jauna bilera batera deitu zuela batzordekide batzuekin egon zedin (2018ko maiatzaren 14a, 13:30 h), beraren iritzia entzun ahal izateko eta, hartara, ebazpen egokia hartu ahal izateko alderdi inplikatu guztiak entzunda. Ondoren, 7 eguneko epea eman zitzaion gaia modurik hoberenean konpontzeko egokia ikusten zuen edozein gai alegatu ahal izateko. Azkenik, 2018ko ekainaren 27an, 8.30tan, berriro ere deitua izan zen EEBaren behin-behineko ondorioak aurkezteko. Egindako alegazioak entzun eta gero eta kontuan izanik egindako komentarioak, EEBak gaia aztertu eta ebazten du.

2.- Bigarrenik, aditzera eman behar dugu aztergai dugun egoera edo jarduketa honetan bi kontu bereizi behar direla: alde batetik, enplegatu publikoak bere lanorduetatik kanpo izan duen jarduketa, eta, bestetik, horrek bere eginkizun publikoekin lotutako jarduera profesionalean izan zezakeen eragina.

Abiapuntu gisa, gogorarazi behar dugu zein diren Kode Etikoaren xedea eta izaera.

1.1 Kode honek foru langileek **euren funtzioak egitearekin lotutako jarduera profesional guztietan** barneratu beharreko balore etikoak eta jokabide arauak ezartzen ditu, baita kudeaketa onaren eta jarduera profesionalaren arauen printzipioak ere.

Bestalde, Kode Etikoan balore etikoei buruz jasotako artikulua hau xedatzen du balore horiei buruz: «(...) baloreek foru langile publikoak euren jarduera profesionalean (...) gidatu eta orientatzen dituzte» eta «Foru langile publikoek balore horiek barneratu behar dituzte euren erabakiak hartzeko prozesuetan, foru politiken garapenean eta kasu bakoitzean erabiltzen diren kudeaketa prozedura edo sistema ezberdinetan».

Halaber, Kode Etikoaren arabera «kudeaketa onaren printzipioak foru langile publikoek zerbitzua ematen duten **lanpostuaren** edo erakundearen **funtzioak gauzatzean** gida edo orientazioa helburu duten zuzentarauen multzoa dira, programatutako emaitzak edo ondorioak betetzeko xedez, baita herritarrei ematen zaizkien foru zerbitzu publikoen kalitatea eta eraginkortasuna etengabe hobetzeko prozesua aurrera eramateko ere».

Beraz, ikus daiteke enplegatu publikoak bere eginkizun publikoak betetzeko jarduera profesionalean gidagarri hartu behar dituen balore, printzipio eta arauak buruz diharduela une oro Kode Etikoak; horregatik, uler daiteke Kodearen aplikazio esparrutik kanpo geratzen direla enplegatu publikoak bere esparru laboraletik kanpo dituen jarduketak, edo, bestela esanda, Kode Etikoan ezarritakoa ezin du izan funtzionarioek beraien bizitza edo arlo pribatuan jarduten dutenaren parametroa. Eta aurkeztutako salaketan adierazten denez, auzitan jartzen diren jokabideak salatuaren lan ordutegitik kanpo gertatuak dira. Beraz, arestian aipatutakoaren arabera, EEB honen jardun esparrutik kanpokoak izango lirateke eta, ondorioz, ez dagokio jokabide horiek Kode Etikora egokitzen diren ala ez aztertzea.

3. Alabaina, bestelako dilema planteatzen da baldin eta aztertzen badugu salatuak bere esparru pribatuan duen jokabideak eraginik izan dezakeen bere eginkizun publikoa betetzekoan.

Adierazi den bezala, funtzionario honek dituen eginkizunen artean dago bere zerbitzuan jasotzen diren dirulaguntza eskaerak aztertzea, beharkizunak baloratzea eta esleitzeko proposamena egitea; eta, hain zuzen ere, berak (bere esparru pribatuan) abian jarri duen desprestigio kanpaina jasaten ari den erakundea da berak baloratu beharreko proposamenak egiten dituenetako bat, GFAko (...) Departamentuak deitutako zenbait dirulaguntza deialditara aurkeztzen baita. Puntu honetara iritsita, beharrezkoa zaigu Kode Etikoaren atal zehatz batzuk aztertzea.

Lehenbizi, gogoratu behar dugu zein diren Kode Etikoa onartzuz lortu nahi diren helburuak, horien artean baitago «foru enplegu publikoaren inpartzialtasun, profesionaltasun, zuzentasun eta herritarren zerbitzuaren irudia indartzea». Xede hori zehaztuz, inpartzialtasunaren eta objektibotasunaren baloreak azaltzen dira: «inpartzialtasuna da foru enplegu publikoaren instituzioaren izateko arrazoia, eta, beraz, (...) bestelakoetatik urrun egon beharko du». Alegia, balore horiekin lortu nahi dena zera da: enplegatu publikoek, herritarrengan

eragina duten erabakiak hartzen dituztenean, jokabide objektiboarekin jardutea, alde zuzeneko eragin edo ideietatik urrun eta ahalik eta modurik objektiboenean, zorrotzenean eta inpartzialenean jokatu.

Ezaugarri horiek garatuz, Inpartzialtasun eta Objektibotasunaren balore etikoekin lotutako jokabide arauak zehazten dira aurrerago Kodean. Hala, besteak beste, 4. atalean honako hau dio arauak:

“(...)

b) (...)euren funtzioak burutzean horien bidez erakunde publiko edo pribatuei edo pertsona fisiko zehatzei mesede-tratu edo onura zuzena edo ez-zuzena sor dezakeen jardura batean arazoitu gabeko edo objektibatu gabeko moduan eragina duten edo susmoa edo irudia eman dezaketen praktika eta jardun guztiak ekidindo dituzte.

(...)

d) Jardura objektibo horrek, bereziki, sarrera, sustapen eta lanpostuen hornikuntza, kontratazio publikoa, dirulaguntzen izapidetzea edo publizitate eta konkurrentzia askeko printzipioak gidatzen duen edozein legezko exijentzia betetzea estali beharko du, baita euren funtzioak betetzean inpartzialtasuna babestea ere.”

Egia da 4.b) atalean objektibotasun falta (edo faltaren susmoa) aipatzen denean espresuki hirugarren bati mesede-traturako bide gisa aipatzen dela, baina analogiaz honen barruan objektibotasun falta hirugarren bati kalte egiteko bidea ere ulertu daiteke. Bestalde, 4.d) atalak enfasi eta ardura bereziaz planteatzen du objektibotasuna eta inpartzialtasuna zaindu beharra eragin publiko nabarmena izan dezaketen eta arreta bereziaz babestu nahi diren prozedura administratibo batzuetan: funtzio publikorako sarbidean, kontratazioan eta dirulaguntzetan.

Bi aspektu hauek batera kontuan hartzea funtsezkoa da aztergai dugun gai honetan, izan ere, funtzionario salatuak parte hartzen du bere eginkizunak betetzen dituen departamentuak ematen dituen dirulaguntzak ebazteko prozeduran, eta, aurkeztutako ebidentzia ugariaren bitartez (salatuaren e-mailak, adierazpenak, eta abar) EEB honek egiaztatu ahal izan duen bezala, begi bistakoa da salatuak (...)rekiko duen antipatia edo ezinikusia. Egia da ezinikusi hutsak ez dakarrela nahitaez salatuak fede txarrez jokatzeko bere eginkizunak betetzerakoan eta dirulaguntzak esleitzeko prozeduran parte hartzerakoan; are gehiago: zerbitzari publikoa den heinean, uste izan behar da fede onez eta inpartzialtasunez jokatuko duela. Arauen literaltasunari erreparatuz, ordea, kontuan hartu behar dugu halako egoeretan ez direla aintzat hartu behar eragina duten egintza frogatuak bakarrik, baizik eta baita susmoa edo irudia eman dezaketen praktikak ere. Hortaz, logikoa dirudi pentsatzea salatuak (...)aren aurrean hartu duen jokabideak kalte egin diezaiokeela erakunde horri dirulaguntza edo bestelako laguntzaren bat eskatzen duenean, baldin eta funtzionario horrek parte hartzen duen prozesu bat igaro behar badu.

Gainera, zintzotasunari eta interesik ezari buruzko atalean, 3.e) azpiatalean, hau esaten da:

e) Interes gatazka sortzen da foru langile publikoak bere lanpostuko edo bere jardura profesionaleko eremuko interesak eta berezko interes pribatuak (...) aldi berean eman daitezkeen gaiekin lotutako prozeduretan parte hartzen duenean.

Eta halakorik gertatzen denean:

b) Interes publiko eta pribatuen arteko gatazka edo gatazka zantzuen kasuan, langile publikoak eskumena duen erakundeari edo aginteari berehala jakinarazi beharko dio. Berme organoari ere kontsulta helarazi ahalko dio.

c) Edozelan ere, aurreko letran adierazitako egoeraren bat emango balitz, bereziki interes publiko eta pribatuen arteko edozein gatazka edo gatazka zantzu, prozedura horretan parte hartzeari uko egin beharko dio, ezar daitekeen araudiaren arabera.

Beraz, inguruabar guztiak ikusita, irudi du funtzionarioak (...)arekin duen gatazkak (bi alderdiek onartua) eta bere departamentuak ematen dituen dirulaguntzak ebazteko prozesuan hark duen parte hartzeak objektibotasun eta inpartzialtasun faltaren susmoa sor dezaketela eta, beraz, ezin dela zintzotasuna bermatu prozesu horretan.

Zentzu berean aipa daiteke, baita ere, zuzentasunari buruzko ataleko 1.c) artikulua dioena:

c) Bereziki, euren funtzioak burutzean eragina izan dezaketen eta euren jarduera profesionalaren osotasunaren gaineko arrazoizko zalantzak planteatu ditzaketen kanpo eraginak ekidingo dituzte. Bereziki, pertsona edo erakunde batzueganako faboritismo susmoa eragin dezaketen jarduerak ekidingo dituzte.

Esaten da horrelakoetan saihestuko dela faboritismo susmorik sortzea; zentzu berean, esan genezake, beraz, saihestu behar dela objektibotasun faltaren susmoa sortzea ere. Aztergai dugun honetan, aurkeztutako dokumentazioan erabilita dagoen tonuak eta hizkerak argi uzten dute funtzionarioak (...)aren aurkako jarrera duela; eta, beraz, erraz susmatu liteke objektibotasun faltaz joka lezakeela erakunde horri dirulaguntza bat ematea (ala ez ematea) proposatzeko garaian.

Azkenik, ezin dugu azpimarratu gabe utzi objektibotasun edo inpartzialtasun faltak eta, halaber, interes gatazkarekin zerikusia duen guztiak, garrantzi handia dutela Gipuzkoako Foru Aldundiaren Zuzentasun Sisteman, izan ere, ideia berbera dago jasoa goi kargudun publikoei aplikagarri zaien Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodean ere (2016ko martxoaren lehen onartua):

“Zuzentasuna:

(...)

b) Halaber, foru administrazioari edo haren sektore publikoko entitateei zuzenean ala zeharka eragin diezaioketen bizitza pribatuko alderdiak ere bereziki zainduko dituzte. Horretarako, esparru pribatuan ez dituzte herritarrek foru erakundearen duten konfiantza kaltetu edo zalantzan jarri dezaketen jarduerarik egingo edo horrelako jokabiderik edukiko.

Zintzotasuna eta eskuzabaltasuna:

(...)

b) Interes publikoen eta pribatuen arteko gatazkarik badago, edo gatazka susmorik badago, kargu publikoak dagokion autoritateari edo erakundeari jakinarazi

beharko dio lehenbailehen. Halaber, gai horri buruzko kontsulta berme organoari ere helarazi ahal izango dio.

c) Edonola ere, aurreko atalean zehaztutako baldintzetako bat ematen bada, ez du parte hartuko dagokion erabakia hartzeko prozesuan, ez zuzenean, ez zeharka.

d) Interes gatazka sortzen da foru kargu publikoak hartzen dituen erabakietan berezko interes pribatuak baditu, edota izaera publikokoak, zuzeneko senideenak, izatezko biko- tekidearenak edo hirugarrenekin partekatutako interesak, baita pertsona edo kolektibo horiek hartu-emanak izan dituzten enpresa edo entitateen interesak ere.

e) Interes gatazka dagoela dirudi foru kargu publikoaren ustez, bere eskumeneko jarduera, esku hartze edo erabakiek ez badute eraginik bere interes pertsonaletan, familia interese- tan edo berari lotutako hirugarren pertsonen interesetan, ezta pertsona horiek nolabaiteko harremana izandako enpresa edo entitateen interesetan; baina ikuspegi objektibotik begiratuta, jarduera, esku hartze edo erabaki horrek erakundearen irudia zuzenean eta nabarmen kaltetzen badu herritarren aurrean.

Objektibotasuna:

(...)

b) Horretarako, beren funtzioetatik kanpo utzi beharko dituzte edozein jarduera susmagarri, baldin eta horien bidez modu ez-objektiboan eta argumenturik gabe, entitate pribatu edo publiko edo pertsona zehatzei zuzeneko ala zeharkako onura sor diezaieketela badirudi.

c) Bereziki, jarduera objektiboa nagusi izango da izendapenetan, kontratazio publikoan, dirulaguntzak ematean edo kargu publikoek beren funtzioak inpartzialtasunez betetzeko lege xedapena betetzean.

4.- Zentzu berean doa enplegatu publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina, urriaren 30eko 5/2015 Errege Dekretu Legegilearen bidez onartutakoa, zeinak enplegatu publikoaren Jokabide Kodeari buruzko artikuluan (II. titulua, VI. kapitulua, 53. art.) hauxe baitio:

(...)

2. Enplegatu publikoen jardunak herritarren interes orokorrak betetzea izango du xede eta **inpartzialtasuna** eta guztiontzako interesa lortzera doazen jarraibide objektiboak izango ditu oinarri, printzipio **horren aurkakoak izan daitezkeen jokabide guztiak erabat alde batera utzita, pertsonalak, familiartekoak, korporaziokoak** nahiz bezeroei dagozkienak izan.

(...)

5. Interes pertsonala duten gaietan **abstenitu egingo dira** eta, **lanpostu publikoaren interesekiko gatazka ekartzeko arriskua izan badezakete, jardun pribatu** eta gaine- rako interes **guztietan ere bai**.

Hori guztia dela eta, Erakundearen Etika Batzordeak aho batez onartu du honako ebazpen hau:

EBAZPENA

Lehenbizi.- Kode Etikoan, Zuzentasun markoaren arloan 10.5 artikulua ezarritakoari jarraiki, Batzordeak arrazoituta idatzi baten bidez jakinarazi zion langile publikoari ebazpen proposamena, jarrera horiek ez errepikatzeko bere jokabidea zuzentzeko neurriak borondatezko moduan hartzeko asmoz, EEBaren irizpideari idatziz aurka egiteko ebazpena proposamena jaso zuenetik 7 egon baliodun eman zitzaizalarik. Egindako alegazioak ikusi eta gero, EEB honek aho batez onartzen du honako ebazpena.

Bigarren.- Salatuaren lan ordutegitik kanpo gertatzen direnak EEB honen jarduketa esparrutik kanpo geratzen dira, eta, beraz, ezin da baloratu jarduketa horiek bat datozen ala ez Gipuzkoako Foru Enplegu Publikoaren Etikaren eta Kudeaketa Onaren Kodearekin.

Hirugarren.- Gatazka dagoela egiaztatu denez gero, Erakundearen eta gatazkan dauden alderdien onerako, eta esleitura dituen eginkizunak betetzerakoan funtzionarioak har ditzakeen harremanak eta ebazpenak eragotzi gabe, EEB honek (...) jaunari eta haren arduradunei gomendatzen die (...) jaunak ez dezala parte hartu dirulaguntzak emateko prozeduretan (...) parte interesduna denean.

Laugarren.- (...) jaunak ibilbide profesionalean eta (...) duen ibilbide eta dedikazio profesionala eta pertsonala aitortuz, gomendatzen diogu bere desadostasunak adierazteko unean kontuan har ditzala Gipuzkoako Foru Aldundiko enplegu publikoaren Etikaren eta Kudeaketa Onaren Kodean jasota dauden baloreak eta jokabide arauak.

Bosgarren.- (...) jaunari, edozein enplegatu publikori bezalaxe, gomendatzen diogu bere buruzagi hierarkikoari eta EEB honi jakinarazi diezagula bere eginkizun publikoen eta bere bizitza pribatuaren artean egon den edozein interes gatazka, neurri egokiak hartu ahal izateko, bai enplegatuaren eginkizun publikoetan eduki beharreko objektibotasuna eta inpartzialtasuna bermatzeko, bai prozeduraren zuzentasunarekiko konfiantza sendotzeko.

06/2018 funtzionario baten ustezko interes gatazka baten eta baliabide publikoak helburu pribatuak asetzeko erabiltzeari buruzko salaketa (EP)

Gaia 6/2018

EBAZPENA, (...) ETA (...) BATEN SENITARTEKOEK AURKEZTU DUTEN KONTSULTARI BURUZKOA, FUNTZIONARIO PUBLIKO BATENGANDIK JASATEN ARI DIREN USTEZKO LARDERIAZKO JARRERA DELA-ETA.

I.- KONTSULTA

1.- 2018ko apirilaren 27an, Erakundearen Etika Batzordeari (EEB) ahozko kontsulta egin zion (...), (...) senitartekoekin batera (aurrerantzean, interesduna), (...) Departamentuko funtzionario batengandik (...) jasaten ari diren ustezko larderiazko jarrera dela-eta.

2.- Salatu dute aipatu funtzionarioaren mehatxu jarrera eta eraso fisiko nahiz hitzezkoak, federazioko langileen eta (...) aurka bai federazioaren egoitzan, bai bizileku partikularretan, eta baita hainbat (...) ere.

Aipatutako funtzionarioa (...) Departamentuko (...) Zerbitzuan ari da lanean. Dituen egin-kizunaren artean dago (...) -besteak beste, (...) - aurkezten dituzten dirulaguntza eskaerak aztertzea, beharkizunak baloratzea eta esleitzeko proposamena egitea. Bestalde, aipatutako (...) lizentzia du, eta (...) Elkartearen. Interesduna elkarte horretako bazkide da.

Salatzaileak azaldu duenez, funtzionarioak eragin negatiboa izan du (...) pertsonarengan, bere posizioa eta interesdunaren (...) baliatuz. Eragin hori hain negatiboa izan da, ustez interesdunaren osasuna arriskuan jartzera ere iritsi dela, mediku espezialistek egindako mediku gomendioei kasurik ez egiteagatik, (...) jardun zenean. Gainera, familiak bere aurkako kanpaina bat ere salatu du (kartelak jarri zituen senitartekoen bizileku partikularretan, senitartekoa bahituta dutela iradokiz), interesdunaren erabakitzeko ahalmenean eragina izateko (...) eta ikaratzeko helburuarekin. Horrela, denbora batean ez zuen etxetik bakarrik atera nahi izan, eta ez (...) joan nahi izan, ustez aipatu funtzionarioarekin topo egiteko beldurra zuelako. Familiak dio Ertzaintzaren bi parte daudela, funtzionarioak eta familiak kalean izandako istiluengatik.

Bestalde, (...)ek dio, gainera, denbora batean, asteartero eta ostegunero, manifestazioak, eserialdiak eta pankartak jasan dituztela egoitzan; duela gutxi, bestalde, bilera bat egin zuten funtzionarioarekin, egoera baretzeko helburuarekin, eta salatzaileak azaldu duenez honek mehatxu egin zien, adieraziz ez zutela berriro inolako dirulaguntzari jasoko Gipuzkoako Foru Aldundiarengandik. Gainera, kontsultan adierazten da susmatzen dela aipatu jarduketetako asko lan ordutegian egin direla (funtzionarioaren lan ordutegian), jaso dituzten e-mail eta mehatxu asko funtzionarioaren posta helbide korporatibotik bidali direla, eta (...) askok bileretarako deialdiak jaso dituztela, (...) Departamentuari atxikitako lokaletan, (...)ren eta (...) aurka abian jarritako kanpainaren berri emateko, funtzionarioaren lan esparrutik kanpo dagoen kontu bat izan arren. Era berean, susmoa dago GFaren materiala erabili dela (...)ren kontrako kanpainak egiteko.

3.- Interesdunak EEBaren iritzia jakin nahi du, aipatutako funtzionarioa aplikagarri zaion Etikaren eta Kudeaketa Onaren Kodearen arabera jokatzeko ari den, alegia.

II.- ARAU APLIKAGARRIAK

1.- Diputatuen Kontseiluak Gipuzkoako Foru Aldundiko eta bere sektore publikoko Zuzentasun Sistema onartu zuen 2016ko martxoaren 1ean, etika publikoa eta eredugarritasuna bermatzeko eta ezaugarri bilakatzeko xedez.

Sistema horren markoan, 2017ko azaroaren 7ko Diputatuen Kontseiluaren erabakiz, Gipuzkoako foru enplegu publikoaren Etikaren eta Kudeaketa Onaren Kodea onartu zen (aurrerantzean Kode Etikoa), zeinak ezartzen baititu foru enplegatu batek bere zereginekin zerikusia duten jarduera profesional guztietan begiratu behar dituen balore etikoak eta jokabide arauak, kudeaketa onaren printzipioak eta jarduera profesionalaren arauak.

2.- Kode Etikoak ezartzen du Erakunde Etikaren Batzordea, martxoaren 1eko 3/2016 Foru Dekretuz onartua, izango dela arlo honetako berme goreneko organoa eta aplikazioari buruzko gaiak erabakiko dituen.

Horretarako, urtarrilaren 16ko 3/2018 Foru Dekretuaren bitartez aldatu egin zen martxoaren 1eko 3/2016 Foru Dekretua, Gipuzkoako Lurralde Historikoko foru sektore publikoko Erakundearen Etika Batzordea eratzeko, haren xedea zabaltzeko (eransteko, besteak beste, Gipuzkoako Foru Enpleguaren Etikaren eta Kudeaketa Onaren Kodea) ; EEBan foru sektore publikoko kide gisa langileen ordezkari unitarioak aukeratutako pertsona bat sartzeko, Kode Etikoaekin lotutako gaiak konpontzearen; eta 15 egun balioduneko epea ezartzeko jasotako kontsulta, kexa eta salaketak ebazteko.

3.- Foru dekretu horren arabera, EEBari dagokio tramitatzea eta ebaztea jasotzen diren kexa eta salaketa guztiak, Erakundearen Zuzentasun Sistema garatzeko tresnetan ezarritako balore, printzipio eta jokabide arauak betetzeari dagokionez.

4.- Kontsultaren idatzian aipatzen den pertsonari, Gipuzkoako Foru Aldundiaren enplegatu publikoa denez gero, Kode Etikoa aplikatzen zaio, haren 1.1 artikuluari jarraikiz.

III. ERAKUNDEAREN ETIKA BATZORDEAREN BALIOESPENA

1.- Lehenik eta behin adierazi behar dugu salaketa hau jarri zaion funtzionarioaren inguruan EEB honek 5/2018 ebazpena eman zuela, eta interesdunak desberdinak badira ere, eta salatutako egintzak berdin-berdinak ez badira ere, antzekotasun handia dagoela (...) k salatzen dituen zenbait jarduketean. Horregatik, ebazpen honetan erreferentzia egingo diogu EEBak 2018ko abuztuaren 6ko 5/2018 ebazpenean jada ebatzi zuenari.

2.- EEB honen 5/2018 ebazpenean adierazten den bezala, azaldutako egintzen garrantzia kontuan hartuta eta jasotako kontsultaren eta bertan aipatzen diren egintzen berri emateko, EEBak erabaki zuen (...) jauna bilera batera deitzea, batzordekide batzuekin egon zedin (2018ko maiatzaren 14a, 13:30 h), beraren iritzia entzun ahal izateko. Bilera horretan, 5/2018 ebazpenean adierazitako gaiez gain, 6/2018 ebazpen honetan adierazitakoak ere hitz egin ziren. Ondoren, 7 eguneko epea eman zitzaion gaia modurik hoberenean konpontzeko egokia ikusten zuen edozein gai alegatu ahal izateko. Azkenik, 2018ko ekainaren 27an, 8.30tan, berriro ere deitua izan zen EEBaren behin-behineko ondorik aurkezteko. Egindako alegazioak entzun eta gero eta kontuan izanik egindako komentarioak, EEBak gaia aztertu eta ebazten du.

3.- Salatutako egintzei dagokionez, 5/2018 ebazpenean adierazi bezala, aditzera eman behar dugu aztergai dugun egoera edo jarduketa honetan bi kontu bereizi behar direla: alde batetik, enplegatu publikoak bere lanorduetatik kanpo ustez izan duen jarduketa, eta, bestetik, horrek bere eginkizun publikoekin lotutako jarduera profesionalean izan zezakeen eragina.

Lehenengo kontuari dagokionez, aipatu behar da 5/2018 ebazpenean adierazitakoa. Ebazpen horretan, Kode Etikoko hainbat arau aztertzen dira, Kode Etikoa deskribatzen diren balio, printzipio eta portaera arauen aplikazio esparruari buruz. Eta ondorioztatzen da salatuaren lan ordutegitik kanpo gertatzen direnak Kodearen aplikazio esparrutik kanpo geratzen direla eta, ondorioz, ez dela bidezkoa jokabide horiek Kode Etikora egokitzen diren ala ez baloratzea.

4.- Bigarren kontuari dagokionez, hau da, salatuak bere esparru pribatuan duen jokabideak bere eginkizun publikoa betetzerakoan izan dezakeen eraginari dagokionez, 5/2018 ebazpenean adierazitakoa aipatu behar dugu berriro. Ebazpen horretan, Kode Etikoa hainbat arau aztertzen dira, balio etiko hauei lotutako jokabide arau buruzkoak: Inpartzialtasuna

eta Objektibotasuna (4.b eta 4.d atalak), Zintzotasuna eta Interesik eza (3.b, 3.c eta 3.e artikulua) eta Zuzentasuna (1.c atala). Eta ondorioztatzen da funtzionarioak dirulaguntzak esleitzeko prozesuan duen parte hartzeak objektibotasun eta inpartzialtasun faltaren susmoa sor dezakeela eta, beraz, ezin dela zintzotasuna bermatu prozesu horretan.

Gainera, kasu honetan, eskaeran bertan adierazten den bezala, ustez (...)ek mehatxu zuzena jaso du funtzionarioaren aldetik: ez duela GFaren inolako laguntza edo dirulaguntzarik jasoko. Eta hori bere esku ez badago ere (izan ere berak ez du esleipena egiten baizik eta proposamena), funtzionarioaren objektibotasun eta inpartzialtasun faltaren adierazgarri da.

Gogorazi behar da ideia hori indartu egiten duela enplegatu publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bateginak, urriaren 30eko 5/2015 Errege Dekretu Legegilearen bidez onartua, enplegatu publikoaren Jokabide Kodeari buruzko artikuluan (II. titulua, VI. kapitulua, 53. art.).

5-. Kasu honetan beste kontu berri bat ere salatzen da, 5/2018 kasuan agertzen ez dena. Izan ere, esaten da jarduketa batzuk laneko ordutegiaren barruan egin direla susmatzen dela, GFaren materiala eta instalazioak erabiliz.

Horri dagokionez, Kode Etikoak foru baliabide publikoen erabilera eta kudeaketa eragin-korra aldarrikatzen du, zerbitzu publikoak emateko beharrezkoak diren premiak betetzeko betiere (6. atala, Eraginkortasunaren balioa garatzen duten jokabide arauetako buruzkoa) :

“a) Foru langile publikoek errekurtsu publikoak eraginkorki kudeatuko dituzte, oinarri hartuta errekurtsu horiek ez direla berezko baliabideak eta funtzionamendu egokia herritarrenganako zerbitzuekin lotuta dagoela, euren zergekin bere existentzia, mantentzea eta erabilera ordaintzen dutenak.

(...)

b) Lan publikoen garapena modu konprometitan eta arduratsuan egingo da, erakundeari dedikatutako lan denborarekin lotutako emaitza eraginkorrak materialki betez, legeak eta arauak ezarritakoaren arabera.”

Eta are irmoagoa da e) atala:

*“e) Foru Administrazioak foru langile publikoei esleitutako baliabide publikoen erabilera euren jarduera eta funtzio publikoak gauzatzeari bakarrik lotuta dago. Heditutako Erakundearen Zuzentasun Batzordeak aurretik baloratuko duen kasu bakoitzaren behar berezietatik aparte, euren esku jarritako **baliabide publikoak behar pribatu, pertsonalak, familiarak, gertuko pertsona edo profesionalenak, asetzeko erabiltzea ekidindo da, interes publikorako ez direnak.**”*

Ulertzen da, beraz, Kode Etikoak ez duela babesten baliabide horiek behar pertsonalak asetzeko erabiltzea, funtzionarioen berezko funtzio publikoak gauzatzeari loturik egon gabe. Eta baliabideetatik har ditzakegu bai materialak bai higiezinak ere. Kasu honetan, GFaren eraikinetan dauden bilera gelak, funtzionarioak bere lan esparrutik kanpoko kontuetarako erabili dituenak (hala egiaztatuta geratu da (...) jaunak bidalitako korreoetan, zeinetan bilerak espazio horietan egiteko deialdiak egiten baitzuten). Ideia bera transmititzen du Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren testu bateginaren 5. artikulua

(«Enplegatu publikoek baliabide eta ondasun publikoak austeritatez administratuko dituzte, eta ez dituzte erabiliko norberaren edo hurbilekoen mesederako. Baliabide eta ondasun horiek zaintzeko eginbeharra ere izango dute»).

Aipatzen da ere, jarduketa horietako batzuk badirudiela laneko ordutegiaren barruan egin dituela. Kasua balitz, hori ere baliabide publikotzat har daiteke, enplegatu publikoen soldata herritarren zergekin ordaintzen baita eta, beraz, eraginkortasunaren balioa -kasu honetan bere lanaldiaren aprobetxamendua- aplikaziokoa da erabat (Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren testu bategineko 54.2 artikuluan adierazten den bezala).

Beste kontu bat ere ez dugu ahaztu behar: (...) jaunak bidali dituen zenbait korreo, bai esparru pribatuko bilera horien deialdiak egiteko, bai (...)i mezu garratzak baita bere jarduerarekiko deskalkifikatzaileak ere, funtzionarioaren posta kontu korporatibotik bidaliak izan dira, Gipuzkoako Foru Aldundiaren irudia kaltetuz.

6.- Jarrera desegoki hori Kode Etikoak Errespetu balioari buruz (7. atala) esaten duenaren kontra dago erabat. Izan ere, Kode Etikoak garbi uzten du enplegatu publikoek ondo tratatuko dituztela gainerako pertsonak, eta mespretxuzko terminoak erabiltzea dakarten portaerak edo jarduketak ekidingo dituztela. Gainera, jokabide arauetan behin eta berriz aipatzen du langile publikoek arreta berezia jarri behar dutela herritarrekiko harremanetan:

“d) Langile publikoek arreta berezia jarri beharko dute herritarrekiko eta zerbitzu publikoko erabiltzaileekiko harremanetan. Eremu honetan, foru langileek ematen duten zerbitzu publikoaren azken arrazoia herritarrak direnez, edozein kasutan kortesia, zuzentasun eta errespetuz tratatuko dira, eta bereziki, pertsona orok merezi duen duintasunez, baita adeitasun, enpatia eta baretasunez.”

Kasu honetan, kontua are larriagoa da, interesdunetako bat kolektibo bereziki ahul batekoa baita. Izan ere, (...) da. Horrela, jarduketa honek kontra egiten dio zuzen-zuzenean errespetu balioaren barruan ematen den beste arau bati:

“e) Modu berean, foru langile publikoek arreta berezia izango dute, dimentsio etikotik, bereziki ahulak diren kolektiboekin harremanak izatean, gizarte arrazoiak, arrazoi ekonomikoak edo edozein motatako arrazoiak direla eta, beharrezkoak diren ekintza positiboko neurriak hartuz eta pertsona horiekiko tratuan sentsibilitate eta enpatia berezia helaraziz, erakundeak sustatzen dituen politika publikoen eremuan.”

Interesdunek beren salaketan adierazi dute jazarriak sentitu direla funtzionarioaren jarre-ragatik, bai (...)en egoitzan bai interesdunaren senitartekoen bizileku partikularretan egin dituen manifestazio publikoengatik, bai jaso dituzten korreoengatik. Jazarpena halakoa izan da, interesdunak ez duela kalera bakarrik atera nahi, eta ez duela (...) joan nahi, ustez (...) jaunarekin topo egiteko beldur baita. Portaera hori ere Kode Etikoan adierazitakoaren aurkakoa litzateke:

“f) Edozelan ere, beste langile publikoei edo Foru Administrazioarekin harremana duen beste edozein pertsonari lan-jazarpena edo jazarpen pertsonala edo eraso nabarmeneko egoerak ekidingo dira. Egoera horietakoren bat emango balitz, kaltetutako pertsonak edo datu objektiboak eman ditzakeen beste edozein langile publikok administrazio unitatearen arduradunari berehala helaraziko dio, eta edozein kasutan ber-

me organoari, dagokion administrazio zigor prozedura abiaraziz. Langile publikoaren kexak, berme organoaren arabera, oinarria izango balu, informazio espediente bat ireki daiteke, hala badagokio, dagozkion zigor arduen exijentzia abiarazteko.”

Zentzu berean, Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren testu bateginaren 54.1 artikulua dio «arretaz eta begirunez tratatuko dituztela herritarrak».

Hori guztia dela eta, Erakundearen Etika Batzordeak aho batez onartu du honako ebazpen hau:

EBAZPENA

Lehenbizi.- Kode Etikoan, Zuzentasun markoaren arloan 10.5 artikulua ezarritakoari jarraiki, Batzordeak arrazoitutako idatzi baten bidez jakinarazi zion langile publikoari ebazpen proposamena, jarrera horiek ez errepikatzeko bere jokabidea zuzentzeko neurriak borondatezko moduan hartzeko asmoz, EEBaren irizpideari idatziz aurka egiteko ebazpena proposamena jaso zuenetik 7 egon baliodun eman zitzaiozlarik. Egindako alegazioak ikusi eta gero, EEB honek aho batez onartzen du honako ebazpena.

Bigarren.- Salatuaren lan ordutegitik kanpo gertatzen direnak EEB honen jarduketa esparrutik kanpo geratzen dira, eta, beraz, ezin da baloratu jarduketa horiek bat datozen ala ez Gipuzkoako Foru Enplegu Publikoaren Etikaren eta Kudeaketa Onaren Kodearekin.

Hirugarren.- Gatazka dagoela egiaztatu denez gero, Erakundearen eta gatazkan dauden alderdien onerako, eta esleitura dituen eginkizunak betetzerakoan funtzionarioak har ditzakeen harremanak eta ebazpenak eragotzi gabe, EEB honek (...) jaunari eta haren arduradunei gomendatzen die, gatazka konpondu bitartean, (...) jaunak ez dezala parte hartu dirulaguntzak emateko prozeduretan (...) parte interesduna denean.

Laugarren.- (...) jaunak ibilbide profesionalean eta (...) duen ibilbide eta dedikazio profesionala eta pertsonala aitortuz, gomendatzen diogu bere desadostasunak adierazteko unean kontuan har ditzala Gipuzkoako Foru Aldundiko enplegu publikoaren Etikaren eta Kudeaketa Onaren Kodean jasota dauden baloreak eta jokabide arauak.

Bosgarren.- Exijitzen diogu ez erabiltzea posta korporatiboa argudio eta ideia partidistak defendatzeko.

Seigarren.- (...) jaunari gomendatzen diogu, erakundeko langile eta arduradun guztiei bezalaxe, (...) espazioak lanorduetatik kanpo erabiltzeko, Gipuzkoako Foru Aldunditik kanpoko norbait izan dadila bere erakundearen izenean espazio horiek erabiltzeko baimena eskatzen duena.

Zazpigarren.- (...) jaunari, edozein enplegatu publikori bezalaxe, gomendatzen diogu bere buruzagi hierarkikoari eta EEB honi jakinarazi diezagula bere eginkizun publikoen eta bere bizitza pribatuaren artean egon den edozein interes gatazka, neurri egokiak hartu ahal izateko, bai enplegatuaren eginkizun publikoetan eduki beharreko objektibotasuna eta inpartzialtasuna bermatzeko, bai prozeduraren zuzentasunarekiko konfiantza sendotzeko.

07/2018 Gaia

EBAZPENA, (...) DEPARTAMENTUKO (...) ZUZENDARI NAGUSI (...)EK MASTER BATEAN IRAKASLE GISA PARTE HARTU IZANAGATIK DAGOKION DIRUAREN DOHAINTZAREN INGURUAN EGINDAKO KONTSULTARI BURUZKOA.

I.- KONTSULTA

1.- 2018ko uztailaren 12an, (...)ek, (...) Departamentuko (...) zuzendari nagusiak, kontsulta egin zion Erakundearen Etika Batzordeari, master batean irakasle gisa parte hartu izanagatik dagokion ordainsaria ongintzako elkarre bati ((...)) dohaintzan emateko aukerari buruz.

2.- Interesdunak adierazi zuen Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateak (UPV/EHU) gonbidatu duela (...)ren kudeaketari buruzko master batean irakasle gisa parte hartzera. Bertan zioen susmoa zuela ezin duela trukean eskaintzen zioten ordainsaria jaso, baina jakin nahi du unibertsitateari eska ote diezaiokeen kopuru hori ongintzako erakunde bati, zehazki (...)ri, emateko.

II.- ARAU APLIKAGARRIAK

1.- Diputatuen Kontseiluak Gipuzkoako Foru Aldundiko eta bere sektore publikoko Zuzentasun Sistema onartu zuen 2016ko martxoaren 1ean, etika publikoa eta eredugarritasuna bermatzeko eta ezaugarri bilakatzeko xedez.

Sistema horren barne dago Gipuzkoako Foru Aldundiko eta haren sektore publikoko kargu publikoen zein langile baliokideen Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodea. Horrez gain, foru kargu publikoak eta kargu baliokideak dituzten pertsonak beren funtzioak eta jarduera publikoak egitean bete eta sustatu beharreko jokabide eta jardunbide arauak identifikatzen ditu sistema horrek, baita esparru pribatuan bete eta sustatu beharrekoak ere, baldin eta beren jokabide pribatuak eragina badu jarduten duten erakundearen irudian. Hori guztia zuzentasuna eta eredugarritasuna sustatzeko helburuarekin, erakundearen irudia babes-tuz.

2.- Gipuzkoako Foru Aldundiko eta haren sektore publikoko kargu publikoen zein langile baliokideen Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodea zortzi baloreen inguruan ezarri da –ordezkaritza, zuzentasuna, eredugarritasuna, zintzotasuna eta eskuzabaltasuna, objektibotasuna, profesionaltasuna, eraginkortasuna zein bizikidetzeta eta errespetua– eta zortzi printzipio nagusi ditu: lidergo partekatu eta eraldatzailea, gardentasuna, datuen eskuragarritasuna, kudeaketa eta berrikuntza eredu berria, euskararen sustapena eta erabilera, kohesio ekonomiko-soziala eta lurralde oreka, harreman kapitalean oinarritutako gobernu eta herritarren entzute aktiboa, eta kontuak ematea.

Balore eta printzipio esparru horretan, jarrera eta jokabide katalogo zabal bat zehazten du kode horrek, hain zuzen ere Erakundearen Etika Batzorde honek jarduteko erreferentziako parametro gisa, era horretan, borondatez kodera atxikitako kargu publikoek edo kodeko xedapenak behar bezala betetzeko zinezko interesa duten hirugarren pertsonak helarazitako kontsultak, zalantzak eta dilema etikoak erantzuteko.

3.- Erakundearen Zuzentasun Sistemak aurreikusten du Erakundearen Etika Batzordea (EEB) osatzea organo independente gisa, hain zuzen ere Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodea arautzen duten balore, printzipio eta jardunbideak bultzatu, sustatu, babestu eta betetzen direla bermatzeko, baita erakundearen irudia kaltetu dezakeen edozein ez-betetzeko edo jardunbide desegokiri aurrea hartzeko ere.

Berme organoaren eginkizunak kargu publikoen eta baliokideen gainean proiektatuko dira, besteak beste.

4.- 3/2016 Foru Dekretuak, martxoaren 1ekoak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko foru sektore publikoko Erakundearen Etika Batzordea eratzeakoak –urtarrilaren 16ko 3/2018 Foru Dekretuaren bidez aldatu zenak– 3.b) artikuluan xedatzen du EEBaren eginkizuna dela ebazpen, txosten eta oharren bidez, kargu publikoek egindako kontsultak eta azaldutako zalantza zein dilema etikoak ebaztea.

5.- Eskatzaileari Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodea aplikatzen zaio, horren 1.3. arau orokorraren 1. zerbakiaren b) letran xedatutakoaren arabera.

III. ERAKUNDEAREN ETIKA BATZORDEAREN BALIOESPENA

1.- Interesdunaren kontsultak erreferentzia egiten dio (...) zuzendari nagusi gisa gaur egun betetzen duen kargu publikoari zuzenean lotutako aldizkako jarduerari bati. Ez da lehenengo aldia EEBak horri buruzko kontsulta bat jasotzen duena eta, beraz, ebazpen honetan, lehendik emandako ebazpenei egingo diegu erreferentzia.

Kargu publiko izaerari lotutako jarduerengatik ordainsariak jasotzeko aukerari buruz 03/2018 ebazpenean (eta 02/2016 eta 02/2018 ebazpenetan) aztertzen eta argumentatzen zen moduan, Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodeko zintzotasun eta eskuzabaltasun balioei (3.4.f) lotutako arauak ez dute zalantzarako tarterik uzten interesdunak aipatutako jardueragatik konpentsazioren bat jasotzeko ezintasunari dagokionez.

2.- Unibertsiteari zenbateko hori ongintzako entitate bati emateko eskaera egiteari dagokionez, 03/2018 ebazpenean esan bezala, ez dagokio EEBari foru administratibotik kanpoko erakundeen jarduerari buruzko kontuak ebaztea, horiek Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodearen aplikazio eremutik kanpo geratzen baitira.

3.- Aurreko hori hala izanik ere, interesdunak asmoa adierazi du (...) (...) proposatzeko zenbateko hori jasotzeko entitate gisa.

Puntu honetan, hizpidera ekarri behar dira Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodean objektibotasunari buruz (3.5) ezarritako jokabide arauak:

a) Foru kargu publikoek objektibotasunez eta interes orokorren zein herritarren interesen alde jardun beharko dutela beren jarduerari publikoetan.

b) Horretarako, beren funtzioetatik kanpo utzi beharko dute **edozein jarduerari susmugarri**, baldin eta horien bidez modu ez-objektiboan eta argumenturik gabe, entitate pribatu edo publiko edo pertsona zehatzei **zuzeneko ala zeharkako onura** sor diezaieketela badirudi.

(...)

Lehenik eta behin, gogorarazi behar da, hasieran adierazi bezala, interesdunak ez duela jarduera horren ondorioz ordainsaririk jasotzeko eskubiderik; eta, beraz, edozein kasutan erabat bideraezina izango litzatekeela interesdunak zenbateko hori jasotzea eta gero aipatutako entitateari haren izenean dohaintzan ematea.

Hizpide dugun kasua ez da hori, ordea. Aldiz, UPV/EHUri adierazi nahi zaio nori eman behar dion ordainsari hori jardueran parte hartuko duen interesdunari eman beharrean. Kasu horretan, dirua bideratuko litzaiokeen elkartea berariaz aipatuz, galdetu behar da ez ote zaion zeharka hirugarren entitate bati onurarik ematen, Gipuzkoako Foru Aldundiko zuzendari nagusi izateagatik egindako jarduera bati esker.

Nolabait, eta analogiaz, esan daiteke entitateak zuzeneko irabazi bat jasotzen duela zuzendari nagusi gisa dituzun funtzioak gauzatzearen ondorioz, eta, halakorik egitekotan, behar bezala oinarrituta egon beharko lukeela, 3.5.e) artikuluan adierazitako moduan:

e) Foru kargu publikoen ebazpen, jarduera eta erabakiak behar bezala oinarrituta egon beharko dira, beharrezkoa denean, horretarako txostenak, azterlanak, memoriak, oharrak, proiektuak edo irizpenak erabiliz, interes publikoa eta erakundearen beraren papera erabat bermatzeko. Horretarako erakundeko barne baliabideak erabiliko dituzte, eta beharrezkoa bada, kanpo aholkularitza erabiliko dute, administrazio kontratazioaren esparruan indarrean dagoen araudiari jarraiki.

Horrela, intentzioa erabat altruista izanagatik ere, baliteke elkarte horren alde arrazoitu gabeko irabazi bat sortzearen itxura ematea.

4.- Gainera, jarduera horrek aldizkakoa izateari utziko balio eta ohiko edo iraunkor bilakatuko balitz (master batez ari baikara), EEBak adierazi bezala, interesdunak Funtzio Publikoko Zerbitzuaren bateragarritasun eskaera aurkeztu beharko luke horrek kasua balioets dezan, baldin eta jarduera hori bateraezintasun araubidean salbuetsitako jarduera bat ez bada.

Funtzio Publikoko Zerbitzuaren ardura da langileen bateraezintasunen erregimena aplikatzea, bateragarritasun eskaerak izapidetzea, eta horien baimen baldintzak kontrolatzea (7/2017 Foru Dekretua, urtarrilaren 31koa, Gubernantzako eta Gizartearekiko Komunikazioeko Departamentuaren egitura organikoari eta funtzionalari buruzkoa).

Hori dela eta, gogorarazi behar dugu Kode Etikoan jasotako arau etikoak bermatzen direla soilik kasu zehatzari aplikagarri zaion araudia betetzen bada: kasu honetan, abenduaren 26ko 53/1984 Legea, Herri Administrazioetako langileen bateraezintasunei buruzkoa. Ez dugu ahaztu behar Erakundearen Zuzentasun Sistemak etika plus bat eskatzen duela, alor bakoitzean indarrean dagoen legeriaren aldean.

Hori guztia dela eta, Erakundearen Etika Batzordeak aho batez onartu du honako ebazpen hau:

EBAZPENA

Lehenengo.- Interesdunak masterrean parte hartzeak ez du kaltetzen Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodean ezarritako agindurik, nahiz eta, 3.4.f) artikulua araberan, ezin duen bere onurarako ordain ekonomikorik jaso.

Bigarren.- Funtzio publikoa betetzerakoan objektibotasuna bermatzeko, masterrean parte hartzeagatik legokiokoen ordainsaria dohaintzan emateko eskatuko balitzaio UPV/EHUri, (...) andreaki gomendatzen diogu ez dezala zehaztu zenbatekoa zein entitateri eman behar litzaiokeen.

08/2018, Ikastaro batean parte hartzeagatik oparia jaso izanaren inguruko kontsulta (KP)

08/2018 Gaia

EBAZPENA, (...)KO DEPARTAMENTUKO (...)KO ZUZENDARI NAGUSI (...)K IKASTARO BATEAN PARTE HARTZEAGATIK JASOTAKO OPARI BATEN INGURUAN EGINDAKO KONTSULTARI BURUZKOA.

I.- KONTSULTA

1.- 2018ko uztailaren 13an, (...) (...)rako zuzendari nagusiak, (...)ko Departamentukoak, ahozko kontsulta egin zion Erakundearen Etika Batzordeari (EEB), ikastaro batean parte hartzeagatik jaso zuen opari baten harira.

Azaldu duenaren arabera, parte hartu zuen (...)k eta Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateak (UPV/EHU) elkarlanean antolatutako (...) izeneko ikastaroan, Europar Batasunaren markoan aldundiek duten eginkizunaren inguruko hitzaldi baten bidez.

(...) jaunak uko egin zion horren trukeko ordainsari orori, beraz, haren lana eskertzeko asmoz, Mari Puri Herrero margolariaren akuaforte bat eman zitzaion.

2.- Interesdunak EEBaren iritzia jakin nahi du hark jaso duen opariari eman behar liokeen erabileraren inguruan.

II.- ARAU APLIKAGARRIAK

1.- Diputatuen Kontseiluak Gipuzkoako Foru Aldundiko eta bere sektore publikoko Zuzentasun Sistema onartu zuen 2016ko martxoaren 1ean, etika publikoa eta eredugarritasuna bermatzeko eta ezaugarri bilakatzeko xedez.

Sistema horren barne dago Gipuzkoako Foru Aldundiko eta haren sektore publikoko kargu publikoen zein langile baliokideen Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodea. Horrez gain, foru kargu publikoak eta kargu baliokideak dituzten pertsonak beren funtzioak eta jarduera publikoak egitean bete eta sustatu beharreko jokabide eta jardunbide arauak identifikatzen ditu sistema horrek, baita esparru pribatuan bete eta sustatu beharrekoak ere, baldin eta beren jokabide pribatuak eragina badu jarduten duten erakundearen irudian. Hori guztia zuzentasuna eta eredugarritasuna sustatzeko helburuarekin, erakundearen irudia babes-tuz.

2.- Gipuzkoako Foru Aldundiko eta haren sektore publikoko kargu publikoen zein langile baliokideen Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodea zortzi baloreen inguruan ezarri da –ordezkaritza, zuzentasuna, eredugarritasuna, zintzotasuna eta eskuzabaltasuna, objek-

tibotasuna, profesionaltasuna, eraginkortasuna zein bizikidetzeta eta errespetua – eta zortzi printzipio nagusi ditu: lidergo partekatu eta eraldatzailea, gardentasuna, datuen eskuragarritasuna, kudeaketa eta berrikuntza eredu berria, euskararen sustapena eta erabilera, kohesio ekonomiko-soziala eta lurralde oreka, harreman kapitalean oinarritutako gobernu eta herritarren entzute aktiboa, eta kontuak ematea.

Balore eta printzipio esparru horretan, jarrera eta jokabide katalogo zabal bat zehazten du kode horrek, hain zuzen ere Erakundearen Etika Batzorde honek jarduteko erreferentziako parametro gisa, era horretan, borondatez kodera atxikitako kargu publikoek edo kodeko xedapenak behar bezala betetzeko zinezko interesa duten hirugarren pertsonen helarazitako kontsultak, zalantzak eta dilema etikoak erantzuteko.

3.- Erakundearen Zuzentasun Sistemak aurreikusten du Erakundearen Etika Batzordea osatzea organo independente gisa, hain zuzen ere Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodea arautzen duten balore, printzipio eta jardunbideak bultzatu, sustatu, babestu eta betetzen direla bermatzeko, baita erakundearen irudia kaltetu dezakeen edozein ez-betetze edo jardunbide desegokiri aurrea hartzeko ere.

Berme organoaren eginkizunak kargu publikoen eta balioekideen gainean proiektatuko dira, besteak beste.

4.- 3/2016 Foru Dekretuak, martxoaren 1ekoak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko foru sektore publikoko Erakundearen Etika Batzordea eratzeak (urtarrilaren 16ko 3/2018 Foru Dekretuaren bidez aldatu zenak), 3.b) artikuluan xedatzen du Erakundearen Etika Batzordearen eginkizuna dela ebazpen, txosten eta oharren bidez, kargu publikoek egindako kontsultak eta azaldutako zalantza zein dilema etikoak ebaztea.

5.- Eskatzaileari Gipuzkoako Foru Aldundiko eta haren sektore publikoko kargu publikoen zein langile balioekideen Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodea aplikatzen zaio, horren 1.3. arau orokorraren 1. zenbakiaren b) letran xedatutakoaren arabera.

III. ERAKUNDEAREN ETIKA BATZORDEAREN BALIOESPENA

1.- Aurrez EEB honek adierazi izan duen moduan (02/2018, 03/2018 eta 07/2018 ebazpenak), Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodearen ikuspuntuaren arabera, ezerk ez du eragozten foru administrazioko goi karguek ikastaro eta mintegietan parte hartzea haien karguagatik soilik; baina eskuzabaltasunari eta eraginkortasunari buruz xedatutako balioei lotutako jokabide arauak -Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodeko 3.4.f)- jarduera horregatik ordainsaririk jasotzea eragozten dute:

*f) Foru kargu publikoek ez dute inolako opari, gonbidapen, bidaia, otordu edo **ordainketa ekonomikorik onartuko beren funtzioak betetzean hitzaldiak emateagatik** edo **karguari lotutako jarduerak egiteagatik**, baldin eta horiek bere zintzotasuna zailantzan jartzen badute, edota parte hartzeko prozesua baldintzatzen dutela pentsa badaiteke. Kontsulta edo kexen bidez, berme organoak kasuan kasu onargarriak eta onartezinak diren opari, konpentsazio eta onuren zerrenda ezarriko du. Salbuespen horiek Kode honetako Aplikazio Gidan xedatuko dira.*

Kasu honetan, Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodean ezarritakoari jarraikiz, interesdunak uko egin zion ikastaroan parte hartzeagatik ordainketa ekonomiko orori; hori dela

eta, ordainsariari uko egin zioten gainerako hizlarien moduan, eskertze opari bat eman zitzaion, hain zuzen, Mari Puri Herrero margolariaren akuaforte bat.

2.- Aditzera ematen denez, 3.4.f) artikulua, ordainketa ekonomikorik jasotzea ez ezik, opari oro onartzea ere debekatzen du, eta ondoren zehazten du hori aplikagarria dela «bal-din eta horiek bere zintotasuna zalantzan jartzen badute, edota parte hartzeko prozesua baldintzatzen dutela pentsa badaiteke».

Beraz, aztertuko da ea kasu honek baldintza hori betetzeko ezaugarriak ote dituen.

06/2017 ebazpenean adierazi genuenez, ez da erraza bereizten noiz den opari bat ordain eta noiz kortesiazko detaile bat bakarrik; izan ere, hainbat administrazio ez bezala (adibidez, Galiziako Xuntak edo Madrilgo Udalak), Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodeak ezarritako jokabide arauk ez dute erreferentziazko ekonomia muga jakinik zehazten eta hura gainditzen duten opariak jasotzea eragozten, baizik eta, aurrerago esan den moduan, adierazten du berme organoak, kontsulta edo kexen bitartez, kasuan kasu aztertuko duela ea opari, konpentsazio edo onura horiek onargarriak diren edo ez.

EEBaren aburuz, zaila da ekonomia muga bat ezartzea, hain zuzen, uste dugulako ezinbestekoa dela egoera bakoitza, bere ezaugarrien arabera, testuinguruan kokatzea, eta opariaren balio ekonomikoa ez ezik beste faktore batzuk ere kontuan hartzea; horrenbestez, gure erabakia da EEB erakundeak ezarriko dituela, sortzen diren arazoak aztertuta, opari horien onargarritasuna zehaztuko duten irizpideak.

Kasua testuinguruan kokatze aldera, azpimarratzekoa da oraingoan beste administrazio publiko batek (UPV/EHU) antolatu duela ekitaldia, eta, beraz, hura dela oparia eman duena. EEB honen iritziz, Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodea idatzi zenean, ez zen pentsatu esku artean dugunaren moduko egoeretan, ezpada etorkizunean Foru Administrazioaren onuraren bat jaso nahi duten enpresa, entitate edo partikularrek egindako oparietan. Esandakoa honela biltzen du 3.4.g) artikulua:

g) *Edonola ere, Foru Aldundiaren irudia babesteko, kontratatutako diren edo arduraren publikoen berariazko esparruan objektiboki **kontratu daitezkeen enpresa edo partikularrek egindako opari, gonbidapen edo hitzaldi eskaintzei uko egingo diete** foru karguek. Oparia edo gonbidapena emango balitz, berehala foru administrazioaren edo sektore publikoko erakundearen esku jarri beharko litzateke, dagokiona egiteko.*

Zalantzen bat izanez gero:

i) *Kargu publikoak ildo horretan inolako zalantzarik badu, hori berme organoari helarazi beharko dio horretarako zehaztutako bideak erabiliz, eta beharrezkoa bada, bere eskaera isilpekoa izatea eska dezake.*

Gainera, ezin dugu oparitutako objektuaren balioa alde batera utzi, ezin dugu alboratu opari hori jasotzeko izan dezakeen kalteen proportzioa eta gradua: eragin lezake hura jaso duenaren betekizunetan edo berak ordezkatzeko duen instituzioaren irudiaren inpartzialtasunean eta zuzenttasunean, edo uler daiteke, iritzi publikoaren arabera, herritarrek instituzio horretan duten konfiantza urratzen duen elementu moduan. Horrenbestez, zentzuz eta proportzionaltasun printzipioaren arabera jokatzeko da kontua.

Kontuan izanda administrazio publikoak etengabe aritzen direla elkarlanean, ez dirudi logikoa pentsatzea opari hori emateak ezkutuko helbururik duenik; aldiz, noizean behingo kolaborazio bategatik emandako kortesiazko ohiko oparia dirudi (liburuen, papertegi zein gastronomia produktuen, mihiseen, oroigarrien eta tankerakoen moduan).

Hori guztia dela eta, Erakundearen Etika Batzordeak aho batez onartu du honako ebazpen hau:

EBAZPENA

Lehenengo.- Interesdunak ikastaroan parte hartu izanak ez du Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodean ezarritako xedapenik urratzen. Hala ere, kode horretako 3.4.f) artikuluan xedatutakoaren arabera, ezingo du bere onurarako ordainketa ekonomikorik jaso.

Bigarren.- Interesdunak Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodearen 3.4. artikulua zintzotasunari eta eskuzabaltasunari dagozkion balio etikoei buruz f) eta i) letretan ezarritakoaren arabera jokatu du, zuzenean jarri baitu oparia Foru Administrazioaren eskuan eta kontsulta egin baitio EEB honi.

Hirugarren.- Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta sektore publikoaren Erakundearen Zuzentasun Sistemari jarraikiz, uste dugu, egoera aztertuta, aipatutako opari hori onartzeak ez duela Gipuzkoako Foru Enplegu Publikoaren Etikaren eta Kudeaketa Onaren Kodea urratzen.

09/2018, OPG Euskadi Foro Erregularren parte hartzailea eta zerbitzu emaila izatearen ingurukoa (KK)

9/2018 gaia

OGP EUSKADI EKIMENA SUSTATU DUEN TALDEAK OGP EUSKADI FORO ERREGULARREAN PARTE HARTZEAREN ETA ALDI BEREAN EKIMEN HORREN EKINTZA PLANAREN ESPARRUAN ZERBITZU EMAILE IZATEAREN BATERAGARRITASUNARI BURUZ PLANTEATUTAKO KONTSULTAREN INGURUKO EBAZPENA

I.- KONTSULTA

1.- Foru sektore publikoko Erakundearen Etika Batzordeari (EEB) 2018ko uztailearen 26an helarazitako posta elektronikoko bidez, kontsulta bat jaso da OGP Euskadi ekimenaren Talde Sustatzailearen aldetik (Eusko Jaurlaritzak, hiru Foru Aldundiek, hiru hiriburuek eta Inno-basque-k osatutako taldea).

Talde hau Foro Erregular batekin lanean aritzen da aldi berean. Foro Erregular horretan, erakundeetako zortzi ordezkari eta partaidetza eta auto-hautaketa prozesu baten bidez hautatutako sozietate zibileko zortzi ordezkari parte hartzen dute eta beren eginkizuna Talde Sustatzailetik egiten diren proposamenak balioestea da.

2.- Burutu den kontsulta honakoa izan da: bateragarria da ala ez Foro Erregularren parte hartzea eta aldi berean konpromisoak egikaritzeko zerbitzu emaila gisa jardutea? Posiblea al da (ala ez) lankidetzak formulak diseinatzea, betiere administrazio prozedurak errespetatuz?

tuta eta etika publikoari jarraituta, hartara planaren garapenean parte hartze garrantzitsua izan dezaketen baina arrazoi horregatik (hornitzaile edo parte hartzaile desinteresatu izatearen artean aukeratu beharra) beren parte hartzea mugatuta ikusten duten hornitzaileekin lankidetzak esparruak garatzeko?

II.- APLIKAZIO ARAUAK

1.- Diputatuen Kontseiluaren 2016ko martxoaren 1eko erabakiaren bidez Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta haren sektore publikoaren Erakundearen Zuzentasun Sistema onartu zen; horren helburua etika publikoa eta eredugarritasuna nortasun ezaugarritzat finkatzea da.

Sistema horren esparruan, Diputatuen Kontseiluaren 2017ko irailaren 5eko erabakiaren bidez, kontratazio publikoari aplikatu beharreko Jokabide Kodea eta Zuzentasun Institutuzionaleko Esparrua (KPJK) onartu zen, kontratazio publikoaren alorreko jardueretan jarraitu beharreko balio etikoak eta jokabide arauak ezartzen dituena, baita kudeaketa onaren eta jarduera arau profesionalen printzipioak ere, hala kargu publikoentzat eta foru langile publikoentzat beren eginkizunak betetzearekin zerikusia duten lanbide jarduera guztietan, nola kontratazio prozeduretan parte hartuko duten enpresa eta entitate lizitatzailerentzat.

2.- KPJK kodeak xedatzen du EEBa izango dela, martxoaren 1eko 3/2016 Foru Dekretu bidez sortu zena, berme goreneko organoa eta haren aplikazioarekin lotutako gaiak aztertuko dituena.

3.- Aipatutako foru dekretuaren arabera, EEbaren ardura izango da Erakundearen Zuzentasun Sistemaren garapen instrumentuetan xedatutako balioen, printzipioen eta jokabide arauen ez betetzeen inguruan jasotako kontsultak, kexak eta salaketak izapidetzea eta ebaztea.

4.- Kontsultarekin zerikusia duten Foro Erregularreko pertsona eta kideei, Gipuzkoako Foru Aldundiaren zerbitzu emailen diren edo izan litezkeen heinean, KPJK kodea aplikatutako zaie, kodearen aplikazio eremua ezartzen duena KPJK kodearen 3. artikuluan xedatutakoaren arabera.

III. ERAKUNDEAREN ETIKA BATZORDEAREN BALORAZIOA

1.- OGP (*Open Government Partnership* / Gobernu Irekirako Aliantza) mundu mailako eta alderdi anitzeko ekimena da, gardentasuna sustatzeko, herritarrak gaitzeko, ustelkeriaren aurka borrokatzeko eta teknologia berriak gobernagarritasunaren onurarako erabiltzeko helburua duten gobernuen konpromiso zehatzak bermatu nahi dituena.

OGP aliantzako kide izateko, herrialde parte hartzaileek Gobernu Irekiko Adierazpen bat onartu behar dute eta kontsulta publiko bidez garatutako herrialderako Ekintza Plan bat aurkeztu behar dute.

2018. urtearen hasieran, sareak mundu osoko eskualdez azpiko bost gobernu berri bakarrik barne hartzeko aukera ireki zuen. Aukera horren aurrean, Eusko Jaurlaritzak, hiru Foru Aldundiek eta hiru hiriburuek (*Innobasque*-ren sostenguekin) ahaleginak eta indarguneak batzea erabaki zuten hautagaitza erkide bakarra aurkezteko eta, azkenik, OGP ekimenean parte hartzea lortu zuten, OGP *Euskadi* izeneko proiektuarekin (<http://www.ogp.euskadi.eus/hasiera/>).

Aipatu den moduan, betekizun nagusietako bat zen 2018-2020 *Ekintza Plan erkidea*²² pres-tatzea eta aurkeztea (aurrerantzean, Plana). Plan hori herritarrekin batera sortu behar zen eta ondorioz, talde sustatzaileaz gain (hautagaitzaren zazpi administrazio sustatzaileak eta, aurrerago, EUDEL-Euskadiko Udalen Elkartea ere, Innobasque-ren sostenguarekin), era-kunde sustatzaileen zortzi ordezkari eta sozietate zibilaren zortzi ordezkari osatutako Foro Erregularra sortu zen. Partaidetza eta auto-hautaketa prozesu luze baten ondoren, Foro Erregularra izeneko foroa formalki eratu zen, besteak beste Talde Sustatzailetik bu-rutzen diren proposamenak balioesteko eginkizuna duena.

Planaren helburua da erakunde parte hartzaile guztiek onartutako bost konpromisoak (mandatu planen bidez kontu ematea; open data Euskadi eta linked open data; herritarren partaidetzarako iLab-a; Open Eskola (herritarrei zuzendutako eskola irekia) eta Euskal Zu-zentasun Sistema) garatzea eta gauzatzea. Konpromiso horiek bi urteren buruan egikaritu behar dira eta, horretarako, erakundeen aldetiko lan handiaz gain, alor honetan adituak diren zenbait zerbitzu kontratatze beharra planteatu da.

Hortik dator Foro Erregularraren kide izan eta, aldi berean, zenbait konpromisotan aurreikusitako ekintzak garatzeko kontratatua izatearen (betiere indarrean dagoen kon-tratazioaren arloko legeriaren arabera) bateragarritasunaren inguruko galdera.

2.- Argitu behar den lehenengo gaia da EEB honen jardun esparruak barne hartzen dituela Gipuzkoako Foru Aldundiko Erakundearen Zuzentasun Sistemaren esparru barruan gara-tutako tresnen aplikazio eremuak; kasu honetan, KPJK kodea.

KPJK kodearen helburuaren inguruko atalean jasotzen denaren arabera, kode honek lortu nahi duena da “kontratazio publikoaren alorreko jardueretan jarraitu beharreko balio eti-koak eta jokabide arauak ezartzea, baita kudeaketa onaren eta jarduera arau profesionalen printzipioak ere, hala kargu publikoentzat eta foru langile publikoentzat beren eginkizunak betetzearekin zerikusia duten lanbide jarduera guztietan, nola kontratazio prozeduretan parte hartuko duten enpresa eta entitate lizitatzailerentzat”.

Hau da, KPJK kodeak bi helburu nagusi ditu: a) barneko helburu bat, kontratu publiko baten edozein fasetan parte hartzen duten foru aldundiko kargu publiko eta langile publikoei zuzendutako jarduera esparru bat sortzea; eta b) kanpoko helburu bat, lizitazio publikoetan parte hartzen duten enpresa eta erakundeen aldetiko KPJK kodea urra lezaketen jokabide potentzialak mugatzea.

Honela xedatzen da KPJK kodearen helburuaren inguruko 1.3 eta 1.4 artikuluetan:

1.- Helburua

(...)

1.3.- *Kontratazioaren alorrean Kodeak lanbide orientaziorako gida izan behar du foru langile publikoentzat Gipuzkoako gizartearen zerbitzuari dagokionez, horien egin-kizunak betetzerakoan profesionaltasuna eta inpartzialtasuna sendotzeko premia ezartzen baitu.*

²² http://www.ogp.euskadi.eus/contenidos/documentacion/doc_plan_accion/eu_def/

14.- Orobat, enpresa eta entitate lizitatzailerak eta kontratuaren esleipendunek errespetatu beharreko betebeharrak zehazten ditu, kontratazio prozesuaren zuzentasunaren onerako eta gizartean gardentasunaren kultura sustatzeko, eta horren bidez prebentzio kultura bat (arriku esparruak) garatuko da, kontratazio publikoaren prozesua gardentasun handiagoz hornituko da eta kontratazio publikoan lehia handiagoa sustatuko da.

(...)

Eta, halaber, aplikazio eremua definitzen duenean (3. art.):

3.- Aplikazio eremua

Kode honek zehaztu egiten du zein diren Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta kontratazio publikoko prozesuetan parte hartuko duten kargu publikoen eta funtzionarioen eskakizun etikoak eta kudeaketa onekoak, eta era berean horien profesionaltasuna (prestatuntza) sendotzeko eta eginkizunetan inpartzialtasuna bermatzeko beharra ezartzen du.

Enpresa eta entitate lizitatzailerak dagokienez, jarduera esparrua ezarri nahi du kontratazio prozeduraren zuzentasunaren berme gisa, eta nahitaez betebeharrekoa izango da Gipuzkoako Foru Aldundiak sustaturiko lizitazioetan lehiatuko direnentzat eta horien esleipendumentzat.

(...)

Argi dago, beraz, EEB honek kontsulta hau aztertu ahal izateko kasu posible bakarra dela Foro Erregularrean herritarren ordezkari gisa parte hartzen duten pertsonak edo erakundeek Gipuzkoako Foru Aldundiari zerbitzuak eskaini nahi izatea Planaren konpromisoetan garatutako jardueraren bat egikaritzeko, izan ere, kasu horretan bakarrik izango litzateke aplikagarria KPJK kodean xedatutakoa.

Ondorioz, EEB honek ebazpen honetan burututako hausnarketak kontuan hartzea derrigorrezkoa izango da bai Gipuzkoako Foru Aldundiko goi kargu eta funtzionarioentzat eta baita Planaren esparruan Foru Aldundiarekin kontratuak izenpetzen dituzten pertsona edo erakundeentzat ere. Dena den, hausnarketa horiek ez dira inolaz ere derrigorrezkoak izango Talde Sustatzailean edo Foro Erregularrean parte hartzen duten gainerako alderdientzat, beren borondatez jarduera gidalerro gisa hartu nahi badituzte salbu.

3.- Kontsultan azaldutakoaren arabera, kasu honetan xedatutako betebeharren kanpoko alderdia hartu behar da kontuan, izan ere, zalantza sortu da Foru Administrazioarekin kontratatu nahi duten enpresen inguruan.

Abiapuntu moduan, Foro Erregularreko kideen eginkizuna zein den ezagutu behar da.

Planaren arabera, Foro Erregularrak eztabaidarako eta proposamenerako organoa den aldetik, planaren inplementazioa monitorizatzen du eta autoebaluazioari buruz eztabaidatzen du eta zuzentzeko eta hobetzeko proposamenak egiten ditu. Euskal administrazio publikoen eta antolatutako eta antolatu gabeko herritarren arteko partaidetza eta lankidetzaren areagotzeko egituratutako eta diseinatutako espazio informala da, elkarriketarako eta baterako sorkuntzarako espazioak bilatzeko xedea duena, Euskadin gobernu irekia sustatuko duen

ekintza plan bat diseinatzea, ezartzea eta ebaluatzea ahalbidetzen duten ahotsen aniztasuna bermatuta.

Planak berak argi eta garbi mugatzen ditu bere eginkizunak (60. orria):

Foro Erregularrak honako eginkizun hauek ditu:

- *Euskadin gobernu irekia sustatzeko urte biko (2018-2020) plana elkarlanean diseinatzen laguntzea, hots:*
 - *Egoeraren diagnostikoa egitea eta hasi behar diren erronkak identifikatzea.*
 - *Ekintza planean sartu beharreko konpromisoak ezartzean lehentasunak identifikatzea.*
 - *Urte biko 2018-2020 plana formalizatzea (prozesua, gertaerak, adierazleak...).*
- *Plana ezartzeko prozesua monitorizatzea, eta ezarrita dauden konpromisoak hobetzeko eta zuzentzeko proposamenak egitea.*
- *Planeko konpromisoak betetzeko ebaluazioa egiten laguntzea.*
- *2020-2022 aldirako planaren plangintza egiten laguntzea.*
- *Gomendioak eta proposamenak jasotzea lehenengo planari buruz, ezartzeko eskakizunei buruz eta planeko konpromisoak betetzeko ebaluazioari buruz.*
- *Beste eragile batzuk erakartzea (foro irekia, konpromisoko taldeak) OGParen jarduerak gauzatzera (zuzeneko topaketak, kontsulta irekiak, jarraipen eta ebaluazio prozesuak...).*
- *Egindako jardunaren gaineko informazioa eta kontuak ematea, modu irekian eta elkarlanean.*

Bi lehenak dira aztertzen ari garen kasurako esanguratsuak direnak: Planaren elkarlaneko diseinuarekin eta garatu beharreko konpromisoen monitorizazioarekin lotutakoak.

Plan baten elkarlaneko diseinua lortzeko kide guztiek (kasu honetan, Foro Erregularrak), erakundeek eta sozietate zibilak beren ekarpenak eta iradokizunak egin behar dituzte amaierako Plana onartzeko orduan. Berez, Foro Erregularrean adostu dira amaierako konpromisoak eta mugariak. Hori ondoriozta daiteke Planetik, konpromisoak definitzeko jarraitutako prozesua azaltzen duenean, izan ere, konpromiso posibleen inguruan jasotako 41 fitxetatik, Foro Erregularrak amaierako bost konpromisoak erabaki zituen bere 2018ko ekainaren 14ko bileran (Planaren 8. orria). Beraz, Foro Erregularra da Planaren akordio erabakigarriak hartzen dituen, ohiko bileretan aho batez eta, ezohiko kasuetan eta kideen erdiak hala eskatzen duenean, gehiengo oso bidez (Planaren 61. orria).

Planaren inplementazio faseari dagokionez, bertan jasotzen denaren arabera, talde bat sortuko da konpromiso bakoitzeko eta talde horiek izango dira konpromiso bakoitzaren

garapena burutzearen arduradunak, autonomia maila jakin batekin. Talde bakoitza, aldi berean, Talde Sustatzaileko erakunde baten edo gehiagoren zuzendaritzapean egongo da, taldeko gainerako erakundeen eta herritar antolatuen eta ez antolatuen partaidetza izango du eta, besteak beste, Foro Erregularrari kontuak emateko betebeharra izango du (Planaren 24. orria). (Puntu honetan argitu beharra dago, kontsultan aipatzen ez diren arren, Foro Erregularrean zein konpromiso bakoitzerako taldean herritar antolatuen eta ez antolatuen parte hartzea dagoela eta, beraz, herritar horiek egoera berean daudela kontuan izanda, hemen burutuko ditugun hausnarketek bi talde hauetako kideei eragiten dietela, Foro Erregularra soilik aipatzen badugu ere, kontsultaren xede izanagatik).

Beraz, bi eginkizunetatik ondorioztatzen da Foro Erregularreko kideek proiektuaren fase guztietan parte hartzen dutela, hau da, Planaren diseinuaren eta onarpenaren fasean parte hartu zutela, bost konpromisoen definizioa barne hartuta, eta implementazio fasean ere parte hartuko dutela garapeneraren gainbegirale moduan.

Hasierako irakurketaren ondoren, planteatzen den zalantza argia da, kontsultan bertan azaltzen den bezala: galdera da etikoa den ala ez Foro Erregularrean parte hartzea, kontuan izanda Planaren arabera bertan balioesten eta erabakitzen direla proiektuaren erabaki nagusiak, eta aldi berean hautagaitza aurkeztea (eta, agian, esleipendun izatera iristea) Plan horren garapenerako beharrezkoak diren zerbitzuak emateko.

4.- Alde batetik, argi dago proiektuaren baitako ideietan, konpromisoetan eta erabakietan parte hartzearen ondorioz Foro Erregularreko kideak, zalantzarik gabe, gainerako herritarrak baino egoera abantailatsuagoan daudela, bai inork baino lehen jasotzen duten informaziori esker eta baita konpromisoeekin lotutako jarduerak proposatzeko orduan edo erabakiak hartzeko orduan eragina izateko duten aukerari esker ere.

Gogora dezagun KPJK kodean jasotzen diren jokabide arauen printzipio eta balioen helburua dela “kontratu publikoetako enpresa eta entitate lizitatzaileren eta esleipendunen jardueraren zintzotasun, gardentasun eta zuzentasuna bermatzea” (1.3). Honela ezartzen da tratu berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioa:

2.- Printzipioak

(...)

b) *Tratu berdintasun eta diskriminaziorik eza printzipioa. Tratu berdintasun eta diskriminaziorik eza printzipioaren bidez, konparagarriak diren egoerek tratu desberdina ez izatea eta egoera desberdinak berdinean ez tratatzea exijitzen da. Kontratazio publikoan parte hartzen duten enpresen artean lehia oso eta eraginkorra garatzea aldeztu nahi da. Eskaintzak azaltzerakoan lizitatzaille guztiek aukera berak izatea exijitu beharra dago, baita eskaintza horiek lehiakide guztientzat baldintza beren mendean egotea ere.*

(...)

Galdera agerikoa da: baldintza berdintasunean al daude, lizitatzen diren zerbitzuen beharren inguruko informazioari dagokionez, Foro Erregularrean parte hartzen duten pertsonak edo erakundeak eta gainerako pertsonak eta erakundeak?

Foro Erregularreko kideek eskura dezaketen informazio pribilegiatuaren inguruko gaia kontratuen prestaketa eta diseinu fasean planteatu ohi diren aurretiko merkatuko kontsulten antzekoa da. KPJK kodeak honakoa dio honi buruz:

5.1.- Indarrean dagoen araudiaren arabera formalizaturik dauden aldez aurreko merkatuari buruzko kontsultetan parte hartuko dutenean, baita premiak, helburua eta baldintzak, preskripzioak, prezioak, plangintza zehazterakoan edo lizitazioaren prozedura aukeraketan ere, ez dute lehia murrizteko asmorik izango, eta lehiaren existentzia zein lizitatzaille zehatz batentzako abantailarik ez egotea ziurtatu behar da.

Jakina, kontsulta hauek indarrean dagoen kontratazioaren alorreko araudian xedatutakoa betez burutzen dira. Ikus dezagun araudi horrek zer dioen.

Europako araudiak aitortu egin du hirugarrenen ekarpenek etorkizuneko kontratu publikoen gainean duten balioa eta, beraz, eragile ekonomikoen parte hartzea baimentzen du etorkizuneko kontratu hori arautuko duten baldintza agirien idazketa prozesuan. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/24/UE Zuzentarauak, 2014ko otsailaren 26koak, kontratazio publikoari buruzkoak, 40. eta 41. artikuluetan baimendu egiten du hirugarrenen, aholkularien eta enpresen parte hartzea baldintza agirien idazketan. Funtsean, aholkularitza horrek lehia faltsutu ez dezan eta diskriminaziorik ezaren eta gardentasunaren printzipioak urra ez ditzan bermatzeko neurriak ezartzen dira.

Estatuko araudia are murriztaileagoa izan da kontratazio prozesuetan lehia eta inpartzialtasuna bermatzeko neurriei dagokienez. 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoak, 115. artikuluan honakoa baimentzen du: “merkatu azterketak burutzea eta merkatu horietan jarduten duten eragile ekonomikoei kontsultak zuzentzea, lizitazioa behar bezala prestatzeko eta eragile ekonomiko horiei planen berri eta prozeduran parte hartzeko betekizunen berri emateko helburuarekin”. Eta berariaz adierazten du: “kontsultan parte hartzeak ez du ekidingo aurrerago kasuaren arabera izapidetzen den kontratazio prozeduran parte hartzea”.

Bestalde, Legearen 70. artikuluan, tratu berdintasunaren printzipioa ziurtatze aldera, neurri gisa aipatzen da kontratazio prozeduraren prestaketarako partaidetzaren esparruan edo horren ondorioz trukaturako informazioa gainerako hautagaiei edo lizitatzaillei jakinaraztea, eta eskaintzak aurkezteko epe egokiak ezartzea. Hau da, legeak eskatzen duena da beharrezko neurriak har daitezen aldez aurretik, momenturen batean, kontratazio prozeduraren prestaketan zehar parte hartu duten edo kontratazio organoari aholkularitza eman dioten enpresek lehia faltsutzen ez dutela ziurtatzeko eta prozesuaren gardentasun handiena bermatzeko. Halaber, aurreikusi egiten da enpresa hauek lizitazio horietatik kanpo uzteko aukera, tratu berdintasunaren printzipioa betetzen dela bermatzeko beste modurik ez dagoenean.

70. artikulua. Bateragarritasun baldintza bereziak

1. Kontratazio organoak beharrezko neurriak hartuko ditu aldez aurretik espezifikazio teknikoaren prestaketan edo kontratuaren prestaketa dokumentuetan parte hartu duten edo kontratazio organoari kontratazio prozeduran zehar aholkularitza eman dioten eta lizitazioan parte hartzea erabakitzen duten enpresek lehia faltsutu ez dezaten. Neurri horien barne xedatu ahalko da enpresa horiek, eta horiekin lotutako enpresak, hau da, Merkataritza Kodearen 42. artikuluan aurreikusitako baldintzak

betetzen dituzten enpresak, lizitazio horietatik kanpo uzteko aukera, tratu berdintasunaren printzipioa betetzen dela bermatzeko beste biderik ez dagoenean.

(...)

Foro Erregularreko parte hartzaileek, modu batera edo bestera, etorkizuneko kontratazioak sustatzea, kontratazioan interesa izan ala ez, ez dator araututa kontratuen araudian. Legegilearentzat garrantzitsua dena da ondorengo kontratu horren, bere baldintzen, xedearen, espezifikazio funtzional eta teknikoaren, prezioaren, epearen, kaudimenaren, esleipen irizpideen, egikaritzen baldintzen eta abarren diseinua.

Edozein kasutan ere, ez dugu ahaztu behar aztertzen ari garena ez dela legezketasun auzi bat baizik eta etika auzi bat; eta gakoa ez da mesfidantza, baizik eta aztertutako egoeraren ondorioz KPJK kodearen operatibitatea alor subjektibo eta objektibo honetara zabaltzeko beharra.

Hala ere, gogora dezagun atal honetan azaldutako guztia kontsultatu denaren eta aurretiko kontsulten arteko alderaketa batean oinarritzen dela. Bien arteko antzekotasun lotura bat baden arren, ezin dugu baieztatu egoera bera denik, batez ere kontuan hartuta Foro Erregularreko kideek ez dutela bakarrik aurretiko fasean parte hartzen. Ikusi den moduan, KPJK kodeak berak aurreikusten du aurretiko kontsultak burutzeko aukera horrek bertan xedatutako urratzea ekarri gabe, betiere lehia librea bermatzeko neurriak hartzen badira. Aztertzen ari garen gaiaren desberdintasuna da pertsona edo erakunde hauen parte hartzea ez dela aurretiko kontsultara mugatzen (non Administrazio eskudunak jada erabaki duen lizitazio bat abian jartzea eta kontsultaren helburua lizitazioa behar bezala antolatzea eta eragile ekonomikoek dagokion kontratazio organoaren planen eta prozeduran parte hartzeko betekizunen berri ematea den), aldiz, hasieratik parte hartzen dute, abian jartzea balioesteko momentuan ere (hemen dute, hain zuzen ere, egoera pribilegiatua eta hor izan dezakete beren interesen onurarako erabakiak hartzeko prozesuan duten eragina baliatzeko aukera), eta baita ondorengo faseetan ere lehenago aipatu diren konpromiso bakoitzaren taldeak eman behar dizkien kontuei esker. Zentzu horretan, gogora dezakegu KPJK kodeak, bere aplikazio eremua ezartzen duenean, adierazten duela bere Integritate Esparruan aurreikusitako betebeharrek zeharkako izaera dutela, kontratazio prozeduraren edozein fasetako jardura orori aplikagarriak baitira.

Bestalde, aipagarria da ere KPJK kodearen 6.2 artikuluan xedatutakoa, lizitazio prozeduran zehar informazioa eskuratzeari eta langile kudeatzaileekin harremana izateari buruzkoa.

(...)

6.2.- Lizitazio batean interesaturiko enpresa edo profesionalak ezin dira harremanetan jarri kargu publikoekin, ezta lizitazioaren arduraduna den botere esleitzzailearen langileekin ere lizitazioaren denboran, salbu eta baldintza agiriei eta gainerako dokumentazio osagarriari buruzko informazio gehigarria lortzeko, kontratazio publikoari buruzko legeriak ezartzen dituen baldintzetan.

Azttertzen ari garen kasuan, zaila da irudikatzea, Foro Erregularrari (eta, ondorioz, bere kideei) esleitu zaion jardueren organo onartzaile eginkizuna ikusita, harremanetan ez jartzearen baldintza hori bete ahalko denik, izan ere, Foroan bertan bilduko dira bai hautagai potentziala eta baita erakunde esleitzzailearen arduradunak ere.

5.- Bestalde, Planak berak xedatzen ditu Foro Erregularraren jarduera balioak eta printzipioak (60. orria):

Foro Erregularra osatzen duten kideek jarduteko balio eta printzipio batzuk dituzte, konpromiso moduan bete behar dituztenak. Honako hauek dira:

- *Integritatea: zintzotasuna eta **ezaxola subjektiboa**.*
- *Gardentasuna eta kontuak ematea.*
- *Gidaritza eta eredugarritasuna.*
- *Ondasun komunaren, inpartzialtasunaren eta objektibotasunaren aldeko elkar-lana.*
- *Berrikuntza publikoa.*
- *Etengabeko ikaskuntza eta hobekuntza.*

Jakina, ez da gure lana Planean xedatutakoa urratzen ari den edo ez aztertzea, Plana EEB honen jarduera esparrutik kanpo geratzen baita eta, beraz, ez dagokigu guri horretan sartzea. Hala ere, ezin dugu alde batera utzi bertan aipatzen den ezaxolaren balioa, bere erara, Gipuzkoako Foru Aldundiko eta haren sektore publikoko kargu publikoen zein langile baliokideen Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodean (KPJK) eta Gipuzkoako foru enplegu publikoaren etikaren eta kudeaketa onaren kodean (EPJK) ere aipatzen dela, zintzotasunaren eta eskuzabaltasunaren balioak erabilita, KPJK kodean gertatzen den modu berean.

Honela, KPJK kodeak honakoa adierazten du:

3.4 Zintzotasuna eta eskuzabaltasuna

(...)

b) *Interes publikoen eta pribatuen arteko gatazkarik badago, edo gatazka susmorik badago, kargu publikoak dagokion autoritateari edo erakundeari jakinarazi behar dio lehenbailehen. Halaber, gai horri buruzko kontsulta berme organoari ere helarazi ahal izango dio.*

c) *Edonola ere, aurreko atalean zehaztutako baldintzetako bat ematen bada, ez du parte hartuko dagokion erabakia hartzeko prozesuan, ez zuzenean, ez zeharka.*

(...)

e) *Interes gatazka dagoela dirudi foru kargu publikoaren ustez, bere eskumeneko jarduera, esku hartze edo erabakiek ez badute eraginik bere interes pertsonaletan, familia interesetan edo berari lotutako hirugarren pertsonen interesetan, ezta pertsona horiek nolabaiteko harremana izandako enpresa edo entitateen interesetan; baina ikuspegi objektibotik begiratuta, jarduera, esku hartze edo erabaki horrek erakundearen irudia zuzenean eta nabarmen kaltetzen badu herritarren aurrean.*

(...)

Eta EPJK kodeak:

3. Zintzotasuna eta interesik eza

- a) Foru langile publikoaren jardunak interes publikoa guztiz betetzera eta gipuzkoar herritar guztien interesetara bideratuko du.
 - b) Interes publiko eta pribatuen arteko gatazka edo gatazka zantzuen kasuan, langile publikoak eskumena duen erakundeari edo aginteari berehala jakinarazi beharko dio. Berme organoari ere kontsulta helarazi ahalgo dio.
 - c) Edozelan ere, aurreko letran adierazitako egoeraren bat emango balitz, bereziki interes publiko eta pribatuen arteko edozein gatazka edo gatazka zantzu, prozedura horretan parte hartzeari uko egin beharko dio, ezar daitekeen araudiaren arabera.
- (...)

Gainera, KPJK kodeak ere ideia bera azpimarratzen du, barne alderdia soilik aipatzen badu ere, baina espiritu hori eta gainerako kodeena eta Foru Aldundiko Erakundearen Zuzentasun Sistemarena ere agerian uzten ditu, irizpide orokorren artean honakoa aipatuta:

4.3.- Foru kargu publikoek eta Foru Aldundiko langileek **ez dute parte hartuko** interes pertsonala izango duten inolako kontutan, ezta beren postu publikoarekin **interes gatazka planteatzeko arriskua lekarketen** inolako jarduera edo interes pribatutan ere.

Hala, ez dute parte hartuko betebeharrak ekonomikoaren kontratazioan, finantza eragiketetan, ondare betebeharretan edo negozio juridikoetan parte hartzeak beren eginkizunen betebeharrekin interes gatazka eragin dezakeenean.

Foro Erregularreko kideen fede ona abiapuntu hartu behar dugu; EEB honek ez du inolaz ere fede on hori zalantzan jartzen. Hala ere, KPJK, EPJK eta KPJK kodeen manuek ez dute bakarrik interes gatazka posible bat aipatzen, baizik eta interes gatazka bat egoteko susmoa ere. Hau da, bere eskumeneko gaiekin lotutako prozeduretan jarduteak edo esku hartzeak bere interes pertsonalei eragiten ez dienean, baina, ikuspuntu objektibo batetik, jarduketa edo esku hartze horrek herritarrek duten Erakundearen (edo, kasu honetan, Erakundeen) objektibotasun irudia kaltetu dezaketenean. Izan ere, ez dezagun ahaztu zuzentasun sistemen eta sistema horiek osatzen dituzten tresnen helburu nagusia dela erakundeen azpiegitura etikoa sendotzea herritarrek duten zerbitzu publikoko erakundeetako eta Erakundearen zerbitzura dauden pertsonen inpartzialtasunean, profesionaltasunean eta zuzentasunean duten konfiantza indartze aldera. Eta kasu horietan, gomendatzen dena ez parte hartzea da.

Azaldutako guztiari jarraiki, Erakundearen Etika Batzordeak aho batez onartu du ondorengo

EBAZPENA

Lehenengoa.- OGP Euskadi ekimenaren Foro Erregularrean parte hartzea eta ondoren Gipuzkoako Foru Aldundiari zerbitzuak ematea Planaren inplementazioarekin zuzenki lotutako jarduerak garatu eta egikartzeko eta Planean jasotako konpromisoak egikartzeko, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Erakundearen Zuzentasun Sistemaren xedatutakoaren aurka

doa, Gipuzkoako Foru Aldundiko eta haren sektore publikoko kargu publikoen zein langile baliokideen Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodearen 3.4 b), c) eta e) manuen arabera; Gipuzkoako foru enplegu publikoaren etikaren eta kudeaketa onaren kodearen 3. a), b) eta c) manuen arabera; eta kontratazio publikoari aplikatu beharreko Jokabide Kodea eta Zuzentasun Instituzionaleko Esparruaren 4.3 manuen arabera.

Bigarrena.- Edonola ere, kontratazio prozesuen gardentasuna areagotzeko xedearekin, EEB honek OGP Euskadi sareari gomendatzen dio jarraian adierazitako neurriak har ditzan 2018-2020 OGP Euskadi Ekintza Planaren esparruan abian jarriko diren kontratazio prozesu guztietarako:

- 1) Foro Erregularrean edo konpromiso bakoitzaren taldeetan trukaturako kontratazio posibleen inguruko informazio esanguratsua jaso eta proposaturako guztiaren laburpen txostena burutzea.
- 2) Txosten hori Euskadiko kontratazio publikorako plataforman argitaratzea eta lizitazioa burutzeko momentuan aipatzea, interesdunek txostena irakurtzeko aukera izan dezaten.
- 3) Arreta handiz eta are modu xehatuagoan berrikustea, ahal bada, edozein lizitaziotan:
 - Kontratuaren xedearen gainean aurretiko kontsultetan parte hartu duten lizitazioaileentzat onuragarriak diren preskripziorik edo espezifikaziorik ez egotea, gainerako eragile ekonomiko potentzialekin alderatuta.
 - Kaudimen betekizunak egiaztatzea: bereziki betekizun horiek kontratuaren xedearekin duten lotura eta betekizunen proportzionaltasuna.
 - Balio judizio bidez erabaki beharreko esleipen irizpideen anbiguotasun maila gain-begiratzea, eta esleipen automatikoko irizpideak aintzat hartzen direla egiaztatzea.

5. Ezarpen gida

Beste behin aldatu behar izan dugu Erakundearen Zuzentasun Sistema, eskarmentua, analisia, eta unean uneko errealtatera egokitu beharra direla eta. Askotan esan den bezala, Erakundearen Zuzentasun Sistema tresna bizia da, eta gaur egungo gizartearen inguruabarrak nola aldatu, hala eguneratu behar da sistema ere, haren behar eta eskariei erantzun ahal izateko.

Batetik, 2018an ebatzitako gaiak aztertu ondoren, jasotako gaien izapide prozesua arautzen duten atalak aldatzeko proposamenak egin ditugu eta, horrez gain, administrazio publikoaren langileek opariak jasotzearen inguruan hausnartu behar izan dugu.

Bestetik, erabat egoki deritzogu salatzailen bermeak indartzea, administrazio eta erakunde batzuk nazioarte mailan haien babeserako hartzen ari diren neurrien ildo beretik.

a) Oparirik ez onartzeko gutunaren eredu

Zintzotasunaren eta eskuzabaltasunaren balioak garatzen dituzten jokabide arauetan, opari oro errefusatzeko gonbit egiten diete Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodeak [3.4.g) eta Enplegu Publikoaren Kodeak [3.g) eta h)] zerbitzari publikoei. Uko egin ezin bazaio, dohaintzan emateko gomendatzen da, dagokion bezala bidera dadin eta, hala, ez dadin aditzera eman hartutako erabakiak opariaren baldintzapekoak zirenik.

2017an eta 2018an, jadanik, gaiaren inguruan zalantzak sortu ziren. Erakundearen Zuzentasun Sistemak berak ezartzen duenez, ezarpen giden bitartez salbuespenak jaso daitezke, eta hala adierazi zen 2017ko memorian. Dena dela, arauaren salbuespenen zerrenda egin baino, gaia kasuan-kasuan aztertu eta *ad hoc* ebaztearen alde egin du Etika Batzorde honek; izan ere, inguruabarrak askotarikoak direnez, uste dugu ezinezkoa dela objektu edo balio jakin baten inguruko arrazoibide bakarra emanez.

Nolanahi ere, ezin dugu ahaztu arau orokorrak ezarritakoaren arabera ez dela inolako oparirik onartu behar, eta, gure iritziz, prozedura erraztu liteke, eta alderdi horri buruzko beharrik gabeko kontsultak saihestu litezke, opariak eskertu baina ez onartzeko eredu bat edukiko balitz. Horregatik, gutun eredu hau proposatzen dugu. Bai Erakundearen Zuzentasun Sistemaren web orrian bai erakundearen Intraneten eskuratu ahal izango da, eta haren berri emango da, foru Administrazioaren zerbitzura diharduten langileek ezagut dezaten.

Donostian, 201_ko _____ren __an	
<p>_____ agurgarria,</p> <p>Honen bidez, nire eskerrik beroena adierazi nahi dizut helarazi didazun opariarengatik. Hala ere, Gipuzkoako Foru Adundiko eta haren sektore publikoaren Erakundearen Zuzentasun Sistema osatzen duten kode etikoek ez didate baimentzen honelakorik onartzea.</p> <p>Edozein kasutan, detailea eskertzen dizut eta espero dut objektuari norako egokia emango diozula.</p> <p>Ongi izan.</p>	<p>Estimada/o_____</p> <p><i>Mediante la presente, quiero mostrarte mi más sincero agradecimiento por el regalo que me has hecho llegar. No obstante, los códigos éticos que forman parte del Sistema de Integridad Institucional de la Diputación Foral de Gipuzkoa y de su sector público me impiden aceptarlo.</i></p> <p><i>En cualquier caso, agradezco el detalle, y espero que puedas darle al objeto el destino adecuado.</i></p> <p>Un cordial saludo.</p>
<p>(sinadura)</p> <p>(Izen eta abizena)</p> <p>(Kargua/lanpostua)</p>	<p>(firma)</p> <p>(Nombre y apellido)</p> <p>(Cargo/puesto de trabajo)</p>

b) Prozedurak izapidetzea eta salatzaila babestea

Jasotako gaien laburpenean adierazi den bezala, jasotako bi salaketak ebatzea egokitu zenean, agerian geratu zen zenbait hutsune zeudela prozeduren izapidetza deskribapenean.

Ikusirik zein garrantzitsuak eta larriak ziren enplegatu publikoari leporatutako salaketak, berehala hauteman zen entzunaldia eman behar zitzaioela, ez egoeraren berri emateko soilik, baita, eta batik bat, egoki zeritzen azalpenak eta argudioak adierazteko eskubidea zuela bermatzeko ere. Hala ere, Etika Batzorde honen prozedura arautzen duen Foru Dekretuak ez du garatzen izapide hori, eta 7.3 artikuluan besterik ez du jasotzen²³; beraz, gaia lehenbailehen ebatzi ahal izateko, egokitzat jo bezala jardun behar izan zuen Etika Batzordeak halabeharrez.

Horregatik, eta aurrez ikusita etorkizunean beharbada norbaiti entzunaldia eman beharko zaiola jasotako kexaren edo salaketaren bat izapidetan edo ebatzen bidean dagoen bitartean, aipatutako Foru Dekretuan prozeduren izapidea arautzen duten atalak alda daitezela proposatzen du Etika Batzorde honek.

²³ 3/2016 Foru Dekretua, martxoaren 1ekoa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko foru sektore publikoko Erakundearen Etika Batzordea eratzekoa; 3/2018 Foru Dekretuak, urtarrilaren 16koak aldatua; 7.3 artikulua: «Kargu publikoaren jokabideak Kodean xedatutako baloreak, printzipioak eta jokabide arauak ez betetzea dakarrela antzematen bada, hari entzunaldia eman ondoren, Erakundearen Etika Batzordeak ebatzen bat hartuko du, modu honetan: (...)».

Aipatu diren auziak direla eta, salatzailearen babes zehaztu beharreko gai garrantzitsua dela iruditzen zaio Etika Batzorde honi, orobat. Egia da Erakundearen Zuzentasun Sistema osatzen duten kodeetan jasota dagoela salaketa anonimoak egiteko aukera, edo kontsulta, kexa edo salaketa konfidentzialak izan daitezela eskatzeko aukera, baina ia-ia ez zaio beste erreferentziarik egiten, eta ez da ezartzen ez salatzailea ez salaketa babesteko mekanismorik. Horregatik uste dugu, berriz ere, autonomiako zenbait lege²⁴ eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren Zuzentarau proposamenak (Batasuneko Zuzenbideko urraketak jakinarazten dituzten pertsonak babesteari buruzkoa)²⁵ ezarritako joeraren ildotik, ezinbestekoa dela hala salatzailei nola salatuei babes handiagoa emateko oinarriak finkatzea; lehenengoi dagokionez, babes sentimendu falta ez dadin izan oztopo bat, egon litezkeen irregulartasunak, etikaren ikuspuntutik okerrak diren portaerak edo interes orokorraren aurkako abusuak salatzeak; eta bigarreni bagagozkie, salaketa faltsu batek izan ditzakeen ondorio kaltegarriak saihestu daitezten.

Aurrez adierazitako guztia dela eta, 3/2016 Foru Dekretuan izapideari buruzko artikuluei zenbait aldaketa egitea proposatzen da.

Taula honetan 2018ko Ezarpen gida jaso da²⁶:

ERABAKIAK

6. artikulua aldatzea

6. artikulua. Prozeduren izapidea.

1. Erakundearen Etika Batzordearen aurrean aurkezten diren kontsulta, kexa edo salaketak bideratu eta ebazteko prozedurak arinak izango dira, eta ez dute eskakizun formal berezirik izango. Kontsulta, kexa edo salaketa egiten duen pertsonaren identifikazioa eskatuko da soilik; baina, Foru Gobernuako Kontseilu Akordio bidez onartutako Jokabideen eta Jardunbide Egokien Kodean xedatutakoari jarraikiz, objektiboki beharrezkoa denean, isilpekoa izango da informazio hori.

2. Foru Aldundiak, Erakundearen Etika Batzordeak hala proposatuta, kontsultak, kexak edo salaketak izapidetzeko protokolo bat ezarri ahal izango du.

2. **Beti bermatuko dira jasotako informazioaren isilpekotasuna eta salatzailearen anonimotasuna, eta berariaz eskatzen bada salaketa isilpekoa izan dadila, edo informazio bereziki kontuzkoa hartzen badu barnean, beharrezko neurri bereziak hartuko dira, komunikazioetako pribatutasun eskubidea bermatzeko, eta debekatuta egongo da salatzailea nor den argitzeko modua ematen duen informazioa jakinaraztea haren nortasunari edo inguruabarrei buruz.**

3. Norbaitek Batzordean salaketa aurkezten badu, eta organo eskudunak haren aurkako ondorioak egon litezkeela ikusten badu, egokitzat dituen neurriak proposatu edo hartu ahal izango ditu kalterik egiten ez zaiola bermatzeko.

4. Salaketa izengabean kasuan, Batzordeak bermatu beharko du emandako informazioa nahikoa egiazkoa dirudiela, onargarria den erabakitzeak, eta hala izan ezean, ez du onartuko.

5. Ez da onartuko salaketa faltsurik, interesaturik edo funsgabekorik, eta Batzordeak salaketa horiek ofizioz ebazteko ahalmena izango du, hark bermatu behar dituen kodeetako edozeinen aplikazio eremuan dagoen erakunde edo pertsona bat bada salatzailea.

6. Kontsulta, kexa edo salaketa prozedura horiek bitarteko elektronikoen bidez izapidetuko dira ahal bada, konfidentziasun arrazoiak direla eta bitarteko elektronikoen erabilteza egokia ez denean izan ezik.

7. Kontsultaren bat ahoz egiten bada, bere edukia idatziz jaso beharko da, eskatutako konfidentziasunari eustea eragotzi gabe.

24 Adibidez, Gaztela eta Leongo 02/2016 Legea; Valentziako Erkidegoko 11/2016 Legea; Balear Uharteetako 16/2016 Legea; Aragoiko 5/2017 Legea.

25 <https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/HTML/?uri=CELEX:52018PC0218&from=ES>

26 Dagokion aldaketa egingo zaio Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta haren sektore publikoaren Foru Zuzentasuneko Sistemari.

8. Kodearen aplikazioa dela eta dituzten zalantza edo arazo etikoen zein jokabideari buruzko zalantza nahiz dilemen kasuan, horiek isilpean bideratzea eskatzeko aukera egongo da; bereziki, norberaren edo familiaren oinarrizko eskubideak arriskuan jartzen badira eta horiek babestu behar badira. Konfidentzialtasun hori behar bezala betetzen dela bermatu beharko du Batzardeak, baita informazioa behar bezala gordeta dagoela ere. Horrenbestez, dagozkion datu pertsonalak ezabatu ondoren bakarrik argitaratu ahal izango da informazio hori, baldin eta zuzenean ala zeharka pertsonaren nortasuna konprometitu ezin bada.

7. artikulua aldatzea

7. artikulua. **Gaiak** bideratzea eta salatzea.

1. Erakundearen Etika Batzardeak ofizioz edo kexa ala salaketa bidez jardun ahal izango du.
2. **Dagokion kontsulta, kexa edo salaketa jaso ondoren, dela horretarako ezarritako helbidearen bidez, dela Erregistroaren bidez, edo ahoz egindako eskaera bat idatziz jaso ondoren, batzardekie guztiei helaraziko zaio informazio hori, berau aztertzen hasi eta ondoren ebatzi ahal izan dezaten.**
3. **Batzordearen ustez, kontsulta, kexa edo salaketan emandako informazioa ez bada nahikoa gaia ebatzi ahal izateko, informazio osagarria eskatu ahal izango zaio kontsulta, kexa edo salaketa planteatu duen pertsonari, eta hark idatziz helaraziko du edo, ahoz jakinarazi badu, idatziz jasoko da.**
4. **Pertsona fisikoan aurka aurkeztutako kexen eta salaketen kasuan, Batzardeak, gehienez ere 5 egun baliiodunen epean, entzunaldia emango dio kexaren edo salaketaren xede den pertsonari, egoeraren berri jaso ahal izan dezan eta, hala, egoki deritzon azalpenak eta argudioak adierazteko eskubidea duela bermatzeko. Haren argudioak entzun ondoren, ebazpen proposamena idatziko du Batzardeak, eta helarazi egingo dio, amaierako alegazioak egin ahal izan ditzan, halakorik egin nahi badu, eta gehienez ere 5 egun emango zaizkio Batzardeari bidal diezazkion.**
5. Garatutako jardueretan ez bada Jokabideen eta Jardunbide Egokien Kodean xedatutako ez-betetzirik antzematen, Batzardeak kexa edo salaketa artxibatzea ebatziko du. Ebazpen hori behar bezala arazoituta egongo da beti.
6. **Kargu publikoaren** Foru Gobernuaren Kontseilu Akordio bidez onartutako Jokabide Kodeetan xedatutako baloreak, printzipioak eta jokabide arauak ez betetzea dakarren jokabiderik hautematen bada, **hari entzunaldia eman ondoren**, Batzardeak ebazpen bat hartuko du, modu honetan:
 - a) Ondorioei begiratuta, ez-betetzea ez bada oso nabarmena, ebazpena gaitzestekoa izango da; eta hori Foru Aldundiaren Gardentasunaren Atarian argitaratuko da.
 - b) Ondorioei begiratuta, ez-betetzea nabarmena bada, ebazpena egindakoagatik ardurari buruz ohartaraztekoa eta gaitzestekoa izango da; eta **haren goragoko nagusiari jakinaraziko zaio, edo, kargu publikoa bada, kargu publiko hori izendatu zein kargutik kentzeko eskumena duen organoari, gertatutakoaren berri izan dezan.**Ondorioei begiratuta, ez-betetzea oso nabarmena bada eta eragin instituzional oso larriak sortzen baditu, kargu publikoan kasuan, kargu publiko hori kargutik kentzeko proposamena jasoko du ebazpenak, eta organo eskudunari helaraziko zaio, dagokiona erabaki dezan; **gainerakoetan, administrazio organo eskudunari jakinaraziko zaio, zer prozedurari jarraitu behar zaion azter dezan.**
7. Ondorio apalak, nabarmenak ala oso nabarmenak eta eragin instituzional larriak sortzen dituen ez betetzea den zehazteko, pertsonaren jokabideaz gain, jokabide horrek erakundearen irudiari egindako kalte objektiboa ere kontuan hartuko da. Graduazio hori aplikatzeko orduan, proportzionaltasunaren printzipioa beteko da.
8. **Kargu publikoiei dagokienez**, gaitzesteko bi ebazpen jasotzen badira **agintaldi berean**, ohartarazteko eta gaitzesteko ebazpena emango du Batzardeak. Hirugarren gaitzespen ebazpen batek kargu publiko hori kargutik kentzeko proposamena daraman ebazpena ekarriko du.
9. **Kargu publikoiei dagokienez**, ohartarazteko eta gaitzesteko bi ebazpen jasotzeak kargu publiko hori kargutik kentzeko proposamena daraman ebazpena ekarriko du.
10. Erakundearen Etika Batzardeak hartutako ebazpenak erreferentzia izango dira organo eskudunak hartu behar duen erabakia hartzerakoan.
11. Administrazio zigorra edo zigor penala merezi duten jokabideak eskumena duen organoari jakinaraziko zaizkio lehenbailehen.
12. Kontsulta, kexa eta salaketak ebazteko epea 15 egun baliiodunekoa izango da.
13. **Hartutako ebazpena interesdunei jakinaraziko zaie. Jakinarazpena egin ondoren, edo jakinarazpena gauzaturat hartu ahal izateko lege ezarritako epea igarotakoan, Gipuzkoako Gardentasun Atarian eta Batzardearen jardueraren berri emateko web atalean argitaratuko da ebazpena, datu pertsonalak eta ebazpenean aipatutako pertsona eta erakundeak identifikatzeko modua ematen duten datuak bereizi eta gero.**

Erakundearen Etika Batzordearekin harremanetan jarri:

zuzentasuna@gipuzkoa.eus

Herritarren Informazio eta Arreta Bulego Zentrala. Foru Jauregia

Gipuzkoa Plaza z.g. 20004, Donostia

www.gipuzkoa.eus/eu/aldundia/zuzentasun-sistema/etika-batzordea



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa